

## Mendiko lasterketa berria egingo dute aurtengo ekainean, Arantzazun

Triatloi horretan parte hartzeko izen-emate epea dagoeneko zabalik dago | 21

Martxoaren 31n ikusgai izango dira autolikidazioak | 2



Oñatiko Zubikoako tenis pista estalia apirilean zabalduko dute | 14



Iñigo Martinez jokalaria Txantxiku Txuriurdinen aurkezpenean | 15



## Lekukoari eusteko gertu

Bihar, eguena, abiatuko da Korrika Urepeletik eta martxoaren 23an zeharkatuko du Debagoiena. | 3 eta 'Herriak' saila

Arrasateko AEK euskaltegikoak Garibai etorbidean, Korrikarako prest.

JAGOBA DOMINGO



GOIENA

Martxoaren 26ra arte itxita izango da AP-1 autobidea | 4

## Egubakoitzean, Candy-ren gaineko gestioen berri

Diputazioko ordezkariak Bergaran izango dira | 2



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

Mari Carmen Gallastegirekin Sarrikon

Eskualdean bizi izan diren famatuekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

### SINADURAK

	ARITZ ARRIETA   6
	6   MONIKA BELASTEGI
	OIHAN ZUBIZARRETA   8
	12   IGOR OIARBIDE
	JOSU ZUBIA   15
	16   JOSU ZALOÑA
	OIER PEÑAGARIKANO   18
	32   AINTZANE OIARBIDE



### Laboral Kutxa Baskonia – Valentzia Basket

partidurako 4 sarrera bikoitzen zozketa

**Martxoaren 29an Buesa-Arenan jokatuko den partidurako (12:00)**



**PARTE HARTZEKO:**

WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Epea: martxoaren 24ra arte.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billetea honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuaitan sartzeak, haiek zuzentzeko edo ezartzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.com





Euskara irabazle, denok irabazle!



# Martxoaren 31n jakin dezake norberak autolikidazioa jasoko duen

Errenta aitortenaren gaineko data batzuk zehaztu ditu Foru Ogasunak

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

2014ko errenta eta aberastasuna aitortzeko aurtengo kanpainarekin lotuta, dagokion atala argitaratu du dagoeneko Foru Ogasunak ([www2.gipuzkoa.net](http://www2.gipuzkoa.net)). Aurtengo kanpainaren alderdi nagusiak laburtzen dituen orria ere jaisteko moduan ipini du; eta, joan den egubakoitza ezker, norberaren zerga informazioa –errentak, atxikipenak, gastuak...– eskura daiteke Internetez (*Gipuzkoataria*), edo postaz bidaltzeko eskatu. Informazio hori errentako laguntza programara inportatu daiteke, autolikidazioaren emaitza kalkulatzeko eta aitortpena Internetez aurkezteko. Lehenengo aldiz, aurreko ekitaldiko aitortenaren datu guztiak inportatu ahal izango dira.

Autolikidazio proposamenak onartzeko epea apirilaren 13tik ekainaren 25era izango da aurten, eta martxoaren 31n ikusi ahal izango du norberak webgunean proposamena jasoko duen edo ez; errenta mekanizatua aurkezteko hitzordua eskatu ahal izango da apirilaren 16tik ekainaren 5era arte; eta aitortenak aurkeztu ahal izango dira apirilaren 17tik ekainaren 25era arte.



Errenta aitortpena tramitatzen Ogasunaren Bergarako bulegoan. | OIHANA ELORTZA

## EAJ, PSE-EE eta PP

Aurten izango da EAJ, PSE-EE eta PPk hitzartutako akordio fiskala aplikatuko den lehen urtea, eta zenbait aldaketa daude.

Aurrezpenaren errentei dagokienez, orain, 2.500 eurora arteko errentek %20 ordaintzen diote Ogasunari. 30.000 euro baino gehiagokoek %25 ordaindu beharok dute.

Zergadunaren adinaren arabera dedukzioak ere aldatu egiten dira aitorten bateratua egiten denean: 334 euro edo 612

euroko (65 urtetik gorakoak edo 75 urtetik gorakoak diren arabea) dedukzioa izango dute zerga-oinarria 25.000 euro baino txikiagoa dutenek, eta beste dedukzio bat, 25.000 eta 35.000 euro arteko zerga-oinarria dutenek.

Gehiago deduzituko zaie ohiko etxebizitza 2012ko urtarrilaren 1a ezker erosi zutenek: dedukzio orokorra %15etik %18 izatera pasatzen da. %20tik %23ra pasatzen da dedukzioa 30 urtera artekoendako –orain arte 35 zen adin muga.

# Candyren gainean egindako gestioen berri emango dute

UBANE MADERA | BERGARA

Egubakoitzean, martxoaren 20an, 12:00etan, Bergarako udal-letxe osoko bilkuren aretoan.

Orduantxe jakinaraziko du Gipuzkoako Diputazioak Candyko Bergarako plantaren gainean orain arte egindako gestioek eman dutena. Eta egunean bertan azalduko diete Candyko langileei zeintzuk izango diren aurrera begira dituzten asmoak. Haiei baino lehen, berriz, planta horren etorkizuna lantzeko sortu zen jarraipen batzordeari jakinaraziko dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiak xehetasun horiek guztiak; jarraipen batzordean daude, besteak beste, Candy Hooverreko zuzendaritzako ordezkariak eta baita ESK, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuetako ordezkariak ere.

## Balizko inbertitzailea

Laburtuz, Candy Bergarako planta ixteko asmoen berri eman zuenetik, Bergarako planta beste proiektu industrial baterako erabiltzeko inbertitzaile bat lortzeko gestioak egiten ibili da Diputazioa hilabeteotan, eta hori zertan den jakinaraziko du etzi. Izan ere, Candy Hoover Taldeko zuzendaritzak martxoaren 31 ezarri zuen epe-muga modura Bergarako plantari erabiltzenen bat eman behar zioten edo ez argitzeko. Epe hori errespetatu ezean, bertan behera geratuko liriteke otsailean alde guztiek sinatu zuten hitzarmenean jasotako baldintzak. Esaterako, hitzartu zuten inbertitzaile berriak hilero 12.500 euro ordaindu beharko lituzkeela Bergarako instalazioak erabiltzeagatik.



Otsailean hitzarmena sinatu zuten ordezkariak. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**SUMMER IN THE USA**  
LEARNING ENGLISH | HAVING FUN | MAKING FRIENDS | BECOMING FAMILY

Pelikuletan bezala!

ADINA: DBH 3-tik unibertsitateko lehen mailara  
DATAK: uztailean

**NW YOUNG LIFE CAMP**

3 aste FAMILIAN + aste 1 KANPAMENTUAN



SEATTLE/PORTLAND 3.995€

Izena eman!!

**HOMESTAY LINGUISTIC**

4 aste FAMILIAN | Ingeles intentsiboa!



SEATTLE 3.795€

**NW ADVENTURE CAMP**

3 aste FAMILIAN + aste 1 ABENTURAZKO KANPAMENTUAN



SEATTLE/PORTLAND 3.995€

Azkenengo plazak!

**MAINE ADVENTURE**

4 aste FAMILIAN + ABENTURAZKO EKINTZAK



LEWISTON/PORTLAND 3.995€

Egonaldia familia batean! Prezioan dena barne dago!

Izena emateko, [www.summerintheusa.com](http://www.summerintheusa.com) web orrian sartu eta "Inscripción"-en klikatu.

INFORMAZIO GEHIAGO: 943-22-49-32  
EMAILA: [office@summerintheusa.com](mailto:office@summerintheusa.com)





Debagoieneko AEK-ko kideak Arrasateko Garibai etorbidean. | JAGOBA DOMINGO

# Urepeletik Bilbora abia dadin Korrika...

## Bihar hasiko da euskararen aldeko lasterketa

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Martxoaren 23ra (astelehena) itxaron barik –ordu pasatuko da Korrika Debagoienetik–, euskararen aldeko lasterketaren hasierara, bihar, eguaztana, Urepelela joateko gonbita egin du AEK-k. "Demaseko ekitaldia izango da. Urepele den txikiarekin, bertako eragile guztiek parte hartuko dute", azpimarratu du Maite Ilarduiak, Korrikako Debagoieneko koordinatzaileak. Eta egitarauaren zertzeladak aurreratu ditu: 11:00etan hasiko da jaia, kale animazioarekin; herri

bazkaria izango da ondoren; kantaldia inguruko abeslariarekin gero –Aire ahizpak...–, eta 16:40an hasiko da Korrikaren hasiera ekitaldia, 17:00etan hartuko du eta aurtengo ibilbidea.

Debagoienari dagokionez, agerikoa da Korrikarekiko dagoen maitasuna. Ilarduiak esandako moduan, fidelitasun handia erakusten dute parte hartzen duten herritarrek, eragileek eta erakundeek.

Baina, gainera, urtetik urtera handituz joan da atxikimendu hori; horren adierazle da aurt

kilometroa hartu duten parte-hartzaile "berriak" daudela.

**ARRASATE:** Mondragon Taldeak eskuratu du kilometroa, Laboral Kutxak ere bai, eta baita Debagoieneko Ospitaleak, erakunde bezala, eta ospitaleko langileek, euren kabuz.

**OÑATI:** Lagun Lekuko erretiratuek estreinaldia dute. Bestalde, Zubillagako suhiltzaileek kamioiak-eta aterako dituzte eta sirenak eta argiak erabilia harreara egingo diote Korrikari.

**BERGARA:** Elay enpresak 50 urte beteko dituzte, eta Jose

### DEBAGOIENENKO IBILBIDEA

**06:30:** Oñatira iritsiko da, Udanatik. Olakua-Kale Barria-Foruen plaza-Kale Zaharra-Garai lantegia- Zubillaga-Elorregi.

**07:30:** Arrasatera iritsiko da-saihesbidetik-Ospitale gunea-San Andres auzoa.

**08:00:** Aretxabaleta-Durana kalea-Fagor Ederlan.

**08:30:** Eskoriatzako biribilgunea; hortxe hartuko du buelta berriro Aretxabaletara sartzeko Fagor Ederlanen sarreratik-Copreci atzetik-Kurtzebarri eskola pareira-Untzillarako bidegurutzera.

**09:00:** Untzilla-Aramaio erdigunetik atzera Arrasatera iritsiko da-Urbe auzoa-Udala plazako biribilgunea-Arrasate pasealekua-batzokia-Erdiko kalea-Seber Altube-Maala-Erdu AEK-Zigorrola-Elorregi.

**11:00:** Bergarara iritsiko da: Labegarieta-Zubiurre-Toki Ederko aldapa-San Martin-San Martin plaza-Barrenkalea-Matzerreka.

Zubieta-IAT-gasolindegia-Elgetarako bidegurutzera.

**12:00:** Ubera.

**12:30:** Elgeta. Eta Elgetatik Elorriora joko du.

### KORRIKAREN ORDUTEGIA

Iragarritako ordutegiak dira aurreikusitakoak; ibilbidean gerta daitezkeen gorabeherak aldatu egingo dira joko diren ordutegiaren arabera.

oparitu egin diote, berak parte har dezan", kontatu du Ilarduiak.

**ARETXABALETA:** GRS egoitzakoek parte hartuko dute estreinaldian. "Nahi dituzte egoitzako nagusiak atera. Hala, apurtxo bat motelduko da Korrika bertatik pasatzerakoan. Gustu handiarekin egingo dugu. Eta badakigu gaitzakoek gero korrika arinago egingo dutela inongo arazo barik, GRSko nagusiek ez dute-eta beste aukerarik parte hartzeko", dio Korrikaren koordinatzaileak.

**ESKORIATZA:** Korrika herri barrura sartzeko ez denez, Postaka (korrika) egingo dute etzi, martxoaren 20an. Bestalde, bertan ordezkariak duen Ansarekin enpresak utziko ditu Korrikarekin Euskal Herria zeharkatuko duten furgonetak.

**ANTZUOLA:** Korrika ez da handik pasatzen, eta, hala ere, Antzuolako enpresa esanguratsuenek parte hartuko dute bertan: Goizperrek, Matz Errekak eta Elayk. Eta, jakina, baita Udalak ere, bestelako enpresak.

**LEINTZ GATZAGA:** "Nahiz eta ez pasatu bertatik, kilometroa eskuratu dute. Korrika Kulturala ere oso ondo landu dute, eta agerikoa da Korrika presente egoten dela Gatzagan", dio Ilarduiak.

**ARAMAIO:** berezitasun handia du. Herriko talde guztien artean herri-poltsa egiten dute eta horrekin eskuratu dituzte Aramaiori dagokion kilometro guztiak. Gero, euren artean banatzen dituzte kilometrook. Adibidez, Santa Agedan batutako dirua erabiltzen dute horretarako...

**ELGETA:** lau kilometro egiten ditu Korrikak handik, eta zortzi elkarteren artean eskuratu dituzte kilometrook. "Eta Elgeta ere txikia da", nabarmendu du Maite Ilarduiak.

### Jarraipen berezia hedabideetan

Euskarazko hedabideek bihar, eguaztana, Urepelen telebista saio bat osatu eta Korrikaren hasiera zuzenean eskainiko dute –tartean, Goienak–. 15:45ean hasiko da saioa, eta 16:00etan da emanaldi nagusia; 17:00etan abiatuko da Korrika, eta hasiera ekitaldia amaitu eta Korrika abiatzearekin batera amaituko da programa berezia.

Bestalde, Korrikaren Debagoieneko ibilbidearen jarraipen osoa egingo du Goiena Komunikazio Taldeak martxoaren 23an. Furgonetatik bertatik, herriz herri, Korrika Txikiak... egunean bertan, Debagoiena zuzenean saioak tarte berezia eskainiko dio; Goiena telebistako albistegian ere jasoko dute horren berri; eta, horrez gainera, saio berezia ekoiztuko du, Korrikaren Debagoieneko parte oso-osorik erakusteko. Egubakoitzeko GOIENA paperari dagokionez, berriz, argazki albuma argitaratuko du eta Goiena.eus-en argazki galeriak eta bideoak izango dira ikusgai egunean bertan.

### Korrika kulturala pasa berri den asteburuan



**ARRASATE.** Mondrahaldun olinpiadak egin zituzten zapatuan Biterin eta egubakoitzean, berriz, bertso saioa Jai Zalen.



**ARETXABALETA** Korrikaren aldeko murala, Euskahaldun dioena, eta Mihiluze erraldoia egin zituzten gazteek zapatuan.



**ARAMAIO** Korrika jaialdi herrikoi eta jendetsua egin zuten barikuan, bertsolariarekin, abesbatzarekin, neska-mutikoekin...

## UDABERRIKO PROGRAMAZIOA BERGARA AZTERGAI

GOIENA TELEBISTA | HARIRA

MARTXOAREN 24AN, 22:00ETAN | JAIONE ISAZELAIA ALKATEAREKIN



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

# Martxoaren 26an zabalduko dute AP-1 autobidea

Hasieran, baina, norabide bakoitzerako bide bakarra irekiko dute

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIEAN

Gasteizerako noranzkoan joan den astean izandako luizia egonkortu eta konpontzeko lanek atzo, martitzena, hasi eta uztailearen 15era arte iraungo dute. Baina, datorren asteko eguenean *by-pass* bat prestatuko dute, eta bide bat irekiko dute noranzko bakoitzean.

## Segurtasunarengatik

AP-1 autobidean, Eskoriatzan, gasolindegia dagoen lekutik gertu izan zen luizia. Lehena martxoaren 3an gertatu zen. Mendi maldak behera egin zuen eta harri koskor batzuk erori ziren, eta errepideraino heldu. Bigarrena, Gasteizerako erreiki biak hartu zituen, joan den barikuan edo zapatuan gertatu zen, toki berean.

Ez Gipuzkoako Diputazioko ez eta Herrizaingo Saileko iturriek ez dute zehaztu noiz gertatu zen bigarren luizi handi hori. Kontua da, segurtasuna bermatze aldera, joan den egubakoitzean itxi egin zutela berriro ere tartar hori. Eskoriatzako lotunetik Lukurainoko tartea, hain justu ere. "Teknikariek egindako ikuskapenetan, mugi-



Lur-jausia errepidean jarritako paretaraino iritsi da. | GOIENA



Zapatuan, Leintz Gatzagako semaforoko auto-pilaketa. | MIRARI ALTUBE

menduak antzeman dituzte lerratutako material masan, eta horregatik itxi dute autobidea, material horiek Eibarko noranzkoko galtzadara iristeko arriskua zego-

lako", adierazi dute Diputaziotik. Gauzak horrela, autobideak zeharo itxita segituko du datorren eguenera bitartean, lurrak egonkortzeko lanen hasierako parte

horretan, hain justu.

Ordezko ibilbide gomendatuak hauek dira: ibilbide luzekoentzat, abiapuntua/helmuga Gasteiz-Donostia duenarentzako, AP-8 eta AP-68 autobideak, edo N-1 errepidea. Debagoiena eta Gasteiz arteko barruko zirkulaziorako, GI-627 errepidea (Arlaban mendatea) edo GI-3310 errepidea (Eskoriatza-Leintz Gatzaga).

## Auto-pilaketak

Autobidea itxi dutenetik zirkulazioa handitu egin da bai Leintz Gatzagatik eta baita Arlabandik ere. Ilara luzeak sortu dira, horrenbestez, batez ere, Leintz Gatzagan, semaforoak direla-eta.

Eskoriatzako Udaltzaingotik adierazi dutenez, "anekdotikoa" da oraingoz eragina eta, "atzeritarren bat edo beste ikusi" dute "herrian galdezka", baina hortik harago ezer nabarmen zehazirik ez da gertatu; ez aste barruan, ezta asteburuan ere.

Aldiz, oso bestelakoa da egoera Gatzagan; hango udal langile batek "beldurgarri" moduan deskribatu ditu zirkulazio pilaketa eta ondorengo arazoak. Izan ere, Arlabango errepideak bide alternatiboa eskaintzen badu ere, zirkulazioa areagotzeak eta Gaztañadi sarrerako lanetan ipinitako semaforoak herriko beste sarrean ere eragin ditu pilaketak. Astelehenean eragina "oso nabarmena" izan zela diote Udaletik, eta atzo ere zirkulazioa gelditu egon dela goizean zenbait unetan.

## MUko ikasle eta irakasle taldea, FTC robotika txapelketan

Hirugarren urtez lehiatuko da Europako First Tech Challenge robotika txapelketan Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Lanbide Heziketako hamahiru ikaslez eta irakaslez osatutako taldea: Robotek. Hain justu, martxoaren 27an eta 28an jokatu da txapelketa hori Herbehereetako Eindhoven hirian. Politeknikoko ikasleak irailan hasi ziren lehiaketan aurkeztuko duten robotarekin lanean. Euskadiko talde bakarra izango da Robotek eta Europa osotik joandako beste 50 talderekin lehiatuko dira.

## Bidegiren gainean berba egingo dute Eskoriatzan

Larraitz Ugartek, Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko Gipuzkoako diputatuak, eta Joseba Altubek, Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko zuzendari nagusiak, *Bidegi, iragana eta oraina. Azpiegitura handi baten ondorio kaltegarriak kudeatzeko eredu berria* izeneko hitzaldia egingo dute. Datorren martxoaren 25ean, eguaztana, da hitzordua Eskoriatzako Ibarraundi museoa, 18:30ean.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
Tel.: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net



# Hitzaldia eta erakusketa, Amsograren 15 urteak ospatzeko

Nikaraguarekiko elkartasun ekimen horrek bailarako udal gehien laguntza jasotzen du

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Hamabost urte betetzen ditu aurtien Amsogra (Amistad y Solidaridad con Granada-Masaya-Ocotl) elkarteak, debagoiendarrek sortua eta Debagoieneko hainbat udalen laguntza jasotzen duena Nikaraguan garapen ekintzak egiteko. Hori dela eta, hitzaldia eta argazki erakusketa antolatu ditu Amsograk; sortzaile eta kide Iñaki Agiriano mediku arrasatearraren esanetan, helburua da Debagoieneko udalek eta herriarrek jakitea gaur egun zertan dabilen elkarteak. Agiriano azpimarratzen du dagoeneko bederatziz urte daramala Amsograk Debagoieneko udalen diru laguntza jasotzen: "Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Bideberri Mankomunitatearen laguntza jasotzen dugu", esan du Iñaki Agiriano. Elorrioko Udalak ere finantzatzen ditu Amsograren proiektuak.

Hitzaldia, 15 urte Nikaraguitik, apirilaren 14an izango da seguruenik (data guztiz finkatzeko dute), eta argazki erakusketa,

Chiguines (Niños), apirilaren 13tik 20ra. Biak Bergarako osoko bilkuren aretoan izango dira.

## Eskubide unibertsalak

Amsogra elkarteak 2001ean sortu zen, eta 2002an hasi zen lanean Nikaraguan. Masayan eta Granadan hasi ziren, eta 2006a ezkeror, horiez gain, Nikaraguako iparraldean dagoen Nueva Segovian ere badabilta. Gaur egun, proiektuen %80 hantxe egiten dituzte.

Amsogra elkartearen printzipioak hauek dira: etxebizitza eta osasuna eskubide unibertsalak direla eta horrela hartu behar direla, eta, horregatik, euren lan-esparru nagusiak etxebizitza duin eta osasungarria eta osasuna bera dira.

Iparraldean, Chorotega de Mozonte herri indigenarekin batera dihardu Amsograk.

## "Guretzako moduko etxeak"

Etxebizitzari dagokionez, bi irizpideren inguruan egiten



Amsograko kideak, Nikaraguako ume batzuekin. | IÑAKI AGIRIANO

dute lan hasieratik: ez egitea pobreak, eta, gainera, elkarteak bizi izateko gertu egongo liritekeen etxebizitzak egitea. Nekazariak eskulana ipintzen du eta 1.800 adobe egiten ditu, eta Amsograk erakuntzarako materiala eta langileak ipintzen ditu. Horren zergatia honela azaltzen du Agiriano: "Horrela, ez dugu ezer opari ematen, eta, gainera, nekazariak bere gisa hartzen du etxebizitza, ez norbaitek emandako gisa".

## Lanpostuak sortzen dituzte

Osasun arloan, bi landa-osasun postu dauzka Amsograk, bat Masayako landa-komunitateetan eta bestea Mozonteko Apamiguel komunitatean. Helburua da euren gana ailegatzea zaila den herriei

## Bederatziz urte daroa Amsograk udalen finantzazioa jasotzen

edo osasun-zentro batetik urrutiko bizi diren herriei osasuna eta botikak gerturatzea. Osasun Ministerioarekiko hitzarmenaren bitartez egiten dute lan hori, eta hitzarmena urtero berritzen dute. Horren bitartez, Amsograk langilean (mediku bat eta erizain bat) kostua hartzen du bere gain, eta botikak erosteko ere laguntzen du. Langileak nikaraguarrak direnez, proiektuak bi lanpostu sortzen ditu osasun-postu bakoitzeko, eta osasun politika Osasun Ministerioak erabakitzen du.

Iñaki Agiriano honela azaltzen du helburua: "Osasun-postu horiek iraunkor izatea, eta Nikaraguako osasun-sareko zati bihurtzea". Horretarako, 2014a ezkeror, lantzen dabilta Osasun Ministerioa, pixkana-pixkana, bi postu horiek edukitzea dakarren kostua bere gain hartzeko aukera.

Masayako postuak 3.600 laguneko populazioa hartzen du, eta 2014an 7.000 artatze baino gehiago egin ziren han. Apamiguelko postuak 1.400 lagun atenditu ditzake.

Bestalde, 2008a ezkeror, Ocotaleko Ospitale eta Erizaintza Eskolarekin hezkuntza arloko elkarlana dauka Amsograk.

## Xabier Olanok Candy ipini zuen enpleguari eusteko Aldundiaren lanaren adibide gisa

L.K. | BERGARA

Maiatzeko hauteskundeetarako Gipuzkoako programa osatzeko lan-saioa egin zuen zapatu goizean Gipuzkoako EH Bilduk Bergaran. Xabier Olano, Gipuzkoako ahaldu nagusirako hautagaia izan zen han. Enpleguan "eredu berri" baten beharra aipatu zuen eta Diputazioa horretarako lanean ari dela gaineratu, eta Candy ipini zuen horren

eredu gisa: "75 lanpostu salbatzeko gogor ari gara lanean".

## Mahai-inguruak

Euskal Herria-Catalunya Independentzia izenburuarekin, mahai-inguruak izango dira hilaren 25ean Oñatiko gaztelekuan (19:00) eta 26an Bergarako Irizar jauregian (18:30). EH Bilduko, ERCko eta CUPeko ordezkari banak hitz egingo dute.



Xabier Olano (erdian), ekitaldian. | IMANOL SORIANO

# Zuri esker

"Gizarte Zerbitzuel esker, nire ama ondo zainduta dago Eguneko Zentroan ni lanean ari naizen bitartean"

Karmele, 45 urte

Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu  
**Zure eskubidea da**

#ZureEskubidea

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

Konpainien kostua: 17.500 €



## ZABALIK

ARITZ ARRIETA  
goiena.eus/komunitatea/



## "Mulier non fit..."

Nolakoak garen egunerokoa, halakoak izango gara gure izaeran. Ereduak eredu, politikagintzan norberatasun hori islatzen da; hau da, politikariek euren eginbehar politikoak eguneroko izaeran islatzen dituzte. Adibidez, argiketari bat bere lanean ustela bada, argiketari hori politikan sartuz gero ustela izaten jarraituko du.

Ustelkeria oso hedatuta dago; lupa txiki mordoxka jarri beharko genituzke gure egunerokotasunean. Zenbat alditan entzun dugu: "Fakturarik nahi?"; "BEZarekin ala BEZik gabe?"... Hori ere ustelkeria da eta hiritarrok konturatu behar dugu politikagintzan ari direnak hiritarren artean irtenak direla; nolabait, gure politikari askoren jokaerak gizartearen isla dira.

PPko Barcenás, Matas edo Roldan bera euren eguneroko lanetan ustelak izango lirake, ustelkeria eramango lukete euren baitan; gizartearen etika falta handia dago, gehiago begiratzen zaio norberaren kolkoari kolektibitateari baino; hori ustelkeria da, etika usteldu egiten baita.

Gauzak aldatzen joan daitezke, politikariek eredu izan behar dute, etika on baten eredu eta jokabide zuzenen isla.

Galdere da: bada etika eta jokabideak neurtzen dituen test edo probarik? Estatistiken arabera, hiritarren bigarren arazoa politikariek ustelkeria da; beraz, hor daukagu datua non minimo batzuek egon behar duten hiritar bat politikari bilakatzeko.

*Mulier non fit suspecta etiam suspicione vacare debe.* Esaera latindar horrek dio politikariek Cesarren emaztearen modukoak izan behar dutela, ez dutelako bakarrik euren jokaerekin euren eredu propioa erakusten, politikari guztionak baizik.

Nire proposamena: unibertsitatean joateko probak egin behar diren moduan, mekanismo etiko bat jarri beharko litzateke; behintzat, etika minimo baten filtroa egin ahal izateko, gero politikagintzan aritzeko. Politikari defizita izango genuke? Eta hau izango litzateke gure gizartearen isla? Ez da arduratzekoa?

## USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.eus

## Goiena Urepelen

Eguenean, martxoaren 19an, Korrikaren 19. edizioa hasiko da eta hamar egunetan Euskal Herriko txoko guztietara iritsiko da euskararen mezua modu bizi eta alai. Urepelen hasiko da, eta, hara joaterik ez duzuenok hasiera zuzenean ikusi nahi baduzue, *Goiena.eus*-en aukera izango duzue, *streaming* bidez. Euskal Herrian euskaraz aritzen garen komunikabideok elkarrekin lankidetzan emango dugu Korrikaren hasiera, lehenengoz. Jakina, Debagoienetik igarotzen denean, euskararen alde Korrika nola egiten duzuen telebistan eta argazkietan ikusteko aukera ere izango duzue Goienarekin.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

Etixerako lan gehiago ikasleei, datorren ikasturtetik aurrera?

Mikel Garcia Idiakez  
http://goo.gl/OJE64M

Hurrengo ikasturtetik aurrera EAEko eskoletan irakatsiko den curriculum prest du Eusko Jaurlaritzak. [...] eta kontuan hartuta LOMCEk dakartzan kanpo-ebaluzioek markaturikoa ere barneratu beharko dutela ikasleek, eskola-ordu berdinetan hainbeste gai eman beharrak eragin dezake etxerako lan gehiago bidaltzea irakasleek.

Izan ere, materia guztia emateko ikastorduak nahikoa ez direla izan ohi da etxerako lanak bidaltzeko irakasleen argudio nagusietakoa [...]. Eta etxean ez bada, "soluzio" azkar bilakatu diren eskolaz kanpoko akademiaren batean egingo ditu, haur edo gazteari denbora kenduz hain hezigarria den aisialdirako, bestelako jarduerak eta aktibitatez gozatzeko, lagun eta senideekin ordu gehiago igarotzeko [...]

Etixerako lanei planto: Ez da eztabaida berria. Ikastetxetik bidalitako etxerako lanei planto egitera deitu izan du Frantziako Estatuko guraso elkarte handienak (FCPE), etxerako lanek onurarik dutenik ez dagoela frogatuta [...].

Aldekoek diote independentzia, ardura, autodiziplina eta ikasketa-ohiturak bultzatzen dituela. Bizitzarako prestatzea helburu duten kompetentzia integralk gero eta garrantzi handiagoa duten garaian, ordea, ongi legoke aztertzea zein motatakoak diren etxerako lanak, eta ez ote diren maiz ariketa errepikakor eta memoristikoak izaten.

Etixerako lanen kontra dauden diskurtsoa ederki jasotzen du Alfie Kohn irakasle eta gurasoak, *The homework myth* (Etxerako lanen mitoa) liburuan: estresa sortzen dute, ez die uzten haurrei beste arlo batzuetan garatzen, etxerako lanekiko umeen interes faltak eskolarekiko eta orokorrean ikastearekiko jarrera ezkorra eragin dezake, eta haurraren jakin-mina amatatzeko arrazoi nagusia dira, besteak beste. "Guk haur osoak nahi ditugu [...] erlaxatzeko eta ume izateko ere denbora izango dutenak", dio Kohnen.

## Malguak gu

Anjel Lertxundi  
http://goo.gl/m2KPG6

Gero eta hedatuago dago batuak ez ote duen malgutasunik, kolore bakarrekota ote den, errealitatea islatzeko edo umorea egiteko gaitasun falta ote duen gaixotasun... Eta malgutasunik ez duenez, *qué subidón!* bezalako haize biguinak hauspotzen dizkiogu barra-barra irrati-telebistatik, gure solasetatik. Nekez ezer malgu esker onekoagorik haize hegoaren gau epela baino...

Dakiena mintza bedi, baina ni nago batuaren noranahikoa ukatzen duenak ez duela tutik, izpirik, mistik, fisik ulertu zer den batua. Ez du zipitzik aditu, piperrik konprenitu, koskorrik jaso, zakilik usaindu zer den estandarra. Gaixo koittuak ez ditu euskararen bazter eta zokondoak miatu, bihotzaren txoko gozoenak eta gorrotoaren zulo beltzenak hizketan jarri, isiltasuna ozendu eta burrundara itzali, ez da saiatu esan ezin omen zena esaten...

Ez, ez du asuntuaren motzaren laburra ere harrapatu, ez dio astoari bere antzik hartu, asta-arrantzari ere ez bere jardunarena.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Uthane Madera  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-butxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# HERRIAK

ARRASATE

## Mantentze-lan txikiak handienari

Ihartuta edo gurutzatutako adarrak kendu, eta adaburuaren egitura hobetu diote sekuoietako bati

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Arrasateko Monterron jauregiko parkeak bi zaindari ditu: Ameriketatik ekarritako bi sekuoia erraldoi. Adin zehatza jakiteko zuhaitzak moztu behar diren arren, adituen ustetan 120-140 urte arteko "gaztetxoak" dira. "Sekuoia 40 bat metro ditu, baina mota bereko zuhaitz nagusiek neurri hori hirukoizten dute", dio agertokiaren eskuinean dagoen sekuoia handiaren lanean ari den Viveros Pagola enpresako gerente Juan Bautista Pagolak.

**Segurtasuna bermatzeko lanak** Espero baino aste batzuk geroago, eguraldiak atseden eman duenean, ekin diote Viveros Pagola enpresako langileek sekuoia hori babestu eta albotik pasatzen

diren oinezkoen segurtasuna garantizatzeko lanei.

Iazko udan, sekuoia gaztea aztertu eta gero, zuhaitzaren inguruko zenbait neurri hartzeko gomendioa egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hilda, ahulduta edo gurutzatuta zeuden adarrak kendu eta zuhaitzaren adaburuaren egitura hobetu dute. Hemeretzi metrora dauden lehen adarretara iristeko, langileek garabi bat erabili dute, eta handik gora soken bidez eskalatu behar izan dute sekoiaren goialdean dauden adarretara heltzeko. Goiko aldeko lanez gain, zuhaitzaren azpian dagoen belarra kendu eta bertan, konpostez egindako babesgarria jarri dute.

Lanak, baina, ez dira zuhaitzera mugatuko, haren seinalez-

tapena ere hobetuko dute-eta. "Informazio erabilgarria emango duen kartela jarriko dugu. Gehiago sakondu nahi duten horiei, QR batzuen bidez, sakelako telefonoan informazio gehiago jasotzeko aukera eskainiko diegu", dio Pagolak.

### Osasun ona

Edozelan ere, zuhaitzaren osasun-egoera primerakoa bada ere, sekoiaren alboan egin diren lanak, haizea eta belarra dira egurrezko erraldoi horren ahulune nagusiak. "Horrelako garaiera duen zuhaitz bati haizeak asko eragiten dio", azaldu du Pagolak, eta hauxe gehitu du: "Arrasatearrak lasai egon daitezela, gu hil ostean ere sekuoia toki berean egongo da-eta".

### Ezagutu beharreko aparteko hamar zuhaitz Gipuzkoan

Magnolia, sekuoia erraldoia, ginkgoa, haritza, artea, hagina, artelatza, pagoa... Haien ezaugarri apartagatik edo nabarmenengatik –tamaina, adina, historia, edertasuna, kokapena...– berriazko babes eskatzen duten aleak dira Aparteko Zuhaitzak. Lurraldeko baso-ondarea ezagutarazteko eta haren balioa agerian jartzeko xedez, 1994an Eusko Jaurlaritzaren lege batek

ezarri zuen Aparteko Zuhaitzen figura, parke naturalen eta biotopoen figurarekin batera.

Sekuoia erraldoia ez da Debagoienak zerrenda horretan duen zuhaitz bakarra, Bergarako Monzonen lorategian dagoen magnolia ere bertan dago-eta; tamainak bereizten du zuhaitz hura ere. Horrez gain, haren edertasuna eta gorpuzkeraren simetria ere izan dituzte kontuan hura babesteko.

JUAN BAUTISTA PAGOLA | VIVEROS PAGOLAKO GERENTEA

## "Gure klimara eta ingurura ongi egokitu da sekuoia"

Foru Aldundiak hala eskatuta, Viveros Pagola enpresako langileek izan dute zuhaitz erraldoira igo eta bertan lan egiteko ardura.

### Berezia da horrelako zuhaitz bat zaintzeaz arduratzea?

Dudarik gabe, balio berezia duen zuhaitza da. Gipuzkoan aparteko izendapena duten hamar zuhaitz baino ez daude, eta, sekoiaren kasuan, tamainak egiten du berezi. Gipuzkoako bigarren zuhaitz garaiera da.

### Kanpoko espezie bat denez, zaintza berezirik behar du?

Aparteko izendapena duten zuhaitz gehienak kanpotik ekarritakoak dira. Sekuoia Kaliforniako espezie bat den



Juan Bautista Pagola. | V.P.

arren, gure klimara eta ingurura ongi egokitu da. Ur asko behar du, eta, elur apur bat gehiago beharko lukeen arren, gure klima aproposa da.

### Behetik ikusita haren egoera ona da; goitik gauza bera ikusten da?

Bai. Egia da haizeak bere gailurra duela 30 bat urte erautsi zuela, baina, zuhaitz gaztea denez, adar berriak hazi zaizkio. Mendea aspaldi bete zuen arren, oso zuhaitz gaztea da, eta horrek lagundu egiten du.

### Hortaz, zuhaitza baino gehiago, herritarrek zaintzeko lanak izan dira?

Baietz esan daiteke. Zuhaitzaren adarrak nahiko goian daude, eta, horietako batzuk ihartuta edo puskatuta daudela kontuan izanda, lurrera kontrol barik jausi baino lehen kendu egin ditugu. Hori izan da egin dugun lan garrantzitsua.

### Zoruan ere egin dituzue lan batzuk.

Kaliforniako sekoi-basoetan ez da apenas belarrik ikusten eta hemen, ordea, asko dago. Horrek zuhaitzari ez dio mesede handirik egiten, eta arazo horri ere konponbidea ematen saiatu gara.



Monterron parkean dagoen sekuoia erraldoia. | JAGOBA DOMINGO



# Udala Behekoa berriro urbanizatzeko lanak abian

Saneamendua hobetu eta argiteria publikoa jarriko dute, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Otsail amaieran hasi ziren Udala Behekoa auzoa berriro urbanizatzeko lanak. 2012an hasi ziren lehen faseko lanak; auzoko baserrien atzealdean bide bat egin zen, hormigoizkoa: "Auzotarren beharrei erantzuteko egin zen bide hori, eurek zituzten partzelatara joan ahal izateko, hain justu", dio Udalak. Aurten egingo dira gainontzeko bi faseak, eta bi fase horietan hainbat obra egitea aurreikusten dute.

## Askotariko lanak

Saneamenduari dagokionez, ur zikinak lur azpian jasota badaude ere, "baldintza egokietan" iraun dezaten herritu egingo dira. Era berean, auzotarrek menditik datorren ura erabiltzen badute ere, Udal sareko ura erabiltzeko aukera emango zaie eta gasari dagokionez, auzoan dagoen propano deposituari -Ingurumen Eskola hornitzen duena- beste bat gehituko diote Udala Beheko eraikin guztiak hornitzeko. Argindarra ere egungo beharretara egokituko da sarea lurpean jarrita eta argiteria publikoa ere jarriko da, orain



Udala Behekoa auzoan lanak martxan dira otsail amaiera ezkerre. | JOKIN BEREZIARTUA

arte ez da-eta egon. 15 farola jarriko dituzte, energia fotovoltaiko hornituko direnak. Gainera, egun dagoen telefono sarea lurperatu egingo da eta baserrietara joateko dagoen hormigoizko bidea zabaldu eta asfaltatu egingo dute. Amaitzeko, elizaren eta Garaikotxiki baserriaren artean plaza berri bat egingo dute.

Lan horiek urtarrilaren 19an esleitu zitzaizkion Construcciones

Otegi-Gaztañaga enpresak eta 395.604 euroko aurrekontua du.

## Bi aurrekontutan jasota

Landa gunean kokatuta dagoen auzoa berriro urbanizatzeko proiektuaren inbertsioa bi aurrekontutan banatu da. Lehen fasea 2012ko aurrekontuan sartu zen eta bigarren zein hirugarren faseko lanak, berriz, aurtengo aurrekontuetan jaso dira.

## EAJ: "Ez dugu pasealekua ixtea onartu, inoiz ez"

J.B. | ARRASATE

Arrasate pasealekuko lanen gainean zabaldu diren "zurrumuru eta informazio faltsuak" argitu eta herritarren artean sortutako "ezinegonari" erantzuteko prentsaurrekoa egin zuen atzo EAJk: "Ez diogu pasealekua ixteari baiezkorik eman, inoiz ez. Hasieratik argi ikusten genuen arazo handiak sortuko zituela; horregatik, 2014ko irailaren 16ko osoko bilkuran eskatu genuen kalea osorik ez ixtea", dio EAJko alkategai Maria Ubarretxenak.

Jeltzaleek uste dute itxierak irtenbide bat behar duela "lehenbailehen": "Bilduren Udala Gobernuari eskatzen diogu burugogortasuna alde batera utzi eta errail bat ireki dezala. Bilduk gu egin nahi gaitu erantzule, baina argi esan gura dugu ez dugula inolako zerikusirik erabaki horrekin. Proposatutako bide alternatiboak ez ditu segurtasun baldintza minimoak betetzen eta istripu bat baino gehiago egon da dagoeneko. Erabaki hauek gehiengo absolutuaren ondorio garbia dira", gaineratu zuen Ubarretxenak.

## NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA



## Zer esan ez dakigula

E lurretako biztanleek eguzkiarekin amesten dute. Eta lurralde eguzkitsuetan ez dakite elurra zer den. Aberatsak diru gosea dauka eta txiroak gosea besterik ez. Aberastu berri denak aldiz, ez daki zer nahi duen baina erraz ahazten du zer zen beharra. Pertsonak jendea behar du baina jendeak itzala egiten dio pertsonari.

Eta jendeak Estatuaren antolatutako dituzte. Estatuak herrien kartzelak bihurtu dira eta herriek ez dakite non diren askeago. Herria letra txikiz idazten da eta letra larritz aldarrikatu. Singularrak dira baina pluralean deklinatzen ditugu. Eta harriek begirik ez dutela esan ziguten, min egiten omen dutela ohartarazteko. Eta harriz eraikitzen ditugu inguratzen gaituzten paretak, gardenak baina harria bezain gogorrak. Eta hain gogorrak ere ez gara, hauskorak eta elkarren menpekoak baizik.

Eta esperantzak gure herrian luze jo du eta ez dakigu noiz agortuko den. Abesti batek kantatu digu denbora dela poligrafo bakarra, denbora omen delako bizitzari neurria hartu eta jartzen dion bakarra. Eta bizitzari bueltaka, kontraesanen eta paradoxen joan-etorrian bizi gara. Zer esan ez dakigula, zerbait esatea otu zitzaigunean.

# Etorkinen aurkako "zurrumuruak", kanpainaren oinarri

Martxoaren 21eko Arrazakeriaren Aurkako Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte

J.B. | ARRASATE

Martxoaren 21ean ospatuko da Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna, eta Udalak, Ekin elkarteak eta ElkarHezitzen elkarteak ekimen berezia antolatu dute aurtengo: "Kezkatuta gaude azkenaldian etorkinen inguruan entzuten diren hainbat zurrumuru eta aldarrikapenekin. Adibidez, gure kaleetan sarri entzun dezakegu *Etxekoak lehenengo* idearen aldarrikapena", adierazi dute Udaletik. Halakoei erantzuteko eta martxoaren 21aren harira, SOS Arrazakeriak *Etxekoak lehenengo*. *Etxekoak guztiok* gara kanpaina jarri du martxan: "Guk sinesten dugu ez dagoela lehen, bigarren edo hirugarren mailako herritarrik nahiz eta batzuk lehiaketa hori bultzatzen saiatu. Ezin dugu lehiatu ez eskubideengatik, ez gizarte baliabideengatik, etxekoak guztiok garelak. Hori dela-eta, SOS Arrazakeriaren aldarrikapene-

kin bat egiten dugu eta herritarrik animatzen ditugu egun horren bueltan antolatuko diren ekintzetan parte hartzera", diote antolatzaileek.

## 'Eman aurpegia' kanpaina

Martxoaren 22rako SOS Arrazakeriak manifestazioa deitu du Donostian -Trintxerpe plazatik irtenda, 11:30ean-, eta hilaren 25ean Etxaluzeko Azeri-Solozar gelan SOS Arrazakeriako Agustin Untzurrunzagak gidatuko duen saiorako gonbidapena ere egin dute: gizarte prestazioen inguruan etorkinen inguruan dauden zurrumuruez arituko da Untzurrunzagak.

Bestetik, Diputazioak martxan jarri duen *Eman aurpegia arrazakeriaren kontra* kanpainan parte hartzeko dei ere egin diete herritarrei. Horretarako, #emanaurpegia eta #arrazakeriarenkontra traolak erabiliz sare sozialetan *selfie*-ak argitaratzera animatu dituzte.

# Arrasate Ahal Dugu ez da hauteskundeetan egongo

J.B. | ARRASATE

Arrasate Ahal Dugu-Podemos zirkulua eratzeko hiru bozerramaila, mahaien eta sare sozialeko arduraduna, diruzaina eta idazkaria izendatu zituzten hilaren 14ko batzar eratzailan. Hori bai, udal hauteskundeetara ez dira aurkeztuko: "Duela hilabete eta erdi eratu ginen, hasiberriak gara, eta gure asmoa ez da Udalean sartzea bai edo bai. Gure helburua da herria bateratzea, eta horretarako lan handia dugu; ez diogu inori hutsik egin nahi", dio zirkuluko kide Igor Urizarrek.

## Zirkulua, zabalik

Arrasatek "erreminta edo bide berri" baten beharra duela uste dute: "Herritarren ahotsa erakundeetara modu sendo baten ailegatzeko beharra dago; hor egin behar dugu lan, ahalik eta batasun handienaz". Programarik ez dute eratu: "Proposamenak baditugu baina ez dugu ezer finkorik. Hemendik aurrera hasiko gara programa lantzen, denon artean", dio Urizarrek. Zirkulua zabalik dago; bat egiteko *ahal-duguarrasate@gmail.com* helbide elektronikoa eman dute.



Hilaren 14an egindako batzar eratzailaren osteko talde argazkia. | J. BEREZIARTUA

## Korrika Txikiak ere hartuko ditu kaleak hilaren 23an, 15:00etan

Ikastetxe guztietako umeak daude deituta Korrika Txikian parte hartzera; San Isidro elizatik abiatuko da, 15:00etan, eta, herrian barrena ibilbide luzea egin ondoren, Herriko Plazan amaituko da. SUDC elkartearen eskutik txokolate-jana egongo da eta Txatxilipurdik jolas batzuk prestatuko ditu.

## Kurtzetxikira igotzeko bide berria aurkeztuko dute martxoaren 25ean

Udalak eta Besaide Mendizale Elkarteak Kurtzetxikira igotzeko ibilbide berria aurkeztuko dute hilaren 25ean Kulturateko areto nagusian (18:00). Aurkezpenean, besteak beste, ibilbide berriaren argazkiak eta mapak erakutsiko dituzte eta Kurtzetxikira egingo den herri martxaren berri ere emango dute.



# BIZITZA KALEAN GERTATZEN DELAKO



**WIFI**  
*is in the*  
**AIR**

Euskaltelek **1.400 WiFi puntu** piztu ditu Arrasateko kaleetan, Euskalteleko mugikorrarekin Internetera DOAN konekta zaitezten.

Euskaltelen bezeroentzat bakarrik.

Deskargatu "Euskaltel WiFi" aplikazioa hemen:



edo hemen: [euskaltelwifi.com](http://euskaltelwifi.com)

Eskatu informazioa Euskaltelek Arrasaten Biteri plazako 4. zenbakian duen dendan, eta hasi Euskaltel WiFi erabiltzen.

euskaltel 



# Ehunetik gora kexa, osasun arreta euskaratzeko eske

Ospitalean diote gaur egun lehentasunezko hizkuntza aukera daitekeela

J.B. / J.D. | ARRASATE

Herritar askok egin zuten bat joan den egubakoitzean osasungintza euskalduntzeko Jai Zale tabernan egindako ekimenarekin.

Aitor Montes medikuak eta Garazi Sagasta erizainak herritarren kexak eta iradokizunak jaso zituzten. Eta, Montesen arabera, "gaindituta" ibili ziren arratsalde batean gerturatu zen jende kopuruarekin, eta, hain zuzen ere, bi ordenagailuekin iradokizun guztiak hartu ezinean ibili ziren. Hori dela eta, hurrengo egunetan ere segitu zuten kexak eta iradokizunak tramitatzen, eta dagoeneko 126 bidali dituzte Elebidera, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza eskubideak babesteko zerbitzura.

## 76 kexa arratsalde batean

Herritarren erantzunarekin "oso pozik" azaldu zen medikua; izan ere, Jai Zale tabernan arratsalde bakarrean 76 kexa jaso zituzten. Montesen poza ulergarria zen: "Datu bat emateko, 2013an Elebiden osasun arloan urraketenatik hogeitasei kexa jaso ziren urte osoan. Asteburuan, ostera, 126 kexa eta iradokizun batu ditugu".

Behin kexak Elebidera biderratu, Montesek esan du aholkularitza zerbitzu bat martxan jartzeko asmoa dutela; izan ere, Elebidek erantzuten dituen mezuak zehaztasun bakoak izaten direla salatu du Montesek.

Asteburuko erantzuna ikusita, aurrerantzean ere ekimenarekin jarraitzeko asmoa dute, eta, oraingoz, Oñatin, Eibarren eta Gernikan egiteko interesa erakutsi dute hainbatekin.

## Leku aproposagoa

Hurrengorako, baina, leku aproposagoa beharko dutela aurreratu du Montesek. Jai Zalen bi ordenagailuekin egin zuten lan eta "gainezka" egin zuten lanak. Aurrera begira bost bat pertsona beharko dituztelakoan dago, eta osasungintza euskalduntzeko lanean jarraituko dute.

## Urologia euskaraz: lehenak

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, berriz, zilegi ikusten dute herritarrek kexuak aurkeztea, baina ez datoz bat kexuetan jasotako hainbat salaketarekin. Juan Manuel Sanzo zuzendari medikuak eta Ander Manterola euskara teknikariak azpimarratu dute, batek, Debagoienekoa dela Euskal Autonomia Erkidegoan euskarak presentzia handienetako duen osasun zerbitzua. Adibide moduan jarri dute lehenak eta, oraingoz, bakarrak direla urologia zerbitzua oso-osorik euskaraz eskaintzen, "hasieratik amaierara arte. Arlo apala da, urologia, baina urrats bat da. Gure asmoa da hori apurka-apurka zabaltzen joatea", azpimarratu du Ander Manterolak.

## Hizkuntza aukera daiteke

Bestetik, jakinarazi dute orain hilabete inguru kanpaina abiarazi zutela, hala nahi zuten pazienteek lehentasunezko hizkuntza aukera dezaten. Eskaera aurkeztu behar da. Eta behin hori egin da, herritar horren historialean agertzen den ikur batek adierazten die osasun profesionalei pertsona horrek euskaraz jaso nahi duela zerbitzua. "Gaitasunaren arabera, eskaini ahal izango dugu. Hasi

gara urologiaz eta urte batzuetara handitu egingo dugu aukera, batez ere profesional gaituak ditugun neurrian", esplikatu du Manterolak. Hori bai, azpimarratu dute zerbitzu hori, oraingoz, ahoz eman dezaketela bakarrik. Eta kasu horretan gako delako urte luzez medikuntzari dagokion hezkuntza gaztelaniaz egon izana. Aldiz, gaur egun errealitatea aldatzen doa profesional berri askok hezkuntza euskaraz jasotzen dutelako.

## Etorkizunean, ele bitan

Gauzak horrela, bai idatzizko arretari dagokionez eta baita ere pazienteen historial klinikoari dagokionez –hori izan da eta egubakoitzean jasotako kexu askoren arrazoiak: norberaren historial kliniko euskaraz nahi izatea–, Sanzok eta Manterolak diote urte batzuk barru nabarmen igarriko dela euskararen erabilerean handitzea. "Lehen mailako asistentziaren historia kliniko erdaraz bakarrik dago, baina hilabeteotan desagertzeraz doaz. Laborategiko txostenen kasuan ere programa zaharrak erabiltzen dira; horiek ere erdaraz daude eta desagertzeraz doaz. Eta ospitaleko historial kliniko, berriz, berriena da, eta euskaraz dago. Beraz, etorkizunean izango dugu historia kliniko bakarra eta ele bitan izango da", dio Sanzok. Eta Manterolak zera gehitu du: "Aurrerapausorik handiena heltzeaz dago. Gabezia dugu gaitasun aldetik, baina, aurreikuspenen arabera, hurrengo urteetan asko euskaldunduko da erakundea eta Debagoieneko ESI. Oso egoera onean gaude etorkizunari begira.

## Herri olinpiadak eta bertsoak Korrika heldu aurreko asteburuan

J.B. / J.D. | ARRASATE

Asteburuko eguraldiak ez lagun du arren, herritar talde polita elkartu zen zapatuan Arrasateko Biteri plazan. Korrika Kulturalaren aterpean, herri olinpiadak egin zituzten, giro ederrean, martxoaren 23ko egun handiaren aurretik.

Korrika girotzeko ekitaldian azkena. Antolatzaileak pozik zeuden ekintzek orokorrean izan duten harrerarekin. Egubakoitzean, Jai Zale taberna lepo bete zen Xabi Igoak, Ane Zuazubizkarrek, Maddi Sarasuak eta Martin Berrizbeitiak eskainitako bertso saioan.

## Korrika eta Korrika Txikia

Datorren 23an, astelehenean, helduko da Korrika Arrasatera, 08:00etan. Etxeko txikiak, ordea, arratsaldean ospatuko dute Korrika Txikia.

Musakolako San Isidro elizatik abiatuko da Korrika Txikia, 15:00etan, eta Herriko Plazan amaituko dute korrikaldia neska-mutikoen. Gipuzkoa etorbideetik pasatu ostean, San Andres auzotik Bedoñabera joango dira, handik Arrasate pasealekura, eta alde zaharrean amaituko dute. Herriko Plazan txokolatea banatuko diete SUDC-koek, eta jokoak egingo dituzte.



Herri olinpiadak egin zituzten zapatuan. | IMANOL SORIANO

## 'Body pump'-a ezagutzeko azken aukera datorren egunean

J.D. | ARRASATE

Martxoan zehar, Arrasateko Kirol Zerbitzuak *body pump* jarduera ezagutzera emateko ate irekiak antolatu ditu Musakolako kiroldegian, eta datorren eguneko, martxoaren 26koa, izango da azken aukera askorentzako kirol mota ezezaguna dena ezagutzeko. Ate irekien azkeneko saioa izango da, 10:15ean hasiko da eta ordubete iraungo du.

*Body pump* saioan parte hartzeko izena ematea beharrezkoa izango da, kiroldegian bertan edo 943 77 16 77 telefono zenbakira deituta.

## Bizitasuna eta Indarra

Ordubeteko saioak dira ate irekietan eskaintzen direnak eta monitore batek ikuskatzen ditu. Pisuarekin landutako indar eta

erresistentzia entrenamendua da *body pump*-a, eta, entrenamendurako, barrak, diskoak eta *step*-ak erabiltzen dira.

Adituen arabera, abantaila eta onura handiak eskaintzen ditu kirol jarduera horrek; denbora laburrean indarra areagotzen du eta giharrak modelatzeko kirol jarduera proposa da.



Body pump saioa. | GOIENA

## Santa Teresa, Doneztebe Portuko eta Agerre kaleak argi barik egongo dira gauerdetik aurrera

Argi mozketak egingo ditu Iberdrola enpresak gaur, martxoaren 18a, gauerdetik biharko 06:00ak arte. Hain zuzen ere, Santa Teresa, Doneztebe Portuko eta Agerre kaleetan izango dituzte argi mozketak. Edozelan ere, lanak egin bitartean argi barik egongo diren atarteetan, Iberdrola enpresak berak oharrik jarriko ditu.



JULEN SANZ

**1990ekoek  
Kintadaz  
gozatu zuten**

Egun ederraz gozatu zuten 1990ean jaiotako arrasatearrek zapatuan. 50 bat lagun elkartu ziren kintadan eta eguraldi kaxkarrari umorez eta musikaz egin zioten aurre. Goizean triki-poteoarekin hasi ziren; horren ostean, Aldape tabernan, batzokian, bazkaldu zuten eta arratsaldean, Zaldibarko finalean, Sonografos taldearekin bat egin zuten batek baino gehiagok.



# Bastards On Parade eta The Potes taldeen punk-rocka eta folka izango da gaztetxean

Galziarrak sasoi betean etorriko dira Arrasatera datorren zapatuan, sei eguneko biran murgilduta

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Punk-rock melodikoa eta gara-gardoa izango dira protagonista Arrasateko gaztetxean zapatuan, 22:30ean. The Potes eta Bastards On Parade taldeek gogotsu hartuko dute gaztetxeko agertokia, eta, seguruenek, ikusleek ikusizun paregabeaz gozatuko dute. Galziarrak hainbatetan etorri dira hona, eta, guztietan ere, goian jarri dute muga.

Jul Bolinaga taldekidea hil osteko lehenengo kontzertua emango du The Potesek, eta bai musikariek eta baita zaleek ere gogotik disfrutatuko dute folk irlandarrekin hasteko eta gaita protagonista duen punk-rock melodikoarekin ostean.

## Gaita eta gitarrak

Bastards On Parade seikotea Europan ezaguna da eta dagoneko hainbat bira egin dituzte kontinente zaharrean barrena. *Empty bottles and broken things* da taldearen estudioko azken lana, Alemaniako Wolverine diskoetxearekin kaleratu zuten, eta orain, disko berriari lanean dabilza. Sasoi betean etorriko dira



Bastards On Parade galziarrak. | B.O.P.

galziarrak Arrasatera; izan ere, 17an, martitzenean, hasi eta domekara arte sei kontzertu jarraian egingo dituzte San Patrizioren omenez. Gaiten, akordeoien eta gitarren indarrarekin gaztetxea dantzan eta kantuan jartzera etorriko dira.

## Zuzenera bueltan

The Pogues irlandarren itzalari jarraika hasi zen taldea; eta lagun arteko denbora-pasa zena proiektu serio bilakatzen joan zen. Dagoneko hainbat kontzertu eskaini dituzte ikusle askoren aurrean, eta, Jul Bolinagaren heriotza kol-

pe latza izan zen arren, taldekideek aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Zapatukoa izango da banjo-jole barik agertokira igoko diren lehen aldia, eta, gogorra egingo bazaie ere, ziur asko lagunak publikoan izango dituzte boskoteari indarrak ematen; gainera, etxean joko dute.

## Haurrak operan murgiltzeko obra zapatuan

J.D. | ARRASATE

Deabru Beltzak antzerki taldeak *Opera abeslaria* obra ekarriko du Amaia antzokira zapatuan, 17:00etan, haurrak operara eta antzerkira gerturatzeko asmoz.

*Opera abeslaria* haurrentzako antzerkia August Strindberg idazlearen *Tabako lehortegiko sekretuak* ipuinean oinarritzen da. Opera abeslari baten arrakasta eta hondamendia kontatuko dute era ludiko eta entretenigarrian. Gainera, obrak harrokeriaren inguruko hausnarketa proposatzen die ikus-entzule gaztetxoei.

Idoia Somoza Vegas sopranoak, Katrin Schlegel aktoreak eta Marta Galleguillos piano-jotzaileak antzestu eta interpretatuko dituzte *Opera abeslaria* obrako pasarte eta piezak. Kantatu eta kontatu egingo dute; izan ere, antzerkia, ipuina eta, batez ere, musika izango da zapatu arratsaldeko protagonista Amaia antzokian. Etxeko txikiak musika eta arte eszenikoetan murgiltzeko aukera paregabea.



Sonografos taldeko kideak finala irabazi ostean. | MIKEL VIGUERA

## Sonografos nagusi kopa txapelketako finalean

M.B. | ARRASATE

Finalerdia eta finala aise irabazita, Sonografos taldea gailendu zen Zaldibarko kopa txapelketan. Finalerdian Betrayor kanporatu zuen 7-1eko emaitzarekin, eta finalean Lasagabaster menderatu zuen 8-1 irabazita. Kopako talderik indartsuena izan zen.

## Bigarren zatian

Finalean aurrez aurre Sonografos eta Lasagabaster, eta finaletik kanpo hautagai nagusia: Dribling taldea.

Lehen zatia oso parekatua izan zen. Ibaik aurreratu zuen Sonografos, eta Jarak berdindu zuen lehia. Bigarren zatian,

Sonografosk agindu zuen kantuan eta markagailuan. Zazpi gol sartu eta erraz irabazi zuen finala. Kepa, Loiti (hiru gol) eta Jokin (hiru gol) izan ziren bigarren zatiko golegileak.

Zapatu goizean jokaturako beste finalerdian, Lasagabasterrek Dribling menderatu zuen. Liga txapelketan partidu bakarra irabazi eta finalean bitan markagailuan atzetik egon arren, 4-2 irabazi zuen Lasagabasterrek.

Kopa txapelketa jokatu ostean, aste bukaeran, San Joseko zubia denez, ez dute liga txapelketako jardunaldirik jokatuko. Hurrengo partiduak martxoaren 28an izango dira.

## Saskibaloia campusetarako deialdia egin du Ointxek

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Udako saskibaloia campusetarako deialdia egin du Ointxe taldeak. Arrasateko campusa ekainaren 26tik 30era egingo dute, Iturripen, eta Oriokoak uztailean, bi txandatan: 6tik 11ra lehena eta 11tik 19ra bigarrena.

Dagoneko zabalik dute bietarako izena emateko epea. Interesatuak [ointxe@ointxe.com](mailto:ointxe@ointxe.com) helbidean edo 688 63 44 86 telefonoan eman dezakete izena.

## Arrasaten eta Orion

Iturripekkoa EBA taldeko entrenatzaile Josu Larreategik zuzenduko du eta 8 eta 13 urte arteko neska-mutikoendako izango da. Saskibaloia oinarri hartuta, hainbat jardura egingo dituzte; adibidez, ingelesa landuko dute.

Bazkaltzera geratzen direndako matrikula 105 euro da eta besteena, 55 euro. Iturripeko campuseko izen-ematea apirilaren 15ean bukatuko da.

Bestalde, Orioko campusa 13 eta 16 urte arteko gaztetxoendako izango da. Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, Zarauzko hiruko txapelketan parte hartu eta hondartzan joko eta jolasak egiteko aukera izango dute. Uztaileko campusean 40na gazte onartuko dituzte txanda bakoitzeko, eta prezioa 240 euro da. Orioko campusean izena emateko epea martxoaren 27an bukatuko da.



## Larrea (Araba) aldeko bost tontor elurretan

Arabako lautada alderik alde zeharkatzen dihardute Besaidekoek, eta asteburuan 7. etapa osatu dute: Narbaxa-Larrea artekoa, hain zuzen, hamasei kilometrokoa. Bost tontor igo zituzten, guztiak eluraren konpainian: Larrangoiti, Meixtu Gaba, Ganoño, Sekilaga eta Burgamendi. Hurrengo irteera apirilaren 9an egingo dute.



# Nagusien osasuna hobetzen lagunduko duten hiru tailer antolatu ditu Udalak

Izena San Joxepen edo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman behar da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko nagusiendako osasun tailerrak antolatu ditu Bergarako Udalak, La Caixa fundazioarekin elkarlanean. Hiru tailer dira, eta doan eskainiko dituzte: lo ondo nola egin azalduko duen tailerra, gaitasun fisiko eta mentalak indartzekoa eta autonomia mailari eusten lagunduko duena, hain zuzen ere.

## Apiriletik ekainera

Hiru tailerrak San Joxepeko erai-kinean eskainiko dituzte, apirilaren 28tik ekainaren 3ra bitartean, baina bakoitzak bere iraupen eta

egutegi propioak ditu. Adineko pertsonen lo ohiturak aztertze eta hobetzeko tailerlean ondo lo egiteko ohiturarik egokienak zeintzuk diren ezagutuko dituzte eta irribarre batekin esnatzeko bereziki pentsatutako zenbati material emango dituzte. Sei orduko iraupena izango du eta bi orduko hiru saiotan, 16:30etik 18:30era, eskainiko dute apirilaren 28an, 30ean eta maiatzaren 5ean.

Bizi kalitatea hobetu eta gaitasun fisiko zein mentalak aktibatze tailerra izango da hurrengo. Maiatzaren 6tik 18ra bitartean izango da, martitzen eta

eguenetan, 16:30etik 18:30era. Azkena, 60 urte beteta eta distantzia luzeak oinez egin, botilak zabaldu eta itxi edo hartu beharreko botika guztiak gogoratzeko zailtasunak dituzten edo edukitzen hasten diren pertsonen zuzendua dago. Zahartzaro osasuntsua lortzeko prebentzio programa bat da, autonomia mailari eusten laguntzeko.

Izen-ematea tailer bakoitza hasi baino astebebe lehenago itxi da. San Joxepen (943 76 21 40) edo udaletxean eman behar da, Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan (943 77 91 65).

## Astelehenean goizeko hamaiketan iritsiko da Korrika

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Korrika hilaren 23an, astelehena, ailegatuko da herrira. Erorregitik sartuko da 11:00 inguruan eta erdigunean, San Martin plazan, 11:40an izatea espero da. Honako ibilbide hau egingo du: Elorregi, Labegaraia, Zubiaurre, San Antonio, Mintegi, Espaloia, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Masterra, Zubieta, San Lorentzo, San Juan eta Ubera.

## Korrika Txikia

Aurretik, Korrika Txikia ibiliko da herrian zehar. 10:15ean hasiko da. Honako ibilbide

hau egingo dute ume eta gaztetxoek: San Martin ikastetxea, Boni Laskurain, Matxiategi (azoka paretik), Migel Altuna parean sartuko da Ibargaraira, Ertzaintzaren paretik Espaloiko aldapa igoko da, Espaloia, Bidekurutzeta, San Pedro kalea, Artekaia, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plazan amaiera.

## Bilbora

Hilaren 29an, domeka, bukatuko da Korrika, Bilbon, eta ospakizunarekin bat egin nahi duten bergararrek autobusez joateko aukera izango dute.

## Martokoa ere badute topalekua erretiratuek

Auzoko erretiratuekin batera inauguratu zuen Udalak herriko erretiratuendako Martoko auzoko eskola zaharrean egokitu den egoitza. Egoitza egunero egongo da zabalik, 16:30etik 20:00etara. Hala, Aitonetako gain, topagune berri hori ere izango dute herriko erretiratuek aisialdirako aurrerantzean.



GOIENA

## Erramu Zapatu bezperako bertso saiorako sarrerak salgai

Erramu zapatu bezperako bertso saioa izango da udal pilotalekuan, 22:30ean. Honako bertsolariok hartuko dute parte: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Oihana Bartra. Gai jartzailea Iker Iriarte da. Sarrera 8 eurotan dago salgai ([www.bergara.net](http://www.bergara.net) eta kultur etxean).

## Ohiko batzar orokorra egingo dute San Josepeko bazkideek

San Josepe erretiratuen elkar-teak batzar orokorra egingo du hilaren 25ean, eguaztana, 16:00etan lehenengo deialdian eta 17:00etan, bigarrenetan. Urteko batzar orokorreko ohiko gaiak landuko dituzte. Zuzendaritzak dei egiten die bazkideei bertara joan daitezzen.

## Zabalik dago txalaparta ikastaroan izena emateko epea

Apiril eta maiatzerako txalaparta ikastaroa antolatu du Musika Eskolak. Zazpi saio izango dira, apirilaren 16tik maiatzaren 23ra, eguenetan, 19:00etatik 20:00etara. Informazioa: musika eskolan bertan, 943 76 57 80 telefonora deituz edo [www.bergarako-musikaeskola.com](http://www.bergarako-musikaeskola.com) webgunean.

## Marseillako Ballet Nazionala ikusteko autobusa, doan

Marseillako Ballet Nazionala ikustera joateko autobusa antolatu du Bergarako Udalak, Donostiako Kurasaalean izango den ikuskizunerako. Apirilaren 20an da ikuskizuna eta izena apirilaren 15a aurretik eman behar da: Bergarako Kultura Zerbitzuan (943 77 91 59) edo [kultura@bergara.net](mailto:kultura@bergara.net).

## Musika eskolak batzar orokorra egingo du martxoaren 24an


Bergarako musika eskolak urteko batzar orokorra egingo du martxoaren 24an, 19:30ean, musikan eskolan. Besteak beste, ikasturte honetako kuotek izandako igoeraren onarpena izango dute hizpide, eta baita zuzendaritza batzordeko kide berrien aukeraketa ere.

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraia)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



# Jardunek lehendakari berria du: Pello Andrinua

- ▶ Zuzendaritza eta irudia aurkeztu dituzte urteko batzar orokorrean
- ▶ Elkartearen 25. urteurreneko ekintzak zehazten ere badihardute

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Jardun elkarteak kideek joan den zapatuan egin zuten urteko batzarra, eta, aurreko urteko ekintzen erreposoa egiteaz eta balantze ekonomikoaren kontu emateaz gain, presidente berria izendatu zuten. Pozik eta lanerako gogoz hartu du Pello Andrinua Aitor Arantzabalek lagatako lekua. Zuzendaritzari dagokionez, Miren Etxeberriak eta Ibon Leibarrek ordezkaturiko dituzte Aitor Arantzabal eta Mikel Azkarate-Askasua.



Jardun elkarteak kideak, zapatuan, urteko batzarra egiten. | IMANOL SORIANO

## 25. urteurrena

2015erako aurreikuspeni dagokionez, berriz, maiatzean beteko dira 25 urte Bergarako euskara elkarteak sortu zutela, eta buru-belarri dihardute ospakizun ekitaldiak antolatzen. Urtemugaren aitzakian, iaz, urte bukaeran, Jardunen zereginaz eta etorkizunaz hausnartzeko egindako gogoeta prozesuan lau lantalde sortu ziren –sentsibilizazio, komunikazio, aisialdi eta diskurtso

taldeak– eta orain arte egindako lanaren zein urtemugaren bueltan dituzten proposamenen berri eman zuten batzarrean. Pello Andrinua gehitu du urtean barrena zenbait ekintza egitea erabaki dutela, eta Jardun eguna ere egongo dela. Ekintza guztien berri ematen du Jardun elkarteak [www.jardun.eus](http://www.jardun.eus) helbide elektronikoan.

## Begiraleak behar dira

Jardunek, bestetik, ludotekako begiraleen artean genero berdintasuna bermatzeko mutilen lan-poltsa zabaldu du. Ezinbestekoa da begirale titulua aurkeztea. Izen-emate epea astelehenean, hilaren 23an, amaitzen da. Argibide gehiagorako jo Jardun elkartera: 943 - 76 36 61.

Logo berria:  
3, 2, 1 Jardun

KOMUNITATEA GOIENA  
JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Jardun euskara elkarteak 2015ean beteko duen 25. urteurrena ospatzeko logo berria izango du. Amaia Zaitegi diseinatzailearena da logoa eta berak proposaturako eredu desberdinen artean egindako bozketaren ondorioz izan da aukeratua. Logoaren eta lema bidez ideia bat baino gehiago adierazi nahi izan dira zinemari keinu eginez eta klaketaren irudiarekin. Batetik, Jardunen garai berri bat hasten dela eta beste 25 urteko ibilbideari hasiera eman nahi zaiola, eraberrituta eta indartuta. Bestetik, erabileraren garaia heldu dela eta horretan ekin eta Jardun behar dugula. Logoarekin eta lemarekin bat egin eta herritarrek bidelagun izatea da Jardunen asmoa eta nahia.



Logo berria. | JARDUN

## Etxe hutsak alokatzeko programan bost etxebizitza

L.Z. | BERGARA

Bergarako Udalak martxan du etxebizitza hutsak alokatzeko laguntza programa. Alokairu soziala sustatzeko Udalak duen modalitate propioa da, eta, aditzera eman dutenez, bost etxebizitza daude alokagai, oraingo, guztiak Ernai klean. Interesatuek [www.bergara.net/etxebizitza](http://www.bergara.net/etxebizitza) helbidean dute informazio zabalagoa. Dena den, alokatzeko interesa dutenek etxeen jabeekin jarri behar dute harremanetan hitzarmena sinatzeko.

## Alokabide

Alokairu soziala bultzatzeko helburuarekin, Bergarako Udalak lankidetzat hitzarmena sinatu berri du Eusko Jaurlaritzako Alokabiderekin. Bi programa ditu martxan Alokabidek: Bizigune eta ASAP. Horien gaineko informazioa [Alokabide.euskadi.net](http://Alokabide.euskadi.net) atarian dago, edo 900 25 12 51 telefono zenbakira deituta. Bergarako Udalak osatu egiten ditu bi programa horiek etxejabeek laguntzak emanda.

**æek**  
**19. korrika**  
**BADATOR!**  
**EUSKAHALDUN!**  
Urepeletik Bilbora

06:00 UDANA	08:26 ESKORIATZA
07:00 OÑATI	09:36 ARAMAIO
07:39 ELORREGI AUZOA	10:57 ARRASATE
08:08 ARRASATE	11:24 BERGARA
08:15 ARETXABALETA	12:30 ELGETA

[www.korrika.eus](http://www.korrika.eus)



# Hilabete barru zabalduko dute Zubikoako tenis pista estalia

Mikel Biain alkatea elkarrizketatu dute aste honetan Goiena telebistako 'Harira' saioan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Goiena telebistako *Harira* saioan elkarrizketatu du Eneko Azkarate kazetariak Mikel Biain, Oñatiko alkatea. Agintaldia bukatzeaz, azken lau urteetako balantzea egin zuen, egindakoak eta jarraipena izango duten proiektuak aipatuta. Hantxe esan zuen, adibidez, Zubikoako estalitako pista apirillean zabalduko dutela. "Egia da tenisa ez dela herrian gehien praktikatzen den kirola, baina udako eskaintzan eta eskolarteko kanpainen arrakasta izaten du. Hala, estaldura jartzea pentsatu genuen, gura den guztietan erabiltzeko. Lurzorua joan den astean margotu zuten eta apirilaren erdi inguruan estreinatuko da", esan zuen Biainek *Harira* saioan.

Kirolari lotuta, igerilekua berritzeko eskaera jaso dutela aipatu zuen Biainek: "Txiki gelditu da igerilekua. Bi kale gehiago egiteko aurrekontuak eskatu ditugu, baina oso garestia da; diru milioi euroko kostua izan dezake obra horrek. Zubikoak 35 urte inguru ditu eta kiroldegia berritzeko epe luzeko plangintza



Eneko Azkarate eta Mikel Biain, Olabarrietan, saioa grabatzen. | GOIENA

integrala egitea da asmoa. Epeka egitea da asmoa, eta igerilekuari erantzunez hasiko ginateke. Kanpoko igerilekurik, baina, ez da aurreikusten, hasiera baten".

## Proba pilotua

Tenis pistaren azpian ez ezik, Ugarkalden, Berezaon eta Ola-

barrietan ere izan ziren Azkarate eta Biain telebistako saioa grabatzen. Olabarrietan, esaterako, maisuen etxea zen erakinean bi etxebizitza sozial prestatu dituztela aipatu zuen alkateak: "138.000 euroko inbertsioa egin dugu 65 metro karratuko bi etxebizitzak barrutik erabe-

rritzeko. Horiek eta Zubillagakoak udal jabetzakoak dira eta Udalaren eskumena da zeinendako diren erabakitzea. Oraintxe jarriko dira baldintzak, baina erabilera soziala izango dute".

Hondakinei buruz ere jardun zuten: "Agintaldi honetan pisu handien hartu duen gaitetako bat, denbora aldetik eta esfortzu aldetik", Biainen esanetan. Bilketa selektiboaren azken datua %81 dela aipatu zuen alkateak, eta lan zailena eginda dagoela: "Herriarrek esfortzu hori barneratu dute. Udaletik lan handia egin zen pedagogia aldetik ere; bilerak eginda, adibidez. Orain, sistema hobetzea gelditzen da. Adibidez, intzidentziak irakurgailuen bidez jasotzea. Hurrengo pausoa, baina, sortzeagatik tasa batera heltzea da. Proba pilotu bat jarri gura dugu martxan, gutxi sortzen duenak gutxi ordain dezan".

Langabezia, autokarabanen gunea, Eltzia proiektua eta txantxiak ere izan zituzten hizpide, besteak beste. *Goiena.eus* atarian dago saio osoa entzungai.

## Hamalau kilometrotan 21 lekuko aldaketa Korrikak Oñatin

O.E. | OÑATI

Astlehenean, martxoak 23, helduko da Korrika Oñatira, eta bailarako beste herri batzuk zeharkatuko ditu gero. Guztira, hamalau kilometro egingo ditu Korrikak Oñatin, eta 23 eragilek 21 lekuko aldaketa egingo dituzte. Herriko gazteek hartuko dute Oñatiko lehen lekukoa, Udanan, 06:00 inguruan, eta Ulma taldeak azkena; Arrasateko Udalarari pasako dio.

Korrika Txikia, berriz, arratsaldean egingo dute, 14:30ean, Txantxiku ikastolako, Elkar Hezi eta Urgain-Errekalde eskolako ikasleen parte-hartzearekin. Ibil-

bidea hauxe izango da: Foruen plaza, Kale Barria, Etxaluze, Santa Marina plaza, Bakardadeko Ama kalea, Maiatzaren Bata plaza eta Foruen plaza. Ondoren, 17:00 inguruan, txokolate-jana eta txorimaloak egongo dira erdudunean, trikitilariz lagunduta.

## Txartelak salgai

Bestalde, zapatuan Korrikaren aldeko bazkaria egingo dute Antixena gaztetxean. Ehun lagunendako prestatuko dute, eta txartelak salgai daude Ona eta Arrano tabernetan eta gaztetxean. Prezioa: zortzi euro ikasle eta langabeendako; 10, gainerakoendako.

## Irunberriko gertaera argitzea eta memoria egitea beharrezkoa da

KOMUNITATEA GOIENA | EUSKAL MEMORIA TALDEA | OÑATI

Ekainean beteko dira 25 urte Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarra hilda agertu zirela Irunberrin, Guardia Zibilaren ordu askotako setioaren ondoren.

Egun eta leku hartan pasatutakoaren xehetasunak Guardia Zibilak bakarrik dakizki. Oraindik ez da argitu han jazotakoa eta asko dira argi-ilunak. Guk uste dugu ezinbestekoa dela zalantza guztiak uxatzea. Gertaera hura gure herriko historia hurbilaren parte da eta ezin dugu ahaztu. Hala,

beharrezkoa iruditzen zaigu memoria egin eta gure ondorengoei han gertatutakoa jakinaraztea.

Martxoaren 24an Egia Jakiteko Eskubidearen Nazioarteko Eguna da. Horren harira, mozioa aurkeztuko dugu hil honetako osoko bilkuran (martxoak 26). Udaltzari honako hau eskatuko diogu: gertatutakoa argitzeko informazioa eska diezaitela Guardia Zibilari nahiz Espainiako Gobernuaren ordezkariari. Ekainean, hitzaldiak eta erakusketa egingo ditugu, esaterako. Helburua da Irunberrin gertatutakoa ez ahaztea.



Nagoretxo. | MIREN ARREGI

## Nagore Lazkano

| Tabernaria

## "Sorpresa izanda, antzerako kasuak atzera bota ditu-eta Gorenak"

TXOMIN MADINA | OÑATI

Gaur, eguaztana, epaituko dute Nagore Lazkano *Nagoretxo* oñatiarra Auzitegi Nazionalan, Madrilen, terrorismoa goraiatzea egotzita. Oñatitik autobusa antolatu dute, elkartasuna adierazteko.

## Zergatik leporatzen dizute hori?

Joan den urteko martxoaren 27an ikasle greba izan zen Euskal Herrian. Gasteizen mobilizazioak egon ziren, eta ertzainak nire ardurapekoa den tabernara sartu ziren, gazte bat identifikatzera. Presoen argazkiak zeuden taberna barruan. Tabernariari identifikatzeko eskatu zioten, eta arduradunagatik galdetu zuten. Hala, argazki horiek izatea delitua dela esan zidaten. Argazkien ondoan dispersioaren mapa ere bazezgoen, presoen egoera salatzen, baina hori ez zidaten hartu. Hori delitua dela esan zidaten.

## Zein da zure kontrako eskaera?

Bi urteko kartzela zigorra eta hamar urteko inhabilitazioa funtzio publikoan.

## Nola bizi duzu egoera?

Sorpresa handia izan da, egia esan, antzerako kasu bat baino gehiago atzera bota dituta Auzitegi Gorenak. Ez dut ondo ulertzen Ertzaintzaren jarrera hau, baina tabernariok ez digu uzten lasai lan egiten.

## Ze espero duzu epaiketari begira? Itxaropentsu zaude?

Lasai nago, baina horrelako kasuetan ez da jakiten zer pasatuko den; beraz, ez nago ez baikor, ezta ezkor ere. Egia esan, ez dakit zer irakurketa egin gertatzen ari denari, baina aurrera egiteko gogoz nago. Gure tabernetako paretan elkartasuna adierazteko daude beti.

## Elkartasun ekintzak eta mezuak izan dira Gasteizen eta Oñatin. Nola hartu dituzu?

Oso eskertuta nago. Niri tokatu zait, baina Euskal Herrian badira taberna gehiago presoen egoera salatzen dutenak eta edozeini tokatu ahal zitzaion. Gasteizen tabernarion plataforma bat sortu dugu.

## Argia kenduko dute Olakua auzoan, sei orduz, martxoaren 27an

Olakua auzoko bi transformazio-zentroak berriro egin behar dituzte, eta horretarako argia kendu egin behar dutela jakinarazi du Oñargik. Martxoaren 27an kenduko dute, 00:00etatik 06:00etara. Hau da, martxoaren 26tik 27ra bitarteko gauean, Olakua auzoko etxebizitzek eta lokalek ez dute argirik izango.

## RNEko Wonderland saria irabazi du Iñaki Goitia oñatiarrak

Radio Nacional de Españako Wonderland saria irabazi zuen joan den astean Iñaki Goitia oñatiarrak. *Los extraños* izeneko ipuinarekin irabazi du saria. Asteartero egiten dute ipuin txikien lehiaketa Radio4-ko *Wonderland* programan, eta martxoko lehen asteko lehiaketa irabazi du Goitiak.

## Gipuzkoako hamabi zuhaitz bereziren erakusketa Arantzazun

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak sustatu du zuhaitz bereziren erakusketa. Ibiltaria da, eta Arantzazun dago ikusgai martxoaren 29ra arte. Bisita astegunetan egiteko, parketxeko telefonora deituz hartu behar da txanda: 943 78 28 94. Asteburuetan, ohiko ordutegian egongo da zabalik.

## Beneditarren elizak 25 urte beteko ditu zapatuan, martxoak 21

Datorren zapatuan, martxoak 21, 25 urte beteko dira Oñatiko beneditarren monasterioko eliza Jainkoari kultura egiteko toki prestatu zutela. Urteurren hori ospatzeko eukaristia berezia egingo dute zapatuan, 18:00etan. Donostiako Easo abesbatza gregorianoak parte hartuko du.





Txantxiku Txuriurdinak taldeko kideak Iñigo Martinezekin batera egindako bazkarian. | TXURIURDINAK

## Martitzenean aurkeztuko dute Txantxiku Txuriurdinak taldea

Gaztelekuan egingo duten ekitaldian Iñigo Martinez jokalaria egongo da

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñatiko Realzaleak pozik daude. Denbora luzez itxaroten egon ondoren, martxoaren 24an, martitzena, ofizialki aurkeztuko dute

Txantxiku Txuriurdinak taldea. Realzaleak batzen dituen taldea da, eta baita Iñigo Martinezen lagunartea ere; hala, Martinez aurkezpenean egongo da.

Ondarrutarrak gain, martitzenean aurkezpenean Realeko beste jokalaria batzuk ere izango direla aurreratu du taldeak. Aurkezpena 18:30ean izango da, gaz-

telekuan -frontoi aldeko atletik izango da sarrera-. Gaztelekuko aforoa kontuan hartuta, aurkezpen ekitaldira sartzeko lehentasuna Txantxiku Txuriurdin taldeko bazkideek izango dute; hori dela eta, txartela eramatea gomendatu dute.

### 400 bazkideko lagunartea

Realzaleen taldea orain dela bi urte jarri zuten martxan, eta ordutik hona 400 zalek eman dute izena lagunartean. Bazkideak ez dira Oñatikoak bakarrik: Ondarroakoak, Valentziakoak eta Gasteizkoak ere badaude. "Valentziako hamabost kide ditugu: betidanik Realzaleak izandakoak dira, Arconadaren garaikoak", azaldu du Amaia Lizarralde lagunarteko kideak.

### Opariak banatuko dituzte

Iñigo Martinez eta beste lau jokalariek etorriko dira Oñatira: bi gizonezko eta bi emakumezko; azkeneko egunera arte ez dute jakingo nortzuk. "Umek pasilloa egingo diete eta Realaren ereserkia entzungo da gaztelekuan. Ondoren, aurrekua dantzatzeko diegu txistu doinuek lagunduta", azaldu du Lizarralde. Bi aurkezleek gidatuko dute ekitaldia, eta oholtza gainean hainbat galdera egingo diote Martinezei.

Gainera, bertsolariak egongo dira ekitaldia girotzeko eta futbol jokalariei hainbat opari emango dizkiete.

## Euskal Herriko kultur proiektuak ezagutzeko irteera antolatu dute

Eltziako talde eragileak irteera antolatu du hilaren 28rako. Euskal Herriko kultur, arte eta musika proiektuak ezagutzeko izango da irteera. Interesatuak martxoaren 20a baino lehen eman behar dute izena [ekt.eltzia@gmail.com](mailto:ekt.eltzia@gmail.com) helbidean. 09:30ean irtengo dira Oñatitik eta Bilboko Zwap, Gernikako Astra eta Iparragirre Rock bisitatuko dituzte.

## 'Zumba' eta 'fit bike' maratoniak egingo dituzte hilaren 28an

Egun osoko kirol festa izango da kiroldegian martxoaren 28an. Goizean zumba maratoniak egingo dute; arratsaldean, berriz, areto bizikleta maratoniak: 40 minutuko lau saio. Izena emateko epea martxoaren 25era arte dago zabalik: 943 71 63 75 telefonora deituta edo [zubikoa@oinati.net](mailto:zubikoa@oinati.net) helbidera idatzita. Plazak mugatuak dira.

## Lekunberritik Berriozarrera egingo dute Gazte Martxa

Ernai eta Antzina gazte antolakundeek jakinarazi dute apirilaren 3tik 5era egingo dutela aurtengo Gazte Martxa. Bertan, hausnartzeko, ideiak trukatzeko, elkar ezagutzeko eta parrandarako aukera aparta izango dela azaldu dute. Lekunberritik Berriozarerraino izango da. Izena eman daiteke 25 euroko bonuaren truke Arrano tabernan.

## Sormen tailerra egingo du ludoteka ibiltariak zapatuan

Hilaren 21ean, zapatuan, gaztetxean egingo dute geldiumea ludotekako kideek 11:00etan. Bertan, naturako elementuekin sormen tailerrak egingo dituzte. Hilaren 28an, aldiz, jolas kooperatiboak egingo dituzte Olaiturrin. Bestalde, Txaloka ludotekak logotipoa aldatu gura du; lehiaketan parte hartzeko azken eguna hilaren 20an dute LHko umek.

## Izaskun Muxika ipuin kontalaria izango da hilaren 26an

Ostegun kontalariak ekimenaren baitan, martxoaren 26an Izaskun Muxika ipuin kontalariaren txanda izango da. Interesa dutenek aurrez hartu beharra dute sarrera, plazak mugatuak baitira. 6 eta 10 urteko umeentzako saioa eskainiko du Muxikak, 18:00etan hasita, eta haurren liburutegian izango da ipuin kontaketa saioa.

## 'Medea material' antzerki klasikoa gaur, 19:00etan

KOMUNITATEA GOIENA | ELKAR-HEZI | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, *Medea material* antzezlanak ikusteko aukera egongo da Oñatiko kultura etxean gaur, 19:00etan. Heiner Müller antzerkigile alemaniarraren tragedia garaikidea da antzezlanak, eta Medearen azkeneko orduak era-

kusten ditu. Bea Insa aktore valentziarra da protagonista. Emanaldia gazteleraz da, doan.

### Ikasleek antolatu dute

DBHko 4. mailako Kultura Klasikoko ikasgaiko gaia *Antzerkia antzinako Grezian eta Erroman* izan dugu ebaluazio honetan. Gaira hurbiltzeko modua izan da antzezlanak.



Bea Insa aktore valentziarra. | GUARDETXEABANDABAT.ORG

## 'Verdi que te quiero Verdi' antzezlanak gaur Santa Anan

MAIDER ARREGI | OÑATI

Pake Lekuk udaberriko egitarauari ongiatorria emango dio gaur, eguaztana, *Verdi que te quiero Verdi* antzezlanarekin. Santa Anan izango da, 17:00etan, eta sarrera doakoa da.

Donostiako Oroimen taldeak taularatuko du eta ez da ohiko emanaldia izango; izan ere, aktore gehienek ikusmen mugatua dute: hamahiru aktoretik zortzik, hain justu ere.

### Martxoko egitaraua

Pake Lekuk martxoan egitarau polita aurkeztu du. Hala, mar-

txoaren 24an, martitzena, Isabel Arenatza eta Kiskitza Alustiza erizainek hitzaldia eskainiko dute, 17:00etan. Gaia: *Pertsona nagusien erorketak*.

Hilaren 25ean, eguna, bingo berezia egingo dute Pake Lekuk bertan, 17:00etan hasita.

Martxoaren 27an, egubakoitzaren berriz, Oñatin dagoen Gipuzkoako artxibo historikoa bisitatuko dute. Irteera goizeko hamaitan izango da.

Urteko batzarra martxoaren 31n egingo dute Pake Lekuko kideek Santa Ana aretoan, 17:30ean hasita.

## NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA



## Korritzeaz

Antxintxika doa haurra zeruan barrena bidaia-tzen ari den bere globotxo gorriaren atzetik. Hari bat du zintzilik globoak, baina geroz eta abiadura handiagoan joan doa, hodeien arte-tik, galdu egiten den arte.

Arineketan doa gaztea hasterretu berri den bere lagunaren atzetik. Oihu egiten dio gelditzeko esanez, baina honek ihes egiten du, geroz eta azkarrago,

kale kantoian desagertu egiten den arte; ez du berataz ezer jakin nahi.

Lasterka doa heldua bere iraganaren atzetik, okertutakoa zuzentzeko asmoz. Baina arrapaladan, denbora aurrera doa eta iragana geroz eta urrutiago... eta frustrazio horretan hiltzen da joana bere begien artean.

Baina gaur Korrika doaz guztiak komunean duten ametsaren atzetik. Helmugak bide luze bat dauka atzetik, baina helburua argia da eta globotxoak, laguna eta iragana ez bezala, helmuga ez da lekutik mugituko.

Are gehiago... helmuga euren zain dago.

Gure zain dago. Astelehen... denok Korrikara!



# Korrikaren testigua hogei lagun inguruk eroango dute

08:10 inguruan iritsiko da Arrasatetik eta Untzillatik alde egingo du gero

M.A. | ARETXABALETAKO

19. Korrika hastear da, Urepelen, eta Aretxabaletara astelehenean iritsiko da, 08:10 aldera. Herritarrek zain izango ditu testiguak eta eskuz esku ibiliko da gero hori. Hona hartuko dutenak: Mugarriko biribilgunetik Santutxura: Sortu; Santutxutik unibertsitatera: Huhezi; unibertsitatetik udaletxera: Udala; udaletxetik Pagaldai tabernara: Loramendi elkarte; Pagaldaitik botikara: Ernai eta Gazte Ekimena; botikatik Zairaia tabernara: Pausoka; Zairaia tabernatik autobus geltokira: Aretxabaletako emakumeak; eta geltokitik Ederlan lantegira: Aretxabaletako Lanbide Eskola.

Eskoriatzatik bueltan datorrean, oster, honako hauek hartuko dute: Ederlanetik autobus geltokira: UDA; geltokitik zubi azpira: Belar Meta; zubitik Copreci lantegira: Aretxarte; Coprecitik

Basabeazpira: Copreci; Basabeazpitik Kurtzebarri eskolara: Arizmendi (Basabeazpi); Kurtzebarritik Lausittako biribilgunera: Kurtzebarri eskola; biribilgunetik zaharren egoitzara: egoitzakoak; handik Basterralde baserrira: Murruxio mendizale elkarte; Basterraldetik Gellaoko elizara: Aralar; Gellaotik San Antonio ermitara: Bagara; San Antonio ermitatik gora (500 metro): Arteman; handik Untzillara: Goiena.

## Korrika Txikia 10:30ean

Testiguak alde egindakoan gosaltzera gonbidatuta daude herritarrek; Mitarte plazara hurreratu besterik ez dute izango.

Ondoren, 10:30 aldera, Korrika Txikiak girotuko ditu herriko kaleak, 2 eta 12 urte arteko gaztetxoek lasterketek, hain zuzen. Pausoka haur eskolan hasiko dute ibilbidea, eta plazan bukatu.

## Gazte Ekimenekoak Vianara

Bestalde, Gazte Ekimeneko kideek erabaki dute Vianara (Nafarroa) joatea martxoaren 25ean, eguaztena, Korrikarekin bat egitera. Izena emateko Urbaltz edo Gurea tabernara jo daiteke, baita Whatsapp bidez mezua bidalita zenbaki honetara: 637 85 88 27.

## Laburbira martitzenean

Korrika Kulturalaren barruan, Laburbira iritsiko da martitzenean, hilak 24, Arkupera, 19:00etan. Euskarazko ikus-entzunezkoen erakusgarri da Laburbira eta Debagoieneko hiru eragileren filmak daude: Kepa Errasti aretxabaletarraren *Aitona Mantangorria*; Asier Altuna bergararraren *Zela Trovke*; eta Aitor Arregi onatiarraren *Zarautzen erosi zuen*. Hain zuzen, Arregi Arkupen izango da martitzenean, ikusleekin kontu-kontari jarduteko.

## Ipuinak kontatzen ikasteko saioak gazteendako

M.A. | ARETXABALETAKO

Ipuinak kontatzen ikasteko aukera eman gura die Udalak gazteei, eta ekainera bitartean bi orduko zortzi saio egingo dituzte Arkupen, 17:00etatik 19:00etara. Hona egunak: apirilak 14, 21 eta 28; maiatzak 5, 12, 19 eta 26; eta ekainak 2. Maite Franko ipuin kontalaria gidatuko ditu saioak.

Izena emateko udaletxera deitu behar da (943-71 18 62, Mainer), edo honako helbide honetara idatzi: [gazteria@aretxabaleta.eus](mailto:gazteria@aretxabaleta.eus). Azken eguna apirilaren 10a da. Taldea osatzeko gutxienez zortzi lagun behar dira eta gehienez, 25. Ikastaroa debalde da, baina ordainetan parte-hartzaile bakoitzak ipuin kontaketa bat egin beharko du udazkenean.

## 'Ontziratu zaitez' ekimena tuperra erabiltzen hasteko

Hondakinak murriztea du helburu kanpainak eta norberak eroan beharko ditu etxetik ontziak

M.A. | ARETXABALETAKO

*Zero zabor* politikarekin jarraituz hainbat kanpaina jarriko ditu abian Udaleko Ingurumen Sailak datozen asteotan. *Ontziratu zaitez* ekimena da lehenengoa eta bi helburu nagusi ditu: Aretxabaletako komertzioa sustatzea eta hondakinak murriztea. Ondoren etorriko dira *Bertako ura* eta *Otarako bilgarriak*.

## Harrera ona ekimenak

Kanpaina hori arrandegiendako eta harategiendako da, bereziki. "Gura duguna da tuperren erabileraren bitartez murriztea bilgarrien papera, plastikoa...", jakinarazi du Lore Martinez Axpek, Ingurumen zinegotziak. Eta gaineratu du: "Tuper horiek Udalak banatu beharrean, etxean ugari ditugunez, horiek berrera-

biltzea dela egokiena uste dugu. Hortaz, kanpaina parte hartu gura duen edonork erosketak egiterakoan etxeko tuperra eraman beharko du saltokira".

Jakinarazi dute ekimenak oso harrera ona izan duela komertzioetako ugazaben aldetik, eta hamar bat arrandegik eta harategik hartuko dutela parte. Eta Idoia Elexpuruk, Aretxarte merkatarien elkartearen presidentea, adierazi du babestu egingo dutela ekimena.

## 50 euroko txartelak opari

Tuperrak erabiltzen dituztenek txartel bat jasoko dute erosketa bakoitzeko, eta hilabete bukaeran zozketa egingo dute horiek. Irabazleak 50 euroko erosketa egiteko aukera izango du, txartel irabazlea jaso duen saltokian.

## NIRE USTEZ

JOSU ZALOÑA



## Etxea lapurtu digute

Hori zioen Santurtziko 27 sendiren izenean sakelako telefonoan jaso nuen mezua. Nonbait, udalak ekimen urbanistikoko baten harira desjabetu egin zituen, beraiek bizitokia zuten sailetan etxebizitza blokeak-edo eraikitzeak. Hartara, eraikuntza promotoreekin negoziatzea beste aukerarik ez zuten izan: desjabetutako

etxearen truke eraikin berrietan beste etxe bat eta, hori egin bitartean, alokairuan bizi ahal izateko diru ordain xumea.

Zer diren gauzak, baina, promotoreek kiebra jo, eta beraien etxebizitza uztera behartuak izan ziren 27 sendi horiek, zor zitzaien etxebizitza gabe eta alokairurako diru-laguntza gabe gelditu dira.

Bat-batean, Txarapea kalean Brues-ek amaitu gabe utzitako etxebizitza blokeak etorri zaizkit gogora, beste blokeetan konpontzeko dauden arazoak, Lausitta aldean desjabetutako bizilagunen larritasunak; eta, bereziki, etxebizitza salerosketen inguruan garai batean izandako sukarraldia eta zoramena.



MIRARI ALTUBE

## Ezkurtxoak jaso dituzte umeek

Astelehenean ezagutu zituzten ezkurtxoak, herriko moneta, 8 eta 9 urte arteko neska-mutikoei. Hiru dimentsioko inprimagailuarekin nola egiten dituzten erakutsi zieten Aretxabaletako Lanbide Eskolan, eta gero, hiru txanpon eman zizkieten umei –lau euro–. Aretxarte gozoki dendetan –Kioskoa eta Arkupe– eta eskolako materiala saltzen dituzten dendetan erabil ditzakete –Iber, Tinta Beltza eta Atai.

## OHARRAK

### 1972AN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Bazkaltzeko elkarteko dira 1972an jaiotakoak apirilaren 18an. Murualde elkartearen izango da, eta 13:00etan elkartuko dira, Taberna Barrin. Izena emateko epea zabalik dago eta Urbaltz eta Azkena tabernetara

jo behar da –10 euro–; azken eguna apirilaren 14a da.

### 'SIEMPRE ALICE' FILMA

Helduek *Siempre Alice* (Ameriketako Estatu Batuak, 2014, 101 minutu) filma gaur (19:30), egubakoitzean eta zapatuan (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Eta umeek *Annie* (AEB, 2014, 118 minutu) zapatuan eta domekan (17:00).

### GAZTEKONKIS-ERAKO IZENEMATEA

Udaberriko Gaztekonkis lehiaketa izango dute gazteek martxoaren 30ean eta 31n. Kirol probak egingo dituzte, egun batean herrian –hiruko saskibaloia, eskalada, igeriketa, errugbia...– eta hurrengoan mendian. Izena emateko epea martxoaren 23an bukatuko da eta Internet bidez –telefonoz sartuta ere bai– egin daiteke, bi webgunetan sartuta: [Arizmendi.eus](http://Arizmendi.eus) eta [Aretxabaleta.eus](http://Aretxabaleta.eus).

Jou Diaz  
Harakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETAKO

zenbaki  
aholkulariak-abokatuak

• **Juridikoa:**  
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.  
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.  
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.  
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.  
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.  
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETAKO • Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)





Eskoriatzako San Pedro auzoko hirugarren kalean egingo dira obrak. | IMANOL BELOKI

# San Pedro auzoa berrurbanizatzen

Hirugarren fasean, hainbat obra egingo dituzte auzoaren hirugarren kalean

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Hitzaldia izan zen aurreko astelehena 9 Ibarraundi museoan, San Pedro auzoa berrurbanizatzearen gainean. Hitzaldia Beñat Herce alkateak eta Maria Pia Urrutia aparejadoreak gidatu zuten eta San Pedro auzoko obren nondik norakoak azaldu zituzten; orain arte egin direnak eta egiteko geratzen direnak. Han batu zirenek eskaerak egiteko aukera izan zuten: bankuak jartzeko, zebra-bide berri bat egiteko eta zintzilarioen kokapen aldaketak, besteak beste.

Lehenengo faseko obrak 2010ean hasi ziren, Ibarraundi museo atzeko kaleko lanekin.

Bigarren fasea, berriz, 2012an hasi zen, eta auzoko erdiguneko obrak egin zituzten. Hirugarren fasean, aldiz, auzoko goiko partean beharrezkoak diren obrak izango dira. Fase horretan hainbat udal zerbitzu egingo dituzte: argiteria, ura, saneamendua, espaloia konpontzea eta mugikortasuna hobetzea, aparkalekuen berrantolaketa egitea, Apotzaga auzora bideko bihurtzeko espaloian hesiak bi aldeetan jartzea eta espaloia luzatzea...

Hirugarren kale horren arazo nagusia irisgarritasuna da; izan ere, aldapa malkartsuak daude eta zabalera murriztuta dago kalean. Bada, ideien artean,

igogailu bat jartzea pentsatu du Udalak, baina oraindik irtenbide egokiaren atzetik dabilza.

## Laugarren fasea

San Pedro auzoan egingo diren lanek 300.000 euroko aurrekontua dute eta obrak hainbat fasetan egingo dituzte. Lehenengo hiru faseak eginda daudenean, auzoko parkea konpontzea geratuko da laugarren fase moduan. Maiatz bukaeran hasiko dira hirugarren faseko obrak, eta proiektuak sei hilabete iraungo duela uste du Udalak. Aurretik, osoko bilkuran onartu eta lanak egiteaz zein enpresa arduratuko den erabaki beharko du Udalak.

# Postaka, Korrika ofiziala eta Korrika Txikia izango dira Eskoriatzan

Aretxabaletako mugatik 08:40 inguruan helduko da herrira; erdiko biribilgunera, hain zuzen ere

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Martxoaren 19an hasiko da Korrika, Urepelen, eta Eskoriatzara 23an helduko da. Aretxabaletako mugatik herri erdiko biribilgunera 08:40an helduko da, gutxi gorabehera.

Bi egun lehenago, aldiz, berezitasun moduan, Postaka izango da. Motorrak berotzen hasteko eta Korrika badatorrela jakinarazteko, Eskoriatzako Ixotu Euskarak eta gaztelekuo Gazte Taldeak herriko beste eragile batzuekin batera antolatutako ekimena izango da. Eskoriatzako euskarari

*korrika* esan nahi du *postaka*-k, eta izen horrekin bataiatu dute eguna. Herri osoan korrika egingo dute, 18:00etan Intxaurtxuetatik hasita. Gero, bertsoak, kantu saioa, musika emanaldia, pintxo-potea... egongo dira plazan.

## Korrika Txikia

Eskoriatzako ikastetxeetako haurrek, berriz, Korrika Txikia egingo dute martxoaren 23an. 10:30ean hasiko dira 4-5 urtekoak eliza paretik, eta Santa Marina plaza pareraino eramango dute testigua. Handik plazaraino 2-3 urte-

koek eramango dute. Han, irakasleek testigua hartu eta zaharren egoitzaraino eramango dute.

Bertan, nagusien txanda izango da eta 6. mailakoak zaharren egoitzatik erdiko geltokiraino joango dira. Gero, 5. mailakoak Sorautz baserri pareraino. Han, 4. mailakoak Martin fruta dendaraino, 3. mailakoak Dorleta auzoraino, 2. mailakoak elizaraino eta 1. mailakoek bukatuko dute, testigua herriko plazaraino eramanda. Plazan denak elkarrean mezua irakurriko dute eta bertsoak abestuko dituzte. Plazaren apainketarekin amaituko dute goiza.

## Bi kilometro, hamaika eragile

Korrika Eskoriatzara heltzean, Aretxabaletako Lanbide Eskolak Arizmendi Ikastolari pasako dio testigua. Bueltan, berriz, Fagorrek Aretxabaletako UDARI. Bi kilometro egingo dituzte Eskoriatzan, eta hamaika eragilek eramango dute testigua.

## Herriko jaiak prestatzeko bilera izango da

I.B | ESKORIATZA

Datorren martitzenean, martxoaren 24ean kultura mahaia izango da herriko jaiak antolatzen hasteko. Ekainaren 28tik uztailaren 1era bitartean izango dira San Pedro jaiak Eskoriatzan, eta egun horietako kontzertuak, ikuskizunak... zeintzuk izan daitezkeen partekatu nahi da bileran.

Hitzordua 18:00etan izango da kultura etxean. Hala, bertaratzeko gonbidapena luzatu die Eskoriatzako Udalak; herriko elkarte, eragile eta norbanakoei herriko festak antolatzen joateko.

## Ruper Ordorika & Mugalaris izango da Zaldibarren

I.B | ESKORIATZA

Ruper Ordorika abeslari Oñatiarrak emanaldia egingo du Eskoriatzako Zaldibar antzokian. Apirilaren 12an izango da eta Mugalaris taldearekin batera igoko da oholtza gainera. Emanaldia 19:00etan izango da eta sarrerak hamar eurotan eros daitezke Eskoriatzako kiroldegian edo *Bibeme* webgunean.

Ordorikaren kontzertuetarako osatutako taldea da Mugalaris, eta, kide aldaketa asko egon badira ere, rock doinu bikainak eskainiko dituzte.



IMANOL BELOKI

## Zeramika erakusketa Zubiaren

Zubiaren labean egiten ziren zeramika tradizionalak ikusteko erakusketa antolatu dute Ibarraundi museotik. Bestalde, gaur egun buztinarekin zer egin daitezkeen ere erakutsiko dute. Martxoaren 24, 25 eta 26an izango da erakusketa.

## 'Bram Barrabas' umeentzako zinema izango da Zaldibarren

*Bram Barrabas* filma ikusteko aukera izango da domekan Zaldibar antzokian. 17:00etan izango da eta euro baten truke ikusi ahal izango da. Bram 6 urteko haur bat da eta ez da gelditu ere egiten. Alaia da, abenturazalea eta asmatzailea. Eta gainera, izugarritzko irudimena du. Handien eskolara joan eta hasteko desatzen dago, baina Fish jaun zorrotzaren gela egokitu zaio...

## 'Ciutat morta' dokumentala emango dute hilaren 22an

Domekan *Ciutat morta* dokumentala emango dute Zaldibarren. Sarrera doakoa da, eta 19:00etan hasiko da emanaldia. 2013ko ekainean, 800 lagunek zinema abandonatu bat okupatu zuten Bartzelonan. Bertan, dokumental bat proiektatu zuten, bere buruaz beste egin zuen Patricia Heras izeneko neska baten historia kontatzeko. Polizia-ustelkeria kasu baten gainekoa da.





## Korrika berbaigai Auzoko egitasmoan gaur, Olananen

*Euskara da kanpora eta denok korrikara!* lelopean, Auzoko egitasmoak Korrikaren gainean saio berezia egingo du gaur, eguaztena, 17:00etan, Olananen.

Korrika Txikia, berriz, martxoaren 23an, astelehena, egingo dute Herri Eskolako gaztetxoek. Errekalde auzoan emango diote hasiera Korrika Txikiari, 15:30ean; bukaera, aldiz, eskolako patioan izango da.

## Merkatu txikia antolatu dute Udalak eta Saskiola elkarteak

Etxean edo ganbaran gauzak baztertuta dituzu? Botatzeak pena ematen dizu? Bada, apirilaren 4an arratsaldeko seietan egingo den merkatu txikian salgai jar ditzakezu. Zerbait saldu nahi duenak mahai bat –edo behar direnak– izango du postua jartzeko. Bertan erakusgai jarriko ditu gura dituen gauzak eta norbera arduratuko da salmenta tratua egiteaz. Izena udaletxera deituta eman daiteke (943 76 62 46), edo *Antzuola.com*-en.

## Marseillako balleta ikustera joateko doako autobusa egongo da

Apirilaren 20an, astelehena, Marseillako balletaren *Orfeo eta Euridice* klasikoa izango da Donostiako Kursaal auditoriumean, 20:00etan. Kursaal Eszenak doako autobus zerbitzua eskainiko die antzuolarrei. Ikuskizuna amaitutakoan berriz ere herrira itzuliko da autobusa.

Interesa dutenek 15era arte dute izena emateko, 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta.



Markel Azkargorta udal teknikaria konposta ondo nahasten Sagasti auzoan. | MAIDER ARREGI

# Hilean 1.035 kilo konpost batzen dute antzuolarrek

Parte hartzen duten familiek %25eko hobaria izango dute zaborraren tasan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ibarrondo auzoko familiak izan dira azkenak auzo-konposta egitera batu direnak. Hala, dagoneko herriko sei gunetan egiten dihardute auzo-konposta: Sagastin zortzi familiak, Errekalden hamaseik, Antiguan seik, Eguzkin bostek, Lizarragan lauk eta Ibarrondon beste lau familiak dihardute konposta egiten.

Izan ere, oso harrera ona izan du Antzuolan abiatu berri duten auzo-konpostak, eta, hasierako beldurrak gaindituta, gustura daudela herritarren esan du Markel Azkargortak. Guztira, hileroko, 1.035 kilo konpost batzen da Antzuolan. "Organikoaren bilketa zirkuituan hileroko mila kilogramo gutxiago batzen da. Organikoaren bilketa sistematik kanpo geratzen da kopuru hori".

### 157 familia

Egun, 54 familiak egiten dute auzo-konposta. Eta, guztira, norbanakoen auzo-konposta gehituz gero, 157 familiak. Udalak, baina, azaldu du guneen kontrola eramango duela eta ez duela ardura guztia herritarren esku utziko.

"Udalak jarraipena egiten die gune guztiei. Arazorik balego, ahalik eta azkarren emango lioke irtenbidea. Oraingoan, baina, martxa onean doa auzo-konposta eta ez dago inolako arazorik", argitu du.

### Itxarote-zerrenda, zabalik

Auzo-konposta egin gura dutenen itxarote-zerrendan hamar familia daude, oraingoan, izena emanda. Baina parte hartu gura dutenek izena eman dezakete. Izan ere, asmoa da sei konpost

-guneak handitzea, pixkanaka. Aurrerago gune berrien azterketa egingo dutela argitu du Azkargortak.

### Konposta nora doa?

Baina herrian batzen den konpost guztia nora bideratuko dute? Zein da helburua eta asmoa? Horri ere emango dio erantzuna Udalak. "Konposta egiten duen familiak egindako konposta jaso ahal izango du bere etxeko lorategirako edota loreontzian erabiltzeko. Asmoa ere bada base-rritarrei eskura lagatzea. Udalak herriko zelai eta lorategietan ere erabili ahal izango du", azaldu du Markel Azkargorta udal teknikariak.

Horrekin lotuta, auzo-konposta egiten duten familiek %25eko hobaria izango dute zaborraren gaineko zergan.

## Bizikidetza artearen bidez lantzeko ekimena abian jarri dute antzuolarrek

M.A. | ANTZUOLA

Egitasmoaren helburua bizikidetza ona lortzea da: "Beharrezkoak diren gaitasunak praktikan jarri eta jarduera artistiko bat eginez bizikidetza ona lortzea da xedea", azaldu du Leire de Miguel teknikariak. Hala, herri-

tarrek aukeratuta, eskolako patioan kanpoaldeko horman murala margotuko dute hilaren 28an eta 29an.

Murala egiten lagundu nahi dutenek gaur, eguaztena, dute aukera, 18:30ean, Olanango goiko solairuan.



Bizikidetza tailerreko lehen saioa. | LEIRE DE MIGUEL

## Independentzia Eguna, Antzuolan bai!

KOMUNITATEA GOIENA | ANTZUOLA  
BLOGAK.GOIENA.EUS/MARIJO

1 eta 2 Antzuolak irabazi; 3 eta 4, Bergarak galdu dau!

Bergarak egin arren, ahalegin guztiak, Antzuolak irabazi Independentzia! Zenbat urte dira ba lehenengoz antolatu genuela Independentzia Eguna? Goienako artikuluan esaten denaren arabera egin ditut kalkulak eta lehenengoz 1997an ospatu zen!

Gerora etena ere izan du, baina 2009an berriro hasi zen ospatzen Antzuolaren Independentzia Eguna, aitzakia hartuta. 5.000 dukat ordaindu zituela bere egunean Antzuolako herriak Bergararik bereizteko. Espainiako erregeari, gainera! Lehenengo aldi hartan (aurreko

mendearen amaiera, egin kontu!); eta memoriak kale egiten ez badit behintzat, ETB1en, artean, Txiskola saioa ematen zuten eta handik bueltan etorri ziren frontoira bazkaria presatzerara Orioko sukaldari-txistekontalaria. Norbait gogora-

tuko da oraindik, ziur! Gaur eta bihar atzera ere izango dute gogoan Antzuolan Independentzia Eguna, eta, Euskal Herriko txoko guztietatik inbidiatan izango dira, Antzuolak bai independentzia lortu zuelako eta horixe ospatzen duelako!



Zapatuan egindako bazkaria gaztetxean. | OIER PEÑAGARIKANO

## NIRE USTEZ

OIER PEÑAGARIKANO



## Hurrengo batean

Astelehenetik ostiralerara, lanetik etxera, tabernaz taberna, udako oporrei begira, helduko diren udaberri berrien zain, ostiraleroko plan berbera... Egunkarietako portadak pilatzen dira aldizkari zumezko saskian eta hemen ezer gutxi aldatzen da, hurrengo batean egiteko planen zerrenda loditzeaz gain. "Jubilatutakoan edo diru gehiago dudanean egingo dut" eta halako esaldiak dira nagusi inguruan.

Ingande goizetan mendi tontorrek gaitzeko lagun egoki baten bila etxean gertatzen gara, geure kabuz Aizkorriko tontorrera iristeko gai izango ez bagina gisara, edo antzerki bat ikusteko kuadrilla konbentzitu ezinda, tabernako aulkiak berotzen ditugu antzokietako takiletan sarrera solteak salduko ez balituzte bezala. Baina zeren zain gauden galdetzen diot nire buruari sarri, ez ote gauden gure beldurrak gaitzeko espero isilean, iraganeko egunak errepikatuko diren ziur, egunkari saskiak betetzen jarraituko duenaren konbentzimendu itsuarekin. Dugunari gogor eusten diogu, beharrik ezer hoberik ezin ekarriko baligu bezala eta uko egiten diogu aldatzeari, uko beldur garela onartzeari.

Gauzak galtzearen beldurrez, bizitzeko aukerak galtzen ditugun honetan, jar dezagun praktikan: "Ibili, erori eta altxatzearen oinarriko legea" (Berri Txarrak-FAQ).



# Txapelduna aramaioarra izateko itxaropen handiz

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Zapatuan, hilak 21, jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketa finala Gasteizko Printzipal antzokian (17:30). Manex Agirre eta Xabi Igoa aramaioarrek lortu dute finalerako txartela, eta euren ondoan egongo dira Oihane Perea, Zigor Enbeita, Iñaki Viñaspre eta Ruben Sanchez.

Agirrerendako, "pozik handiena" izan da Igoa lehen aldiz finalerako sailkatu izana –penaz hartu du, aldi berean, Paula Amilburu finalerako atean geratzea–, eta Igoa ere "pozik" eta "ilusio handiz" dago, haren irakasle izandako hiru lagun ondoan izango dituelako Printzipaleko agertoki gai-

nean. Astelehenean finala iragartzeko prentsaurrekoan sei bertsolariek nabarmendu zuten haien arteko lotura afektiboak eragingo duela saioa ona izan dadin.

## Hiru bide sarrerak eskuratzeko

Hiru aukera daude sarrerak eskuratzeko: Printzipaleko leihatilan martitzenetik zapatua (18:30-20:30) eta finala hasi baino bi ordu lehenago, antzokira telefonoz deituta (945 16 10 45) eta sarrera leihatilan hartuta eta Internetez erosi ([www.principalantzokia.org](http://www.principalantzokia.org)) eta papera norberak inprimatuta. Sarreraren prezioa hau da: bazkideek 8 euro, 16 urtetik beherakoek 5 euro eta gainerakoek 12 euro.



GOIENA

## Hiru maratoilari Bartzelonan

Igone Eriz, Maite Mateo eta Ainhoa Bikuña aramaioarrek Bartzelonako maratoian hartu zuten parte domekan, hilak 15. Zapatuan trenean joan ziren Bartzelonara, domekan maratoian parte hartu zuten eta Aramaioa bueltatu ziren domekan bertan. Helburua bete zuten, 42 kilometroko proba amaitzea lortu zuten-eta. Esperientzia "polita" izan zela adierazi dute. Zorionak!

## Udalak burujabetza energetikoaren proiektua aurkeztuko du bihar Zaragozan, 'Bioenergia' azokan

Bihar Zaragozan izango den Nazioarteko Bioenergia Azokan aurkeztuko du Aramaio Udalak biomasaren proiektuaren gainean orain arte egindako lana, *Aramaio burujabetza energetikorantz* izenburupean. *District Heating* sareetan zentratuko da jardunaldia, bereziki, eta horretan Aramaioaren proiektu aitzindariak izango du zeresana. Beste aurkezpen eta bisita batzuk ere izango dira: Soriako beste esperientzia bat azalduko dute, Jazetaniako baso baliabideen inguruko xehetasunak aurkeztuko dituzte eta mahai-inguru irekia egingo dute, besteak beste.

## Giro ederra Korrikaren aldeko jaialdian

J.B. | ARAMAIO

Herriko hainbat kultura talde eta eragileren eskutik Korrika Jaialdia egin zuten hilaren 13an kiroldegian. Giro ezin hobean ibili ziren: bertsolariak, trikitilariak, Papargorri ume abesbatza, Bizente Goikoetxea abesbatza, Lagun Artea dantza taldea, eskolako umeak, Manex Arriolabengoaren eta Maria Izagaren kontzertua... Jatekorik ere ez zen falta izan. Hilaren 23an, 09:20an, helduko da korrika Aramaioa; Untzilatik eta Zabolatik jaitzita sartuko da Ibarrara (09:49).



Jatekorik ez zen falta izan. | I.SORIANO



Finala iragartzeko astelehenean egindako aurkezpena. | ARABAOKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Bertso barnetegia Sarriako aterpetxean Pazko astean

Bertsoaren bidez euskara bultzatzea du helburu

IMANOL BELOKI | ARAMAIO

Apirilaren 8tik 10era bitartean, Gorbeialdeko bertso barnetegia izango da Sarriako Goikuria aterpetxean. Beste urte batez, Zuiako Koadrilak eta Arabako Bertsozale Elkarteak antolatatu dute ekimen hori eta bi erakundeak oso pozik daude azken urteetako esperientziarekin.

Zuiako Koadrilako udalerritan bizi diren umeek har dezakete parte Pazko astean izango den barnetegian, Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 edo 6. mailan ibili behar dute horretarako.

### Euskara eta bertsoak helburu

Euskararen erabilera bultzatzea da barnetegia antolatzearen helburu garrantzitsuena. Hain zuzen, Pazko asteko oporraldia aprobetxatuz, bere erregistrorik ludi-koena garatzea eta ondare kulturala sakonago ezagutzea. Hori egingo dute parte hartzaileek, baina, guztiaren gainetik, primeran pasako dute.

Ume asko daude etxean gurasoekin euskaraz aritzea ezinezkoa dutenak, eta, horregatik, euskararen erabilera bizipen positiboa eman nahi diete gaztetxoei. Anto-

lakuntza lanetan diharduen Manex Agirre bertsolariaren esanetan: "Bertsoa medio erakargarri moduan erabiliko dugu, baina presio barik; nahi duenak kantatuko ditu bertsoak. Helburua ez da barnetegitik bertsolariak ateratzea, bertsozaletasuna zabaltea baizik".

Hori horrela, hainbat ekintza prestatu dituzte hiru egun horietarako: bertso-ginkanak, aisialdi jarduerak bertsoa erabilia, zikin jokoak, mendi bueltaren bat edo beste, tailerrak, gaubeilak eta bertso-esketxak, besteak beste.

### Izena emateko xehetasunak

Aramaio, Arratzua-Ubarrundiko, Legutioko, Urkabustaizko, Zuiako edo Zigoitiko udaletxera joan behar da izena ematera, edo Zuiako Koadrilaren Murgia-



2011n Gorbeialdeko bertso barnetegian izan zirenak. | MANEX AGIRRE

ko egoitza nagusira. Batera edo bestera joanda, bertan dauden izena emateko orriak bete behar dira. Informazio eta argibide

gehiagorako, Zuiako Koadrilako Euskara Zerbitzura deitu (945 43 01 67) edo [euskara@cuadrilla-zuia.com](mailto:euskara@cuadrilla-zuia.com) helbidera idatz daiteke.

## Ointxe Aramaio saskibaloit talde berriarentzat logotipo lehiaketa

I.B. | ARAMAIO

Joan den domekan aurkeztu zuten Ointxe Aramaio saskibaloit taldea. Bertan, saskibaloit topaketa egin zuten Ointxe Aramaio, Ointxe Arrasate eta Eskoriatzako taldeek. Bina partidu jokatu zituzten, eta Ointxe Aramaio izan zen garaile, bi partiduak irabazita.

### Logotipo lehiaketa

Talde berriak logotipoa behar du, eta, horretarako, logotipo lehiaketa antolatu da. Lanak orri batean inprimatuta entregatu beharko dira kiroldegian, aste barruan, 17:00-19:00 bitartean. Entregatzeko azken eguna apirilaren 17a izango da.



Ointxe Aramaio taldeko jokalariek aurkezpenean. | ARAMAIO IRIZAR

## Mendi-sagardotegi irteera antolatu dute Orixol elkarteok

Martxoaren 28rako Deba-Zumaia arteko mendi ibilaldia antolatu du Orixol mendi elkarteak. 08:30ean autobusa irtengo da Aramaio autobus geltokitik eta izena emateko azken eguna martxoaren 22a izango da. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 40 euro.



## Gu Geu plataformak zerrenda aurkeztuko du udal hauteskundeetara

Barikuan egin zuten aurkezpena, eta astelehenean osatu zuten lantaldea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

30 bat lagun elkartu ziren aurkezpen ekitaldian, eta bultzatzaileek proposatu zuten maiatzeko udal hauteskundeetara begira herri plataforma bat sortzea. Herritarren parte hartzea eskatu zuten plataforma hori aurkeztu ahal izateko. Astelehenean egin zuten hurrengo lan bilera eta plataforman lan egiteko gertu daude herritarrek deitu zituzten bertara. Zazpi lagun elkartu ziren eta posible ikusi zuten udal hauteskundeetarako zerrenda osatzea. Sorrerako prozesua martxan dela adierazi dute.



Gu Geu plataformak astelehenean egindako lan bilera. | L.Z.

## Astelehenean dator Korrika; Uberatik gora etorriko da 12:16an

L.Z. | ELGETA

Badator Korrika eta Elgetan ere gertu dira bi urtean behin euskararen alde egiten den lasterketan parte hartzeko. Ubera auzoan hartuko dute lekukoa elgetarrek, Bolu baserri parean. Antolatzaileek aurreikusitako ordutegia betetzen bada, 12:16an gertatuko da hori.

Elgetarrek aukera izan dute Korrikako arropa erosteko baita ere Korrika laguntzaile egiteko. Korrika batzordea arduratu da. Kilometro salmenta ere ondo joan da herrian. Lau kilometro zeuden saltzeko eta gehiago saldu dira azkenean.

Kilometroa erosita daukaten taldeak edo elkarteak dira Zero Zabor-Maia, gaztetxea, Goibeko, Maala guraso elkarte, Elgetako jeltzaleak, Ezker abertzalea-LAB, Udala eta Ozkarbi-Mendi Mendi Intxorta-Gure Borda elkarteak.

### Korrika Txikirik ez

Aurten ez da Elgetan Korrika Txikirik egingo. Herri Eskolako neska-mutikoen, hori bai, dantza saioa egingo dute herriko plazan Korrika erdigunetik pasa aurretik. Giroa alaitzeko Korrikaren kantua eskainiko dute jendaurrean.

## Elgetako EH Bilduk gaur aukera dezake alkategaia

L.Z. | ELGETA

Elgetako EH Bilduk gaur, eguaztana, egingo du herri programa berresteko eta maiatzeko udal hauteskundeetako alkategaia aukeratzeko batzar irekia. Bertaratzen diren herritarrek aukera izango dute azken hilabeteetan landutako herri programaren inguruko bozketa egiteko berau berretsi edo atzera botatzeko. Parte hartzaileek, gainera, Elgetako EH Bilduko alkategaia aukeratu ahal izango dute.

Batzarra udaletxeko bilkuren aretoan egingo dute, 20:00etan.

## Los Chichos, Joseba Usobiaga eta Manu magoa Espaloian

L.Z. | ELGETA

Manuel Goikolea magoaren ikuskizunarekin emango diote hasiera aste bukaerari Elgetan. Barikuan, hilak 20, egingo du saioa Goikoleak eta 14 urtetik gorakoendako izango da. Umorez jositako ikuskizuna izango da, eta bertan, esaterako, ikusleak pentsatzen ari direna asmatuko du. Magia lanetan ere jarriko du bat baino gehiago. Saioa 22:30ean hasiko da eta sarrera sei euro ordaindu behar da; aurrez erosiz gero, bost.

### Zapatuan, Los Chichos

Aste bukaerako bigarren ikuskizunak musikarekin du lotura. Los Chichos taldea izango da Elgetako kafe antzokian zapatuan, 22:30ean. Talde ezaguna agur-bira egiten ari da, eta Espaloian egingo dute kontzertu horietako bat —ikus 24.

orria—. Sarrera hamazortzi euro da; aurrez erosiz gero, hamabost.

### Domekan bakarriketa

Asteari amaiera emateko, bazkaria eta Joseba Usobiagaren bakarriketa saioa proposatu dute kafe antzokitik. Aktore ezagunak *Oroitza-Penak* izeneko bakarriketa egingo du. Sarreraren prezioa hamahiru euro da eta prezio horretan sartzen dira bazkaria —edariak eta kafea barne— eta Usobiagaren saioa. 13:30ean hasiko dira bazkariak ematen. Bakarriketa 16:30ean hasiko da. Sarrerak salgai dituzte.

Hurrengo hiruhileko egitaraua aurreratzen hasiak dira Espaloitik. El Langui, Manu Tenorio, Su Ta Gar edo *Altzorraren Uhartea* musikala iragarri dituzte, besteak beste.



FAMILIENDAKO 'SORMENING' TAILERRA Domekan, hilak 15, hamar familatik gora elkartu ziren Espaloia kafe antzokian Onditiz Mendizabal elorriarrak gidatutako sormen tailerrean parte hartzeko. Gustura aritu ziren tenpera-pinturekin eta otsoaren dantza ikasten.

## 30 ortuko Baratze Parkea egingo du Udalak; izenematea zabalik da

Ospitale zaharretik aurrera joanda San Roke osteran doan bidezidorraren azpiko aldean kokatuko du Udalak Baratze Parkea. Oraingoz, hamar bat lagunek egin dute eskaera. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena. Argibideak emateko bilera deitu du Udalak astelehenerako, martxoak 23, 18:00etan, udaletxean.

## Euskal dantzen ikastaroa apirilaren 15etik aurrera

Hirugarren urtez umeendako euskal dantzen ikastaroa egingo dute Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak. Saioak eguaztetenan izango dira, 18:15ean hasita, gimnasioan. Interesatuak udaletxean edo liburutegian eman behar dute izena. Prezioa da hamabi euro umeko.

## Areto futbol txapelketako finalerdiak

Aste bukaera honetan jokatuko dituzte areto futbol txapelketako bi finalerdiak. Bi norgehiagokak bihar, eguena, izango dira. Astuan Villa eta Jaitxo taldeek 11:00etan jokatuko dute eta Txapela eta La Kokotxa taldeek, berri, 12:00etan. Finalerako bi txartelak daude jokoan.

## Debagoieneko erretiratu elkarteekin batera funtzionatuko dugu aurrerantzean

KOMUNITATEA GOIENA  
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

Barikuan 45 bat lagun elkartu ginen urteko batzarra egiteko. Baja bat dugu zuzendaritzan, Irene Bolinagarena, baina asmoa da ordezkatzeta. Bestetik, aurrerantzean Debagoien eremuko elkarteekin funtzionatuko dugu —sorreratik izan gara Debaba-

rrenekoekin—. 2015ean lau irteera egingo ditugu, eta gertu gaude Eusko Jaurlaritzak erretiratu elkarteekin eta eskolen artean bultzatu gura duen programan parte hartzeko.

Azkenik, hilaren 26an dugu podologoaren kontsulta. Txanda hartzeko, deitu Begoña Ardantzari: 943 76 81 47.

## Gatzagako lur-mugimenduak hizpide datorren egunean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan azken urteotan gertatu diren lurren mugimenduen jarraipena eta azterketa egin dute. Bada, proiektu horren emaitza aurkeztuko dute datorren asteko egunean, martxoaren 26an, udalerriko kultura etxean, 19:00etan.

### Lau urtean, zundaketak

Hain zuzen ere, Euroestudios azpiegitura, obra eta antzeko gaietan aholkularitza eskaintzen eta geoikerketak egiten dituen ingeniari enpresa eta Gipuzkoako Foru Aldundia dabilta ikertzen Leintz Gatzagak duen berezitasun hori. Hala, diru lagun-

tza bati esker, orain dela lau urte, zundaketak eta mugimenduen jarraipena egiteko bestelako ekimen batzuk abiarazi zituzten Leintz Gatzagan. Beraz, horrek emandakoa da egunean aurkeztuko dutena.

### Korrika Txikia Eskoriatzan

Bestalde, martxoaren 23an, astelehena, Korrika Txikia egingo dute Gatzagako eskolako neska-mutikoen Eskoriatzan, Luis Ezeiza eskolakoekin batera, 10:30ean.



IMANOL SORIANO

## Emakumeen harremanak indartsu

"Primeran" pasatu dute aurten ere Leintz Gatzagako belaunaldi askotariko hogeit hamar emakume baina gehiagok urteko ospakizunean. Soran etxean elkartu ziren joan den zapatuan, Martxoaren 8arekin lotuta.





Bi atleta Isklar Norseman Xtrem triatloian. | SUBCUATRO3.FILES.WORDPRESS.COM

## MENDIKO TRIATLOIA

# Xterra Basque Country Tour lasterketa berria Arantzazun

Ekainaren 21ean izango da mendiko triatloia eta zabalik dago izen-ematea

XABIER URZELAI | ARRASATE

Xterra izeneko mendiko triatloien zirkuituak Euskal Herrian gelto ki bat izango du, Arantzazun. Hala, kirol hitzordu handiak antolatzera ohituta dagoen Fortuna elkarteak hartu du proba antolatzeko ardura –Behobia-Donostia euren antolatzen dute– eta bertako ordezkari Iñigo Etxeberriak eman dizkio GOIENARI xehetasun gehiago: "Xterra frankizia bat da, Europako beste leku askotan antolatzen dituzte mendiko triatloiak; esaterako, Frantziako zirkuitua oso ikusgarria da, eta guk Euskal Herrian antolatzeko interesa erakutsi genuen", azaldu du.

### Turismoa sustatzeko asmoz

Antolatzaileek Arantzazuko eta inguruko parajeak aukeratu dituz-

te proba egiteko: "Gurean, turismoa kostaldean sustatzen dugu, gehienbat, eta proba hau barnealdean egin gura genuen. Debagoiena aukeratu genuen, eta, zehatza goak izateko, Arantzazu, daukan balioagatik, eta Aizkorri-Aratz parkearen edertasunagatik".

### Turismoa eta kirola batu gura ditu Xterra zirkuituak

### Aizkorri-Aratz parkean egingo dute lasterketa

### Mendiko triatloi bakarra

Lasterketaren gaineko xehetasun zehatzak aurrerago emango dituzte antolatzaileek: "Hainbat kontu zehazten ari gara oraindik. Gabon aurretik jaso genuen baiezkua, eta erlojuaren kontra gabil-tza lanean. Eta pozik gaude, oso harrera ona jaso dugulako harremanetan jarri garen Debagoieneko hainbat kirol elkarteren partetik".

Hala, Arantzazukoa izango da Euskal Herrian egiten den mendiko triatloi bakarra. Baieztatu barik badago ere, igeriketa saioa Urkulun egitea da asmoetako bat, handik Urbiara mendiko bizikletan joatea, eta hango inguruetan korrika saioa egitea. Eta, gogortasunaren arabera, Open eta Pro kategoriak izango dira.

## FUTBOLA

# Asteburu luzean jardunaldi bikoitza izango dute Antzuolak eta Bergarak, eta besteek bakarra jokatu dute

X.U. | ARRASATE

Bergarak eta Antzuolak asteburu luze honetan sei puntu izango dituzte jokoan; horrenbestez, aurrerapauso handia egin dezakete, edo atzera nabarmen. Hasteko, bihar, eguena, Antzuolak Elgoibar hartuko du Estalan (16:00) eta Bergarak Tolosara egingo du bidaia (16:30). Aloña Mendik eta Aretxabaletak, ostera, apirilaren 12ra atzeratu dituzte partiduak.

Eta, atsedean hartzeko bestetan baino tarte txikiagoaz, zapatuan eta domekan beste jardunaldi bat egongo da jokoan: Antzuolak Martutenen jokatu du (zapatua,

17:30) eta gainontzekoek etxean izango dute hitzordua. Hala, Aretxabaletak Ordiziaren bisita izango du domekan (16:30), Aloña Mendik Hernanirena (16:30) eta Bergarak ere domekan jokatu du Hondarribiaren kontra (16:30).

### Mondra-Aretxabaleta derbia

Erregional Preferentean, ostera, Mondrak eta Aretxabaletak derbia jokatu dute Mojategin (zapatua, 16:30). Joan den astean Mondrak bolada ederra eten zuen, eta Zubiaren mutilek bidea lehenbailehen zuzendu gura dute ostera. Adi ibili behar dute, baina,



Aloñak Hernani hartuko du. | GOIENA

Aretxabaleta ere oso denboraldi txukuna egiten dabil-eta.

Eta emakumezkoen kategorian ere derbia izango da domekan (16:30, Mojategi), Mondraren eta Arizmendiren artekoa.

## TXIRRINDULARITZA

# Uzarragako maldak iazko irabazle Ciryil Bartheren ordezkari bila dabilta

Zapatuan egingo dute Antzuolan gazte mailako lasterketa, 81 kilometroko ibilbidearekin

X.U. | ARRASATE

Datorren zapatuan Uzarragako maldetan batuko dira gazte mailako ziklista onetsuenak. Hala, Antzuolako lasterketak hasiko du bailarako proben egutegia, iazko ibilbideari eutsiko dion 81 kilometroko lasterketarekin.

Uzarragakoa Gorlako Igoeraren bezperan izan ohi bada ere, federazioak eskatuta lasterketa astebez aurreratu dute antolatzaileek. Hala, iaz Uzarragako maldek etorkizun polita izan dezakeen ziklista bat azaleratu zuten, Iparraldeko Cyril Barthe. Orduan UC Orthez taldean lehiatzen zen, eta, urte polita egin ostean, Miguel Mada-

riagak Euskadi EDP taldera eroan du. Aurten ere txukun dabil, martxo hasieran jaioterrian egiten duten lasterketa irabazi berri du-eta Barthe.

### Iaz esprint estuan

Iazko Uzarragako igoerak azken segundora arte eutsi zion emozioari, segundo bakarrekotea atera zion-eta Barthe Mikel Alonsori.

Zapatuan (16:00), ziklistek birritan egingo dute Antzuolatik irten eta Oñatiko Zubillaga auzoraino joan-etorria. Handik bueltan, Etxe-Zuriko zubi parean ezkerrean hartu eta Uzarragako igoerak dituen bi kilometroetan erabakiko da garailea.



Iazko esprint estuan Ciryil Barthe eskuak jasotzen. | GOIENA

## BORROKA LIBREA

# Espainiako txapelkun izan da Maider Unda, hamabosgarrenez

X.U. | ARRASATE

Borroka olinpikoan hamabost urrezko domina ditu zapatua ezkerreko olerak sari-bilduman; bai, behintzat, Espainiako Txapelketan, nazioartean sari-bilduma zabalagoa du-eta.

Hala, Madrilen jokatu dute txapelketa, eta, familia izan bitartean urte sabatikoaren ostean, sasoi betean itzuli dela frogatu du Undak. Sasoi betean bai, baina ez kontrarioa menderatzeko lehen zuen gaitasunaz, hori galdu egin duela aitortu du Aramaioakoak. Oraindik bide luzea du egiteko –hurrengo Joko

Olinpiarrek ditu buruan–, baina, lehenengo, mundialean egon gura du, irailan. Horretarako lehenengo pausoa eman du, Espainiakoan kontrarioez ez duela baiezatzeta, baina hori erronka txikia da etorkizunean izango dituenekin alderatuta.

### Pisu aldaketara moldatzen

72 kilo azpiko kategoria desgertu egin da, eta orain, 75 kilo azpikoan dabil. Hala, hark baino pisu handiagoa duten borrokalarietara moldatu behar du gorputza, eta baita borroka egiteko modua ere.

## MENDI LASTERKETAK

# Oihana Kortazar indartsu itzuli da lasterketara, Leonen egin duten Alto Sil lasterketa irabazita

Domekan emakumezko azkarrena izan zen Leongo Santa Cruz del Silen egindako 7. Alto Sil lasterketan. 34 kilometroko ibilbidea izan zuten, eta Kortazarrek hogeigarren egin zuen sailkapen orokorrean. Haren denbora: 3.24.19. Bakarrik egin zuen ia lasterketa osoa eta aldea handitzen joan zen aurrera egin ahala. Susana Alvarezek egin zuen bigarren, hogeita hamar minutu baino gehiagoko atzerapenarekin (3.57.12). Domekan du Kortazarrek hurrengo erronka: Vall del Congost-eko lasterketa, 42 kilometrokoa.





Beñat Arnaiz, Castro Urdialesko duatloian. | CASTRO URDIALES

## DUATLOIA

## Beñat Arnaizek Castro Urdialesko lehenengo duatloia irabazi du

Aretxabaletarrari bi lasterketa falta zaizkio denboraldia amaitzeko: datorren domekan Zornotzan izango du bat eta hurrengoa Arbizun jokatu da

**ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETA**  
Beñat Arnaiz aretxabaletarra pozik dago. Joan den domekan, Castro Urdialesko I. duatloia irabazi zuen Beñat Arnaizek. Hasieratik izan zen jaun eta jabe Arnaiz, eta ez zuen arazorik izan hasieratik hartutako aldeari eusteko.

"Lehenengo duatloia izan arren, aurrez triatloia egin izan dut; hortaz, ibilbidea zertxobait ezagutzen nuen", azaldu du Arnaizek.

**Hiru itzuli herriko zirkuituan**  
11:00etan hasi zuten lasterketa. Lehenengo, antxintxikan egin zituzten 10 kilometro. Herrian egindako zirkuitu bati hiru itzuli egin behar izan zizkioten. Lehenengo itzulian hartu zuen aurre Arnaizek: irteera puntutik bakarrik pasa zen, gainerakoak baino metro batzuk aurretik. Bigarren eta hirugarren pasa ziren Gorka Bizkarra eta Manu Vega. Bigarren itzulia amaitzean posizio berean pasa ziren, baina Arnaiz

zek tartea handitu zuen; hirugarren itzulia amaitzean, Arnaizek 26 segundoko abantaila zuen bigarrenarekiko.

Trantsizioa egin eta bizikletan irten ziren atletak. 40 kilometroko ibilbidea zuten aurretik. Eguraldi txarrak, gainera, arriskutsu egin zuen tartea hori. "Mendate bat igo eta jaitsi behar izan genuen. Errepidea arriskutsu zegoen eta ez nuen arriskatu gura izan. Banekien nahiko tartea nuela bigarrenarekiko; hortaz, lasai joan nintzen", dio. Hala ere, Arnaiz ondo ibili zen eta denbora onena egin zuen bizikletako tartean. Modu horretan, atzetik zetozenekiko aldea handitu zuen aretxabaletarrak.

Bigarren denbora onena Manuel Pandok egin zuen bizikletan. Hala, Bizkarra eta Vegari aurre hartu zien Pandok podiumera begira.

**Azkeneko bost kilometroak**  
Azkeneko bost kilometroak antxintxiketan egin zituzten berriro ere. Arnaizek ez zuen arazorik izan helmugara lehenengo iritsi eta proba irabazteko.

"Banekien indartsu nengoela; horregatik, hasieratik irten naiz indartsu", azaldu du Arnaizek. Denboraldia amaitzeko bi proba falta zaizkio Arnaizi: "Datorren domekan Zornotzan izango da bat eta azkena Arbizun", adierazi du Arnaizek. Ondoren, triatloien denboraldia hasiko du.

### Lagun mina gogoan

Castro Urdialesko helmugan, Arnaizek keinu polit bat izan zuen. "Orain dela ez asko hil zitzaigun lagun min bati eskaini nion garaipena", azaldu du. "Asko hitz egiten nuen harekin kirolaz, lasterketez, eta haren falta igaritzen dut", dio Arnaizek.

## ATLETISMOA

## Eneko Carrascal Espainiako bigarrena izan da salto hirukoitzean

**A.E. | ARRASATE**

Anoetan jokaturako Espainiako txapelketan emaitza onak lortu dituzte gazte mailako atleta arrasatearrek. Eneko Carrascal zilarrezko domina irabazi zuen salto hirukoitzean. Carrascal 14,54 metroko salto egin zuen. Orain arte, Carrascalen marka onena 14,27 metrokoa zen.

Arrasatearrek batera podiumera igo zirenen emaitzak izan ziren: lehenengoak 14,92 metroko salto egin zuen eta

hirugarrenak, berriz, 14,46 metroko saltoa.

**Ibai Fernandez, min hartuta**  
Ibai Fernandezek 7.19ko denbora egin zuen 60 metroko lasterketan. Lehenengoa izan zen bere txandan, eta, finalerdirako txartela lortu zuen arren, min hartu zuelako ez zuen finalerdia jokatu.

Carrascal eta Fernandez Benicassimen izango dira Aste Santuan Espainiako Federazioarekin entrenatzen.

## SASKIBALOA

## Mondragon Unibertsitateak zapatuan jokatu du, 18:00etan

**A.E. | ARRASATE**

EBA mailako taldeak zapatuan jokatu du 20. jardunaldiko norgehiagoka. Larreategiren mutilek Fundacion Baloncesto Valladolid izango dute aurrean, 18:00etan, Iturripen.

Etxeokak 6. postuan daude 29 punturekin eta Valladolid, aldiz, 10. postuan 26 punturekin.

**Gainerako taldeen partiduak**  
Gizonezkoen bigarren mailan, Aloña Mendiko Natra Oñati

taldeak atsedena izango du ligako 22. jardunaldian.

Emakumezkoen senior mailan, Eskoriatzako taldeari ere atsedena egokitu zaio ligako 10. jardunaldian.

Soraluze Bergarak Zarautzera egin beharko du bisita. Zapatuan, 16:00etan, Oriokoren aurka jokatu dute. Ointxe! elkarterko bigarren mailako taldeak Musakolan jokatu du egubakoitzean, 20:00etan, Donosti Dolphins-en aurka.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

## FUTBOLA

## OHOREZKO ERREGIONALA

Martutene-Antzuola

Zapatua, 17:30. Martutene.

Aretxabaleta-Ordizia

Domeka, 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Hernani

Domeka, 16:30. Azkoain.

Bergara-Hondarribia

Domeka, 16:30. Agorrosin.

## ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Aretxabaleta B

Zapatua, 16:30. Moiategi.

## LEHEN ERREGIONALA

Bergara-Beti Ona

Zapatua, 17:30. Ipintza.

## OHOREZKO GAZTEAK

Aretxabaleta-Mondra

Zapatua, 16:30. Ibarra.

Bergara-Aloña Mendi

Zapatua, 15:30. Ipintza.

## GAZTEEN 1. MAILA, IGOERA

Euskalduna-Antzuola

Zapatua, 17:15. Ubitarte.

## OHOREZKO KADETEAK

Urola-Bergara

Zapatua, 12:00. Argixao.

Aloña Mendi-Amaikak Bat

Zapatua, 11:15. Azkoain.

Arrasate-Elgoibar

Zapatua, 10:00. Moiategi.

## KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Hernani-Aloña Mendi

Zapatua, 10:00. Urmieta

## OHOREZKO INFANTILAK

Aretxabaleta-Tolosa

Domeka, 10:30. Ibarra.

Lazkao-Aloña Mendi

Zapatua, 10:15. Arizti Handi.

Bergara-Beasain

Domeka, 10:00. Ipintza.

## INFANTIL TXIKI

Bergara-Hondarribia

Domeka, 11:30. Ipintza.

## EMAKUMEEN ERREGIONALA

Mondra-Arizmendi

Domeka, 16:30. Moiategi.

## EMAKUMEEN ERREG. KOPA

Ilintxa-Bergara

Domeka, 16:00. Argixao.

## ARETO FUTBOLA

## EUSKAL LIGA

Kukuyaga-Eskoriatza

Zapatua, 20:00. Udal kiroldegia.

## LEHEN MAILA

Aretxabaleta-Ferreser anaiak

Zapatua, Zehaztu barik. Ibarra.

## BIGARRIN MAILA

Mondrate-lurre taberna

Zapatua, Zehaztu barik. Muskola.

## SENIOR NESKAK

Zaldibia-Eskoriatza

Zapatua, Zehaztu barik. Resti frontoia.

## GAZTE MUTILAK

Larramendi-Mondrate

Zapatua, Zehaztu barik. Ekintza ikastola.

## ESKUBALOA

## LEHEN NAZIONAL MAILA

Trapagaran-Ford Mugarri

Domeka, 12:30. Udal kiroldegia.

## EUSKADIKO TXAP. GIZON.

Gure Auzune-Bergara

Eguena, 12:15. Divino Maestro.

## LEHENENGO TERRITORIALA

Izarraitz Aloña Mendi-Eibarko Haritza

Zehaztu barik. Zubikoa.

## BIGARRIN TERRITORIALA

Ordizia-Bergara

Zehaztu barik. Ordizia.

## SASKIBALOA

## EBA MAILA

MU-Fundacion Baloncesto

Valladolid

Zapatua, 18:00. Iturripe.

## BIGARRIN MAILA NAZIONALA

Natra Oñati

Atsedena.

**BASKONIA** LABORAL Kutxa |

**THE ROAD TO TOP 8**

**LABORAL KUTXA OLYMPIACOS**

MARTXOAK 20 OSTIRALA - 21:00

EROSI ZURE SARRERA BASKONIA-ALAVES DENDA OFIZIALEAN  
GENERAL ALAVA KALEA 1 - TEL: 902 13 91 91 - WWW.BASKONIA.COM





Gaztetxo batzuk, iazko lehiaketarako lana prestatzen. | BHKlip

## XXII. mendeko ikastola, BHKlip sariketako gaia

KOMUNITATEA GOIENA  
ARIZMENDI IKASTOLA | DEBAGOIENA

Abian da BHKlip 2015 bideo lehiaketa. Zazpigarren aldian izango da aurtengoa, eta parte hartzen duten ikasleek bi hilabete izango dute bideo bat sortzeko ondorengo gaiaren inguruan: *Eta zuk nola ikusten duzu? Iru-dikatu XXII. mendeko ikastola.* DBHko 3. eta 4. mailako eta batxilergoko ikasleentzat da, eta bi sari banatuko dira: Epaimahaiaren Saria eta Ikuslearen Saria. Azken edizioetan bezala, lankidetzan izango ditugu AZK, Goiena, MU eta Bagara. Aurten, gainera, bailarako ikastolen

arteko elkarlana bultzatu nahirik, Txantxiku eta Aranzadi ikastolakoek ere hartuko dute parte, eta guztiei eskainiko zaie formazio-saio bat Huhezin bertako irakasleentzako eskutik.

Lanak helarazteko epea apirilaren 24a da.

### Epaimahaia eta ikusleak

Bi sari emango dira: Epaimahaiaren Saria eta Ikuslearen Saria: sari bakoitzean, partaideentzako bideo-kamera bana. Ikuslearen Saria boto bidez aukeratuko da: finalisten arteko onena Goienaren blog komunitateko BHKlipeko blogean ([blogak.goiena.eus](http://blogak.goiena.eus)).

## Los Chichosen agur bira Elgetara ere etorriko da

LEIRE KORTABARRIA | ELGETA

Los Chichos taldeak kontzertua egingo du zapatuan, hilak 21, Elgetako Espaloia antzokian, 22:30ean. Sarrerak salgai daude aldeztatik 15 eurotan.

### Despedida

Agur bira da honakoa. 40 urte baino gehiago daroa taldeak musika egiten. Pozo del Tío Raimundon sortu zuten taldea Julio eta Emilio Gonzalez anaiek eta Juan A. Jimenezek 1973an, eta 1989ra arte jarraitu zuen hiruko horrek rumba flamenkoa egiten, arrakasta handiarekin egin ere. Pop flamenconaren aitzindariak izan ziren.

Baztertuen gizarteari abestu izan diote. Kaleko gaiak kantatuz egin ziren ezagun. Gaur egun, Julio eta Emilio Gonzalez Gabarre anaiek, Emilio Gonzalez Garcia gazteak eta Nieves eta Milagros Gonzalez ahizpek osatzen dute taldea.

## Kimuak, Debagoienarekin lotura handia duen film labur lehiaketa

KOMUNITATEA GOIENA | ESTHER CABERO  
EUSKADIKO FILMATEGIA | ARETXABAETA

Ziur aski Kimuak izena arrotz egingo zaio bati baino gehiagori. Debagoiena, oster, ez zaio ezezaguna egitasmo honi, izan ere bailarako hainbat egile, aktore eta teknikari pasa dira bertatik.

### Bailarako lau zuzendari

Duela hamazazpi urte sortu zen Kimuak, euskal film laburgintza sustatu eta urteroko uztaren aukeraketa bat nazioartean banatzeko helburua duen Eusko Jaurlaritzaren programa.

Lehen edizio hartan, Asier Altunak Telmo Esnalekin batera zuzendutako *Txotx* lana izan zen zortzi aukeratuak bat. Orduetik, bergararraren beraren presentzia errepikatzeaz gain, ibarreko beste hainbat zuzendari ere izan dira programan, hain zuzen Manu Gómez, Iban del Campo eta Aitor Arregi.

Azken honek *Zarautzen erosi zuen* komedia dramatikoa aurkeztu zuen 2014ko

katalogoan. Lau kontinente zapaldu ditu jada oñatiarraren laburrak, eta 10 sari eskuratu. Edizio kide duen Altunaren *Soroa*, Oteizaren poema baten oinarritua, nazioarteko 25 zinema jaialditan lehiatu da oraindano. Donostiako Zinemaldian estreinatu ziren biak, eta ibilbide luzea daukate aurretik.

Maiatzaren 29a arte egongo da zabalik 2015eko hautaketan sartzeko deialdia. Ondo legoke bertan Debagoieneko ordezkari berriak aurkitzea!



Soroa film laburra. | KIMUAK

## 'Trostan' taularatuko du Oihulari Klown taldeak domekan Bergaran

MIREN ARREGI | BERGARA

Zabalotegi aretoan egongo da *Trostan* antzezlanaren ikusteko aukera martxoaren 22an, domekan, 18:00etan. Sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, ordubete lehenago, leihatilan. Lau euro balioko du.

Orain dela urtebete hasi ziren Oihulari Klown eta Tira Ta Floja taldeak antzezlanaren prestatzen; izan ere, bi taldeen arteko elkarlanetik sortutakoa da. Kaleko bertsioa egin zuten lehenik, eta berehala sortu zuten aretoa: "Oso harre-ra ona ari da izaten. Antzezleak esperientzia handikoak dira, eta hori igarri egiten da agertokian", dio Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek. Jose Carmelo Muñoz

–Oihulari Klown– eta Toni Iglesias –Tira Ta Floja– dira *Trostan* saiko aktoreak.

### Adin guztietarako

*Klown* klabearen aurkezten dute *Trostan*. Hori bai, sudur barik. Umore klabearen, eta adin guztietarako proposamena da. Zaldi biren paperean, protagonistek heziketaren gaineko hausnarketak helaraziko dituzte.

Antzezlanak badu berezitasunik, eta horietako bat da testu bakoa dela: "Hitz barik egin gura genuen, nazioarteko antzerki jardunaldietara aurkeztu ahal izateko", dio Imazek. Oraingoz, Frantziara eta Italiara eroateko asmoa erakutsi dute.

Aktoreak *Trostan* antzezlaneko une baten. | OIHULARI KLOWN

EMAN AURPEGIA  
arrazakeriaren kontra

NAROA AGIRRE | Atletico San Sebastianeko pertika jauzilaria  
#emanaurpegia #arrazakeriarenkontra



# Arrakastaz estreinatu dute Bergaran joan den asteburuan 'Mozkorra parregarri' opera

Eszenografiak, jantziek, makillajeak eta obrak berak txundituta utzi dituzte ikus-entzuleak

MIREN ARREGI | BERGARA

Lehenengo euskal opera bezala hartzen da duela 250 urte Xabier Maria Munibe Peñafloidako kondeak idatzi zuen *El borracho bur-lado* opera. Joan den asteburuan, euskara hutsean estreinatu zuten obra Bergaran, osoko bilkuren aretoan.

## Ordezkaritza zabala

Estreinaldiaren ostean, beste hiru saio egin zituzten protagonistek; guztira, lau, herritarren eskariari erantzunez. Saio guztiak bete ziren jendez, eta zapatuko estreinaldian, herritarrak ez ezik, hainbat erakunde eta elkartetako ordezkariak izan ziren. Han izan ziren, esaterako, Martin Garitano ahaldun nagusia, Jaione Isazelaia Bergarako alkatea eta Juan Bautista Mendizabal Euskalerraren Adiskideen Elkarteko lehendakaria. Aipatzekoa da, bestalde, Alvaro

Mendizabal Peñafloidako XVI. kondea ere ikuskizunean izan zela, Madrildik etorruta. Eta ez hori bakarrik, duela 50 urte Azkoitiko konpainiarekin mozkorraren emaztearen papera egin zuen Maria Pilar Uria ere han izan baitzen. Guztiak ere oroigarria jaso zuten emanaldiaren bukaeran.

## Euskara hutsean

Peñafloidako kondeak jatorrizko operaren bertsoan abesti guztiak euskaraz idatzi bazituen ere, protagonisten arteko elkarriketak gaztelaniaz egin zituen. Bergararrek 1973an Anastasio Albisu lazkaotarrak itzultitako bertsoan aurkeztu dute lana, euskara hutsean.

Dagoeneko adituak dira bergararrak halakoetan. Ez baita herritarrek egiten duten halako lehen interpretazioa; hor daude *Miserableak*, *Peter Pan*, *Olentzero*, eta abar. Horrek, nola ez, espe-



Operako protagonistak, erakunde eta elkartetako ordezkariak oroigarria ematen. | ARIZONDO ARGAZKIZALE ELKARTEA

rientzia eman die musikariei, eta herritarrek ere ongi ikasi dute hori baloratzen.

## Bultzatzaileen poza

*Mozkorra parregarri* operaren bultzatzaileak oso pozik daude egindako lanarekin: "Benetan gustura gaude. Ikusleari ere heldu zaio, eta hori da garrantzitsua. Jendeak barre asko egin du, guk uste ez genuen pasarteetan ere bai, eta horrek erakutsi du benetan komikoa dela obra", dio Valen Moñux antolatzaileak. Eta gaineratu du: "Erabat harritu gaitu, gainera, komunikabideetan izan duen inpaktuak. Ikaragarria izan da nola herriko proiektu batek hori lortu duen".

Antzuolan, Elgetan eta Azkoitian egingo dituzte emanaldiak.



Operako protagonistak, joan den asteburuko saio baten. | IMANOL SORIANO

**.eus** domeinua Korrikarekin batera dator

**IZAN eusKAHALDUN!**

Martxoaren  
**19tik 31**  
bitartean

**29,95**  
euro

eskuratu zure  
**.eus** domeinua  
prezio berezian

Eskaintzaren informazioa:  
[www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus)

**eus**

**gure domeinua**





**MARTXOA 19**

**ZUZENEAN**

**UREPELETIK HASIERA | AURKEZLEA: ILASKI SERRANO**



**MARTXOA 23**

**ZUZENEAN**

**DEBAGOIENEAN ZEHAR | AURKEZLEAK: AMAIA TXINTXURRETA, JULEN IRIONDO ETA LARRAITZ ZEBERIO**



**BABESLEA:**

**emun**  
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

**goiena**



## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aramaio.** Arraga auzoan baserria salgai, lursailarekin. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 615710207 edo 615705996

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erguin auzoan, Udalpe kalean, etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Egoera oso onean. Berokuntzarekin. Nahiagobikote batentzat. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 620151508 edo 943787007

## 104. ERRENTAN HARTU

**Baseri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baseri bila dabil. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 680342960 edo 699289906

**Debagoiena.** Bergaran edo inguruan etxebizitza bila nabil. Neska arduratsua naiz eta bi logela edo gehiagoko etxebizitza beharko nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 631681218

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza edo estudioa hartuko luke errentan, prezio onean, herrian bertan edo Zubillagan. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 666200603

**Oñati.** Oñatiko bi gazte errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 617513392 edo 670566251

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Erdigunean, logela ematen da errentan, etxeko gune komunak erabiltzeko aukerarekin. 678826977

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 655726313

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Esperientzia duen emakume eskalduna bat behar dugu, bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahal bada Antzuola, Bergara edo gertukoa. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 606278747

**Elgoibar.** Baserri baten pertsona nagusi bat zaintzeko pertsona bat behar da, etxean bertan bizi izateko. Euskalduna eta autoarekin. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 655715544 (Ana)

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 28 urteko neska arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko eta etxerako lanetan laguntzeko gertu. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 688638631

**Arrasate.** Atariak garbitzen edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 603852979

**Arrasate.** Egunez nagusiak zaintzeko edo orduka garbikete

ta eta lisatze lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu ezazue telefono honetara: 632234619

**Arrasate.** Garbiketa lanak egingo nituzke orduka, arratsaldetan. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 622053057

**Arrasate.** Neska gertu astean zehar lan egiteko. Eskarmentua dut tabernan, barran zein jangelan. Garbiketarak ere egingo nituzke. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 616093790

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi eta lan eskarmentua duen neska gazte euskalduna, umeak zaintzeko eskaintzen da. Zerbitzari eta garbitzaile moduan ere esperientzia luzea duenez, lan egiteko gertu dago. Lan egiteko gogoz. Mesedez interesatuok deitu zenbaki honetara. Mila esker. 681149554

**Bergara edo inguruak.** 25 urteko neska arduratsua, erizaintza ikasketak amaitzen ari dena, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko gertu arratsaldetan edo goizetan. Baita astebukaeratan ere. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 618924053 edo 943762585

**Bergara.** Emakume eskarmentuduna arratsalde etxeko garbiketa zein lanak egiteko prest. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 635706997

**Bergara.** Neska euskalduna arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 618436035

**Debagoiena eta Debabarrena.** Lantegien garbiketan edo bestelako edozein lanetan arituko nintzateke. Autoa daukat. Edozein egun eta ordutegitarako gertu. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 632773538

**Debagoiena.** 32 urteko neska nagusiak zaindu, etxeko lanak eta garbiketarak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Arduratsua eta maitagarria naiz. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 633744954

**Debagoiena.** Animalien zaintzan esperientzia duen mutilak baserrietan lana egingo luke. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 676049326 edo 631361762

**Debagoiena.** Esperientzia handidun erizain laguntzailea lan bila. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 696705509

**Debagoiena.** Denetarik garbiketarak egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 691285325

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu egunez, etxean bertan bizi izanda edo tordukalari egiteko. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketarak egingo nituzke. Lege dokumentuak eguneratuta daukat. 662061809

**Debagoiena.** Emakumea etxeko garbitasun lanak eta atari eta abarren garbiketarak egiteko gertu. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 632773538

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Asteleheneko 17:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunrik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

## PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

## - Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

## Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

## - Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra: 22 euro (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskaerak  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Errentan eman  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdtu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA:

- Madura 57 m<sup>2</sup>, 2 logela. Oso egoera onean. 120.000€.
- Bolun 135 m<sup>2</sup>ko Elkarte salgai. Ekipatua. 123.600€.
- Angiozarren Erregegia alokagailu. Erregegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta marrazan.
- San Antonio Abad 71 m<sup>2</sup>, 3 logela. 2 apartakaleku eta txokorekin. 85.000€.
- San Lorenzo 85 m<sup>2</sup>, 3 logela, garaje eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Espoleta 95 m<sup>2</sup>, 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Izar posealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000€.
- Simon Arrieta 68 m<sup>2</sup>, 2 logela, 80 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 132.600€.
- Simon Arrieta 69 m<sup>2</sup>, 3 logela. 20 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 107.100€.
- Ibargarai 73 m<sup>2</sup>, 3 logela. 235.000€.
- Zubieto 110 m<sup>2</sup>, 3 logela. Ortu, lokala eta trastelekuarekin. 95.000€.
- Fraizkozuri 162 m<sup>2</sup>, 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m<sup>2</sup>, 3 logela. 13 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 115.000€.
- San Antonio 86 m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteleku eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Angiozar 170 m<sup>2</sup>, duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m<sup>2</sup>ko lur sailarekin.
- Artakale 47 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berritua. Trastelekuarekin. 100.000€.
- Barrenkale 113 m<sup>2</sup>, 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterrako 72 m<sup>2</sup>, 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000€.
- San Lorenzo 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Garajea eta trastelekuak aukeran. Berria. 200.850€.
- Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. Erabat berritua 180.000€.
- Simon Arrieta 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Ibargarai 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000€.
- Bidekurutzeta 71 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. Igogailua eta terraza handiarekin. 204.344€.
- Angiozar 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Zubiaurre 104 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekuak, Terrazarekin.
- Martoko 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000€.
- Aramerako 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua, trastelekuak. Garajea aukeran. 164.850€.
- Bidekurutzeta 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trastelekuak. 85.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxilegi, 115m<sup>2</sup>, 3 logela, trasteleku eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

## ANTZUOLA:

- Sagasti 140 m<sup>2</sup>, duplexa. 250.000€.
- Behoko Auzoa 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Sagasti 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Aiharra 83m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000€.
- Buztin Zuri. Oso aukera ona.

## SORALUZU:

- Sagor Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak..

## ELGETA:

- Torrealedea 77 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingio Iturbe, adosatua 150 m<sup>2</sup> + 45 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> lursaila.

## OSINTXU:

- Osintxu 85m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Eskarmentudun mutilajate txeko sukaldean edo tabernatan lan egiteko gertu. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 676049326 edo 631361762

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska lanerako gertu: garbiketarak, tabernako sukaldean, nagusi eta umeak zaintzen eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 697200086

**Debagoiena.** Estetika arloan lan egingo nuke. Ikasketak eta eskarmentua ditut. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 663587864

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta garbiketarak lanetan. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 610994203

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 697864900

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu nago. Geriatria eta erizaintza ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 678843786

**Debagoiena.** Garbiketarak eta ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan

bizi izaten edo egun osoz. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 663587864

**Debagoiena.** Harategiko ofiziala naiz eta astean zehar arratsalde edo asteburuetan lan egingo nuke. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 674720644

**Debagoiena.** Klinika laguntzaile eta gizarte integrazio titulua daukat eta pertsona nagusiak edo ezintasunen bat dutenak zainduko nituzke. Euren beharren arabera atentzioa: pasioak egin, elikadura zaindu eta abar. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 697476155

**Debagoiena.** Mutila arduratsua eskaintzen da garbitasun lanerako eta baita nagusiak zainzeko ere. Esperientzia handikoa nagusien zainketan. Dokumentuak eguneratuta ditut. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 658749463

**Debagoiena.** Mutila gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zainzten edo obratan peoi aritzeko. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 691726738

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile, nagusiak zainzten eta abar. Autoan garraio lanak ere bai. Intere-

satua egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 636604851

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketarak eta hoteletan lan egingo naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. Biltzean ere aritutakoa naiz. Autoa daukat. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 662260709

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaindu edo denetarik garbiketarak egingo nituzke. Tabernako sukaldari laguntzaile ere aritutakoa naiz pintxo, ogitarteko eta platerak prestatzen. Gidabaimena eta autoa daukat eta berehala hasteko gertu nengo. 677737959

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zainzten, garbiketarak egiten edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. 691032502 edo 943540941

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketarak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 686447038

**Debagoiena.** Nagusiak zainzeko gertu nago Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. 602071206

**Debagoiena.** Nagusiak zainzeko gertu nago, baita etxean bertan bizi izaten ere. 631596791

**Debagoiena.** Nagusiak zainzten edota baserriko lanak egiten lan egingo nuke. Sukaldean ondo moldatzen naiz eta dietista moduan lan egingo naiz. Zaintza ikasketak ere baditut. 693724166

**Debagoiena.** Nagusiak zainzten lan egingo nuke egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gomendiozko gutuna daukat. 664124325

**Debagoiena.** Nagusiak zainzten lan egingo nuke, nahiago etxean bertan bizi izaten bada. Elektrikari, iturgintzan edota sukaldean badakit. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 632085769

**Debagoiena.** Nagusiak zainzten, sukalde laguntzaile, garbiketarak egiten eta okidegian lan egingo naiz neska lan bila. 634039158

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketarak egiten edota nagusiek egon eta paseoa ateratzeko laguntzen. 695738795

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zainzeko edo atari, taberna eta abarren garbiketarak egiteko. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 632332046

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 631436171

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 609188732

**Debagoiena.** Neska arduratsua sukaldaritzara eta geriatria ikasketak dituen, lan bila dabil. Nagusiak zaindu, zerbitzari lanak egin eta abar. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 615062804

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxean gaixoak zainzten edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa

daukat. Eskarmentu handia. Interesatuok egonez gero deitu ezazu telefono honetara: 600005160

**Debagoiena.** Orduka edo asteburuetan nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Baita garbiketarak lanak egin ere. 610997046

**Debagoiena.** Orduka, egun osoz edo gauz lan egingo nuke, nagusiak zainzten eta garbitasunetan. 606641609

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zainzten lan egingo nuke. Ostalaritza eta hoteletan lan egingo naiz bai garbiketarak eta baita sukaldari laguntzen ere. Autoa daukat. 636112340

**Gidari.** C + E eta gai arriskuak eramateko gidabaimena daukat. Jaso-makina baimena eta elektro-mekanika LHI prestakuntza. Eskarmentua dut gidatzen, mekanikari, banaketan eta ostalaritzan. 676574418

**Ile-apaintzailea.** Esperientziadun ile-apaintzaile eta estetizista lanerako gertu. 605726443

**Lanbila.** Emakume arduratsua eta eskarmentuduna, etxean bertan bizi izaten, egun osoz, lan egiteko gertu. Edozein herrian lan egingo nuke. Margarita Claros. 632850384

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. 666832195

## 6. MOTORRA

## 602. EROSI

**Autokarabana.** Bigarren eskuko autokarabana erosiko nuke. 655737494

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Taxi lizentzia Antzuolan.** Erretiroa hartzeagatik, taxi lizentzia osoa, auto eta guzti, eskualdatzen da Antzuolan. 669156540 edo 636019101

## 802. EROSI

**Tintinen komikiak.** Tintinen euskarzko komikiak erosiko nituzke. 688803449 (Jon)

## 806. GALDU

**Betaurrekoak Udaltzen.** Udaltz inguruan eguzkitako betaurrekoak galdu nituen. Norbaitek aurkitu baditu deitu mesedez. 619088465

## 808. BESTELAKOAK

**'Sin ir más lejos' saiora.** Ikasbidea joateko diru bila gabiltzan 1. batxilergo ikasleak gara. Horretarako, EITB-ko 'Sin ir mas lejos' saiora joateko asmoa daukagu publiko bezala, martxoaren 20an eta 27an. Adindun bat behar dugu egun bakoitzerako. Beraz norbaitek interesatua baldin badago telefono honetara deitu dezala. Interesatuok deitu 688802440 telefonora.

**Arrasate.** Entrenatzaile pertsonal titulua eta eskarmentua daukan entrenatzaile baten bila nabil, astean ordu batzuk entrenatzeko. Interesatuok, mesedez, mezua bat bidali laguntzen@gmail.com helbidera.



## ZORION AGURRAK



**BERGARA Erik Ezenarro Ostolaza**  
Martxoaren 25ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze egunian! Muxu potolo bat etxekoen partetik.



**OÑATI Dane! Urrutia Garcia de Albeniz**  
Martxoaren 24an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze egunian. Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik.



**BERGARA Kenar Da Silva Moreno**  
Martxoaren 23an, 4 urte. Zorionak gure etxeko mutilari! Oso ondo pasatu zure egunian eta ederki ospatu. Zorionak etxekuen partetik, batez ere, Alaine eta Uxue.



**OÑATI Enara Guridi Murua**  
Martxoaren 22an, 6 urte. Zorionak, marisorgintxo! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



**ARRASATE Alaitz Leiba Foronda**  
Martxoaren 22an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat lagunen eta familia guztiaren partetik.



**BERGARA Uxue Iriondo Igarza**  
Martxoaren 22an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko danon partetik.



**BERGARA Aiora Agirre Igarza**  
Martxoaren 21ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



**BERGARA Unax Larrea Gantxegi**  
Martxoaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Unax! Etxeko txikitxuak lau urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu pila bat, bereziki, Noraren eta Anerren partetik. Asko maite zaitugu, pottoko!



**ARETXABALETA Martina Arando**  
Martxoaren 20an, 80 urte. Zorionak, amama. Ondo pasatu zure eguna eta jarraitu horrela, gogor eta tinko. Mila muxu familia guztiaren partetik.



**BERGARA Uxue Urriza Aranzabal**  
Martxoaren 20an, 6 urte. Zorionak, Uxue!



**BERGARA Elene Perez Zabaleta**  
Martxoaren 20an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Familia guztiaren partetik, bereziki Ane, Jurgi, Erik, Nora eta Irati. Patxo potolo bat zuretzat!



**ARETXABALETA Oxel Urteaga Larrea**  
Martxoaren 20an, 5 urte. Zorionak, Oxel! Bost tirakada handi belarritik eta muxu erraldoi bat!



**ANTZUOLA Jare Ortiz Jimenez**  
Martxoaren 20an, 2 urte. Gure etxeko txikiak bi urte betetzen ditu. Zorionak Iraiaren, aitaoren eta amaxoren partetik. Patxo potolo-potolo bi, maillia!



**BERGARA Sare Larrañaga**  
Martxoaren 19an, 4 urte. Ole, ole, gure Sarek 4 urte! Patxo handi-handi danon partetik. Egun polit-politxa pasatuko dogu-eta! Zorionak, sorgintxo!



**ARRASATE Hodei Idigoras Amado**  
Martxoaren 19an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo eta besakada erraldoi bat familia guztiaren partetik!



**BERGARA Elene Goikoetxea**  
Martxoaren 19an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Enekoren, Danelen eta Maialenen partetik.



**OÑATI Ane Emparanza Judez**  
Martxoaren 19an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Jada hiru urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxekoen eta, bereziki, amaxoren eta aitaoren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Asteleheneko  
17:00ak arte  
jasotako zorion  
agurra bakarrik  
iragarri ditugu.

Hortik aurrera  
jasotakoak hurrengo  
asteen argitaratuko  
ditugu.



**BERGARA Maitane Agiriano Larrion**  
Martxoaren 18an, 6 urte. Zorionak, prexiosa, familiaren aldetik eta muxu handia lonen partetik.



**OÑATI Miren Bikuña**  
Martxoaren 17an, 50 urte. Zorionak eta urte askotarako etxekoen eta, batez ere, Carlosen, Urtziren, Naroaren eta Sandraren partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna.



**OÑATI Alaitz Isasti Arkauz**  
Martxoaren 17an, 2 urte. Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



**ARRASATE Aitor Vitoria Herranz**  
Martxoaren 16an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ederro pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila!



**ARRASATE Sara Vitoria Zabaleta**  
Martxoaren 15ean, 41 urte. Zorionak, guapa! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila!



**BERGARA Helene Sanchez**  
Martxoaren 15ean, urtebete! Ondo pasatu zure eguna familia osoaren eta, bereziki, tata Noemiren eta Haizearen partetik! Muxu handi bat.



**BERGARA Uxue Azkarate Unamuno**  
Martxoaren 12an, 11 urte. Urte askotarako etxeko guztien izenean; bereziki, Aneren eta baita amandareen izenean.

ARRASATEKOBASERRIKO  
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2015  
martxoak 21

apirilak 18  
maiatzak 16  
ekainak 20  
uztailak 18  
irailak 19  
urriak 17  
azaroak 21

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
Eragin eta Garapen  
Ekonomikoren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta  
merkatariek konfiantza  
harbitasuna eta kalitatea  
eskaintzen dizkiuzte.





ASTEAGOIENAN



Korrikan jasotakoa, Goiena telebistan

Urepelen hasiko da Korrika bihar, eguena, 16:00etan, eta zuzenean eskainiko dute bertan gertatzen ari dena. Astelehenean, hilak 23, iritsiko da bailarara, eta egun berean *Debagoiena* zuzenean saioan jasoko dute (19:30, 21:00 eta 22:30).

'Korrika 19'

Orduak ikusi beheto taulan



Uzarragako igoera izango da ikusgai

Asteleheneko *Harmailatik* kirol saioan, asteburuan jokatu den Uzarragako igoerako laburpena eskainiko dute; gazte mailakoa da. Horrez gain, asteburuko kirol kontuen errepasoa ere egingo dute Xabi Urzelaik aurkeztutako telebista saioan.

'Harmailatik'

Astelehena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUAZTENA, 18	EGUENA, 19	EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Amaia DJ	10:00 Amaia DJ	10:00 Amaia DJ	10:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harira	10:30 Sasoi betean	10:30 Artxibotik tiraka	10:30 Sasoi betean	11:00 Ahotsenea	13:00 Onein	13:00 Harmailatik
13:00 Artxibotik tiraka	11:00 Debagoiena zuzenean	13:00 Onein	11:00 Debagoiena zuzenean	11:30 Amaia DJ	13:30 Zorion Agurrak	13:25 Zorion Agurrak
13:55 Zorion Agurrak	11:55 Astea iruditzen	13:30 Debagoiena zuzenean	12:00 Harira	12:00 Sagarrondotik	13:30 Debagoiena zuzenean	13:30 Debagoiena zuzenean
14:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Harira	13:30 Ertzak	12:30 Galdegazte	12:50 Ikusmira	14:30 Berriak	14:30 Berriak
14:30 Berriak	12:30 Galdegazte	14:15 Ikusmira	13:00 Onein	13:00 Galdegazte	15:00 Ahotsenea	15:00 Harmailatik
15:00 Harira	13:00 Onein	14:30 Harira	13:30 Ertzak	13:30 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein	13:30 Sagarrondotik	14:30 Harira	14:15 Ikusmira	14:30 Harira	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Debagoiena zuzenean
16:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Harira	15:00 Erreportajea: Korrika 19	14:30 Harira	15:00 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	16:30 Berriak
16:30 Berriak	15:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Galdegazte	15:00 Debagoiena zuzenean	15:05 Erreportajea: Korrika 19 herri	17:00 Erreportajea: Amaiur harritik	17:00 Aizank!
17:00 Ertzak	16:00 Korrika 19	15:45 Debagoiena zuzenean	16:00 Ahotsenea	15:45 Ikusmira	17:45 Ertzak	17:40 Ikusmira
17:45 Artxibotik tiraka	17:30 Artxibotik tiraka	16:45 Amaia DJ	16:30 Aho bazarrik gabe	16:00 Amaia DJ	18:25 Zorion Agurrak	18:00 Amaia DJ
18:30 Berriak	19:00 Debagoiena zuzenean	17:15 Galdegazte	17:55 Zorion Agurrak	16:30 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	18:25 Zorion Agurrak
18:55 Zorion Agurrak	19:00 Debagoiena zuzenean	17:45 Aho bazarrik gabe	18:00 Galdegazte	17:30 Galdegazte	19:00 Harira	18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ	20:00 Harira	18:45 Artxibotik tiraka	18:30 Idemtitateak	18:00 Sagarrondotik	19:30 Debagoiena zuzenean	19:00 Galdegazte
19:30 Harira	20:30 Amaia DJ	22:00 Galdegazte	19:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Harira	20:30 Berriak	19:30 Harmailatik
19:55 Zorion Agurrak	21:00 Galdegazte	22:00 Galdegazte	20:00 Harira	19:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Artxibotik tiraka	22:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Amaia DJ	20:30 Berriak	22:00 Harmailatik	20:30 Berriak
20:30 Berriak	22:00 Amaia DJ		21:00 Berbetan	21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Galdegazte		21:45 Galdegazte	20:50 Artxibotik tiraka	23:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
21:30 Berriak	23:00 Debagoiena zuzenean		22:15 Debagoiena zuzenean	21:30 Galdegazte	00:00 Ahotsenea	22:00 Harira
22:00 Galdegazte			23:15 Harira	22:00 Amaia DJ	00:30 Harira	22:30 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean			23:45 Ahotsenea	22:30 Debagoiena zuzenean	01:00 Galdegazte	23:00 Berriak
23:00 Berriak			00:00 Harira	23:30 Artxibotik tiraka		23:30 Harmailatik
23:30 Artxibotik tiraka				00:15 Amaia DJ		00:30 Debagoiena zuzenean
00:30 Debagoiena zuzenean						01:00 Berriak
01:00 Berriak						

ARRASATE IRRATIA

Astelehenean itzuliko da 'Igo autobusera!'

Gaurko irratsaioaren ostean, San Jose eguna dela-eta bihar eta etzi, eguena eta egubakoitza, ez da *Igo autobusera!* irratsaioerik izango. Astelehenean, hilak 23, itzuliko da uhinetara, 10:00etan, eta egun horretan, Korrikaren Debagoieneko jarraipena egingo dute zuzenean.

Operarako sarrerak eta Korrikako kirol-jertsea zozketan

Datorren asteko egubakoitzeko zozketan hainbat sari egongo dira: Amaia antzokian hilaren 28an, 20:30ean, eskainiko den *Tosca* operarako sarrerak eta Korrikako kirol-jertsea zozketatuko dituzte. Zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus) era.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Eguaztena, 18	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguena, 19	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Egubakoitza, 20	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Zapatua, 21	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Domeka, 22	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Astelehena, 23	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 24	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
BERGARA			
Eguaztena, 18	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 19	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 20	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Zapatua, 21	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 22	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Astelehena, 23	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 24	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
OÑATI			
Eguaztena, 18	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 19	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 21	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 22	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 23	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 24	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, ([www.cofjipuzkoa.com](http://www.cofjipuzkoa.com)).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 14°  
Min. 6°



Max. 12°  
Min. 4°


EGUENA, 19

Hodeiak nagusituko dira, baina momentu batzuetan hodei geruza ez da oso trinkoa izango. Gaez ez du askorik hoztuko.

EGUBAKOITZA, 20

Eguraldia okerrera egingo du egubakoitzean. Zeruan ez da eguzki izpirik izango eta tenperaturak behera egingo du.

EUSKAL HERRIA



Baliteke euri pixka bat egitea hegoaldean, baina zailagoa izango da ipar-izurialdera iristea.

GAZTE INFORMAZIOA

AUZOLANDEGIAK

**Eusko Jaurlaritza.** 18-30 urte arteko gazteei, udako hilabeteetan auzolandegietan parte hartzeko aukera eskaintzen diete. Zozketan izen emateko epea apirilaren 8tik 14ra bitartean izango da.

UDALEKUAK

**Foru Aldundia.** 7-13 urte arteko gazteei zuzendutako udalekuak. Zozketan izena emateko epea martxoaren 18tik 30era bitartean izango da. Izena emateko, bailarako gazte bulegoetan, gazteria sailetan edo Internet bidez [www.gipuzkoangazte.eus/udalekuak](http://www.gipuzkoangazte.eus/udalekuak).

**Euskal Udalekuak.** Abaigarren, Bernedon eta Gofiñan antolatutako egonaldiak, 7-17 urte arteko gazteentzat, 9-14 eguneko txandak. Epea: martxoaren 10etik aurrera, plazak bete arte [www.udalekuak.eus](http://www.udalekuak.eus).

ren 10etik aurrera, plazak bete arte [www.udalekuak.eus](http://www.udalekuak.eus).

**Bertso udalekuak.** 9-18 urte arteko bertsozaleentzat antolatutako egonaldiak dira. Izena emateko azken eguna izango da: apirilak 13. <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

LANA

**Aisialdiko begiraleak eta zuzendaria.** Zumaiako Udala. Udako udaleku irekietan begirale eta koordinatzaile lanetan jarduteko deialdia. Epea: martxoak 23.


LEHIAKETAK

**Bertsomovieda.** Beasaingoa Arrano Elkarte. Bertsoz osatutako film laburra, euskaraz, eta gutxienez bertso bat eduki behar du. Epea izango da: apirilak 17.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net) Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)







### Marijo eta Euxebio

Marijo Moyua eta Euxebio Agirre oñatiarrak martxoaren 24an ezkondu ziren, orain 25 urte. "Zorionak, bikote! Primeran ospatu zilarrezko ezteiak familiakoekin eta lagunekin! Jarrai ezazue orain arte bezain zoriontsu izaten! Muxu handi bat familia guztiaren partetik".

#### URTEURRENA

### Jesus Ezkurra Murua



Martxoaren 19an hil zen, 71 urte zituela.

Haren aldeko meza bihar, eguena, martxoak 19, izango da, 12:30ean, Arrasateko San Andres auzoko elizan.

*Bizilegea ere batzutan izaten da hain krudela zu joan zinen Nere eta Eider oraindik txiki zirela*

*agian ez dira oroituko agian ez gu bezela baina jakingo dute aititi handi bat izan zutela.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2015eko martxoaren 18an.

#### URTEURRENA

### Elida Grille Ponce



2014ko martxoaren 17an hil zen, 70 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko martxoaren 18an.

#### URTEURRENA

### Aritz Azpiazu Bengoa



Oñatin hil zen 2005eko martxoaren 25ean.

*Beti izango zara gurekin*

Etxekoak. Oñatin, 2015eko martxoaren 18an.

#### OROIGARRIA

### Joaquin Ibabe Orueta



1933/8/16 - 2011/03/21

*Ondion ez gara ahaztu zurekin ikasitakoekin.*

Etxekoak. Arrasaten, 2015eko martxoaren 18an.

#### ESKER ONA

### Juana Mari Esquibel Burillo



Iruñean hil zen 2015eko otsailaren 7an, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2015eko martxoaren 18an.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## Debagoieneko GREMIOAK

### AROSZTEGIAK

#### AZKARATE AROSZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

### ERAIKUNTZAK

#### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa

- Berogailuak eta petrolio-produktuak

- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LEIHOAK

#### ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

### LOREZAINZTA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



## ZINEMA

## ARETXABALETA

## ARKUPE

**Siempre Alice**  
Eguena: 19:30.  
Zapatua eta domeka: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Annie**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## ARRASATE

## AMAIA ANTZOKIA

**50 sombras de Grey**  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**El libro de la vida**  
Domeka: 17:00.

## EIBAR

## COLISEO

**Los caballeros del Zodiaco**  
Zapatua eta domeka: 17:00.  
Astelehena: 20:30.

**Chappie**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Negociador**  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.

## ANTZOKIA

**Negociador**  
Astelehena: 20:30.

## OÑATI

## KULTURA ETXEA

**El francotirador**  
Eguena eta domeka: 19:30,  
22:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:30.

**Paddington**  
Eguena, zapatua eta domeka:  
17:00.



## OÑATI Osso eta Backbone taldeak

Lekterrek eta Sergek osatzen dute Osso bikote eibartarra. Erritmo aldaketa handiko kantuek dituzte esku artean. Bestalde, Backbone gernikarrek musika gogorra eta astuna egingen dute oholtza gainean.

Martxoaren 21ean, zapatua, Antixenan, 22:00etan.

**ELGETA Manuel Goikolea magoa**  
Magia ikuskizuna egingo du 14 urtetik gorakoendako. Eskarmentu handiko magoa da eta gazte eta helduendako ikuskizuna egingo du Espaloian. Magia mentala da haren ezaugarri nagusia eta askotariko trukuak egingo ditu ikus-entzuleen pentsamenduetan sartuta. Sarrerak, leihatilan salgai. Etzi, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

## KRITIKA



## Hausturaren ordena

**B**ikote bat bi seme-alabekin Alpeetako eski-estazio batera heltzen da bost egun pasatzeko asmoz. Bikotea gaztea, dotorea eta egoera ekonomiko onekoa da. Dena ondo doala ematen du. Gauza guztiak elkarrekin egiten dituzte. Baina familia jabetxe bateko terrazan dagoela, elurrolde bat sortuko da. Hasieran garrantzi txikikoa dirudi, baina, heltzen den heinean, jendearen artean beldurra zabalduko da. Amaren erreakzioa seme-alabak babestea da. Aitarena, ordea, ez da espero dena. Gertatutakoak arrail bat sortuko du familiaren harremanetan eta arrail hori zabalduz joango da, ezarritako ordenan haustura bat sortuta. Egoera nahasia da eta haurrek gurasoen artean gertatzen ari den urrutzea sumatzen dute.

Kasu askotan, sendo diruditen harremanak ez daude zimendu iraunkorretan eraikiak, eta ezuste batek perfektua zirudien bizikidetzan zalantzak sor ditzake. Pertsonaiak ez zeuden prest gertatutakoari aurre egiteko. Zer egin? Ezer gertatu izango ez balitz jokatu? Egoera horrek, poliki-poliki, bikotearen urrutzea

## FUERZA MAYOR ★★★★★

**Zuzendaria:** Ruben Ostlund.

**Herrialdea:** Suedia.

**Aktoreak:** Johannes Bah Kuhnke, Clara Wettergren, Lisa Loven, Konsigli.

areagotzen du. Barruan gordetzen eta esaten ez denak harremanen narriadura ekartzen du. Baina ez da erraza sentimenduen edo bizirik irauteko senaren arrazionalizazioa egitea. Ezin dugu ziur jakin egoera latz baten nola jokatu dugun jakitea. Gauza bat da teorikoki zer egin behar den jakitea eta bestea errealitatea gure aurpegi aurrean agertzen denean zer egin behar den jakitea.

Ruben Östlundek dotoreziak eta soiltasunez azaltzen digu kontatu nahi duen istorio ezandagarria. Zalantzan jartzen ditu gizartearen dauden arauak. Modu neurtuan pertsonaiengana hurbiltzen da horiek jasaten ari diren dudak eta nahasteak erakusteko. Ondo erakusten du atmosferan dagoen kutsu deserosoa. Eta azkenean, gizakien harremanei buruz nahiko ikuspegi garrantzua ematen du.

ANTONIO ZABALA

## NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MARTXOA 18  
MARTXOA 26

## MUSIKA

## ARRASATE Betunizer taldea

Valentziako taldeak post-hardcorearen oinarritzko patrioiak zizelkatuta ditu. Bira egiten dihardu *Gran veta* delako diskoa aurkezten. Kooltur Ostegunak ekimeneko kontzertua. Sarrerak, bost euro.

Bihar, eguena, gaztetxean, 22:00etan.

## ELGETA Los Chichos

Agurreko biraren barruan emaldia egingo dute. Sarrerak salgai Espaloian, Bergarako Pol Tabernan eta [www.kulturalive.com](http://www.kulturalive.com) atarian.

Martxoaren 21ean, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

## ARRASATE Bastard On Parade eta The Potes

Punk-rock melodikoa eta garga-gardoa izango dira nagusi gaztetxean. Jul Bolinaga taldekidea hii osteko lehen kontzertua egingo dute The Potes arrasatearrek.

Martxoaren 21ean, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

## OÑATI La Baldosa Flotante taldea

2003an Bilboko Irola irrati libreko poesia-musika irratsaio baten inguruan sortutako taldea da. Gitarra akustikoak eta soinu harmonikoak nagusi.

Martxoaren 22an, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

## ANTZERKIA

## OÑATI 'Verdi que te quiero Verdi' antzezlan

Donostiako Oroimenak erretiratuaren taldeak egingo du, Pake Lekuren udaberriari ongietorria emateko ekintzen barruan.

Gaur, eguaztena, Santa Anan, 17:00etan.

## OÑATI 'Medea' antzezlan

Euripidesen idazlana abiapuntu hartuta, bere bi semeak hil ondo-

ren Medearen azkenengo orduak taularatuko ditu Bea Insa aktoreak.

Gaur, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

## BERGARA 'Trostan'

Oihulari Klown taldearen azken lana. Sarrerak, lau euro.

Etzi, egubakoitza, Zabalotegin, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

## ARRASATE Emakume artisten lanak

*Artean. Hamaika emakume artista* da Ekin Emakume Elkarteak osatu duen erakusketa.

Kulturaren, martxoaren 28ra arte.

## ARETXABALETA Koldo Carrillo

Argazki erakusketa.

Arkupen, martxoaren 31ra arte.

## BERGARA Antton Arrillaga

Pintura erakusketa zabalduko dute martxoaren 20an.

Aroztegin, apirilaren 5era arte.

## OÑATI Gipuzkoako zuhaitz berezia

Foru Aldundiaren egutegirako ateratako zuhaitz berezien argazkiak erakutsiko dituzte Arantzazun. Zuhaitz apartekoak dira, legez babestu beharrekoak: tamainagatik, adinagatik, historiagatik, edertasunagatik eta kokapenagatik.

Martxoaren 27ra arte, parketxean.



Bergarako Udalerri esker  
Erramu zapatuko bezperako bertso saiorako sarrerak ditugu  
Udal Pilotalekuan. Bergara  
Martxoaren 27an, 22:30ean

## PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 24 BAINO LEHENAGO):

SMS: KLUBA [bertsosaioa] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) WhatsApp: KLUBA bertsosaioa [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara datatzea: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

goienakluba™



Ozenki eta Sasibil Produzkoak-i esker  
"Tosca" opera ikusteko sarrerak ditugu.  
Amaia Antzokia. Arrasate  
Martxoaren 28an, 20:30ean.

## PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 25 BAINO LEHENAGO):

SMS: KLUBA [Tosca] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) WhatsApp: KLUBA Tosca [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara datatzea: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

goienakluba™





PLUS.GOOGLE.COM

## OSPAKIZUNAK

### OÑATI Korrika bazkaria

100 lagunendako bazkaria egingo dute, ehiztariek ehizatutako okelarekin eta herriko ardogle eta sagardogileen edariekin. Txartelak Ona, Arrano eta gaztetxean erosi ahal izango dira. Martxoaren 21ean, zapatua, gaztetxean, 14:00etan.

### ARAMAIO 1974an jaiotakoak

Dukiena jatetxean afalduko dute. Martxoaren 21ean, zapatua, Dukienan, 19:00etan.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

### BERGARA 'Hannah Arendt' filma

Zineklubak emakumeei eskainitako zikloaren barruan. Sarrera, hiru euro. Gaur, eguaztana, Zabalotegin, 20:00etan.

### OÑATI Susana Arregi zenari buruzko dokumentala

Susana Arregi hil zutenetik 25 urte pasa direnean, orduko gertakariak eta Susana nor zen gogoratzen duen dokumentala. Etzi, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

### ARETXABALETA Laburbira

Euskaltzaleen Topaguneak presatzen duen film laburren zirkuituko emanaldia. Tartean, Kepa Errastiren *Aitona Mantangorria*, Asier Altunaren *Zela Trovke* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* laburrak emango dituzte. Azken hori emanaldian egongo da ikus-entzuleen galderak erantzuteko. Martxoaren 24an, Arkupen, 19:00etan.

### BERGARA 'Short term 12' filma

Zineklubak emakumeei eskainitako zikloaren barruan dago film hori. Sarrera, hiru euro. Martxoaren 25ean, Zabalotegin, 20:00etan.

## HITZALDIAK

### OÑATI Erorketak adineko pertsonetan

Oñatiko osasun etxeko erizain Isabel Arenatzak eta Kiskitza Alustizak egingo dute berbapertsona nagusiei horrenbeste eragiten dieten erorketen gainean.



GOIENA

### ARAMAIO Arabako Bertsolari Txapelketako finala

Manex Agirre eta Xabi Igoa aramaioarrek parte hartuko dute Gasteizko Printzipal antzokian jokatu den finalean. Eurenkin batera egongo dira Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Ruben Sanchez eta Zigor Enbeita.

Martxoaren 21ean, zapatua, Gasteizko Printzipal antzokian, 17:30ean.

Pake Lekuren udaberriari ongietorria emateko ekintzen barruan dago hitzaldia.

Martxoaren 24an, Pake Lekun, 17:30ean.

### BERGARA 'Zortziko zabala' hitzaldia

Andoni Egaña bertsolari eta idazlearen berbaldia.

Martxoaren 25ean, Irizarren, 19:00etan.

### ESKORIATZA Bidegiren gainean

*Bidegi, iragana eta oraina. Azpiegitura handi baten ondorio kaltegarriak kudeatzeko eredu berria* izeneko berbaldia egingo dute Larraitz Ugarte eta Joseba Altubek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasun diputatuak eta Bide Azpiegituren zuzendariak, hurrenez hurren, ele bitan.

Martxoaren 25ean, Ibarraundin, 18:30ean.

### ARRASATE Baltistan Fundazioa

Gobernuz Kanpoko Erakundeak hango Hushe bailarako hezkuntzaz, genero berdintasunaz eta mendiaz egingo du berba. Han diharduten boluntarioak izango dira hizlariak. Ostean, mahai-ingurua egingo dute fundazioaren sinergiak sortzeko.

Martxoaren 26an, Kulturaten, 18:00etan.

## BESTELAKOAK

### ARRASATE Erretiratuen batzarra

Urteko batzar orokorra. Gaiak: diru kontuak, ekintzen azalpenak, proposamenak... Etzi, egubakoitza, Abaroan, 17:00etan.

### BERGARA Musika eskola

Urteko batzar orokorra egingo dute. Diru kontuak eta datu akademikoak azalduko dituzte. Martxoaren 24an, musika eskolan, 19:00etan.

### ELGETA Joseba Usabiaga

*Oroitza-Penak* delako bakarrizketa egingo du. Martxoaren 22an, domeka, Espaloian, 16:30ean.

### DEBAGOIENA Baserrietako plastikoak

Siloea estaltzeko, belar boletako, berotegietako eta ortuko lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria atera beharko dira datorren martxoaren 24an, martitzena, herri bakoitzean zehaztutako puntuetara. Edozein modu-

tan, bilketa martxoaren 25ean egingo dute.

Martxoaren 25ean, herririk herri, 17:00etan.

### OÑATI Bingo berezia

Pake Lekun udaberriari ongietorria egiteko prestatu duten ekimenetako bat da. Sari bereziak egingo direla iragarri dute.

Martxoaren 25ean, Pake Lekun, 17:00etan.

## AZOKA

### ARRASATE Baserritarren azoka

Martxoko hirugarren zapatua izanik, baserritarren azoka egingo dute martxoaren 21ean.

Martxoaren 21ean, Seberon, 09:00etan.

## Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutz



### GOIAZ! 2015

Lanbide Heziketaren Azoka  
Apirilaren 15ean eta 16an;  
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza  
Enplegu zerbitzuak  
Ekintzaileentzat zerbitzuak  
Tailerrak eta hitzaldiak  
Aparatuak eta esperimenduak



www.facebook.com/goiazdebagoiena



www.twitter.com/goiazdebagoiena



TXINTXARRIEUS

### ARRASATE 'Opera abeslaria', haurrendako antzerkia

Antzerkia, musika eta ipuina bateratzen ditu Deabru Beltza taldeak. Idoia Somoza sopranoak, Katrin Schlegel aktoreak eta Marta Galleguillos piano-jotzaileak kontatu eta kantatuko dute istorio bitxi hori.

Martxoaren 21ean, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

## IKASTAROAK

### ELGETA Ipuin kontaketa tailerra

Bost orduko tailerra egingo du Virginia Imazek helduendako, martxoaren 24an eta apirilaren 15ean, 18:00etatik 20:30era arte. Doakoa da, baina alde zuretik izena ematea ezinbestekoa da. Izena emateko azken eguna gaur da, martxoaren 18a.

Martxoaren 24an, liburutegian, 18:00etan.

### BERGARA Txalaparta ikastaroa

Bergarako musika eskolak txalaparta ikastaroa egingo du apirilaren 16tik maiatzaren 23ra arte: zazpi saio, egunetan, 19:00etatik 20:00etara. Izenak

musika eskolan, 943-76 57 80 telefonoan edo [www.bergarakomusikaeskola.com](http://www.bergarakomusikaeskola.com) atarian.

Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

## KIROLA

### ARRASATE 'Body pump'-a

Martxoaren 26an ate irekiak egingo dituzte Musakolan (10:15). *Body pump* a ezagutzeko aukera izango dute herritarrek: zer den, nola ariketak egiten diren, zertarako den onuragarria... Interesatuak martxoaren 25a baino lehen eman beharko dute izena 943-77 16 77 telefonora deituta.

Martxoaren 26an, Musakolan, 10:15ean.

**M**aider Cabo bergararrak Alemaniatarren zuzendutako Lanbide Heziketako erdi mailako Erizain Laguntzaile zikloa ikasten ari da Aretxabaleta Lanbide Eskolan, eta Erasmus programaren bidez Berlinean praktikak egiten dihardu. Bigarren maila bukatzeaz dago, eta praktikak Euskal Herrian eta Alemanian egiteko aukera izan du.

### Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa? Eta nola ezagutu zenuen?

DBH bukatu nuenean ez nuen argi zer ikasi, eta, Goiaz! azokan Lanbide Heziketan dagoen eskaintza ikusi ondoren, gehien gustatu zitzaizkidan aukeratu nuen.

### Inguruko laguntza izan duzu Lanbide Heziketa aukeratzeko orduan?

Bakoitzak nahi duena ikastea oso garrantzitsua dela uste dut, gurasoek hori erakutsi didate txikitatik; horregatik, beti egon dira laguntzeko prest. Lanbide Heziketa ikasten hasi zirenen gertuko jendea nuen inguruan, eta horrek ere laguntzen duela uste dut.

### Zer eman dizu Lanbide Heziketak?

Lanbide Heziketak ematen duena da arlo praktikoa: egiten ikasten dela. Eta aurrerago, praktikak enpresetan egiten direnean ere, oso lagungarriak dira praktikak. Gainera, ikastetxe horrek eskaintzen duen abantaila



**"Irteera ona eta erraza eskaintzen du lanean azkar hasi ahal izateko"**

handia da, bi enpresetan praktikak egiteko aukera eman digute; horrela, gauza ezberdinak ikasteko.

### Zer izan da gogorrena?

Ez dut uste gogorra izan denik. Lehenengo momentutik aurrera gero, erraz eramaten da modulua. Aipatzeak da zorte ona izan dudala taldearekin, eta horrek laguntzen du.

### Orain, Erasmus bitartez, Alemaniara joan zara, bost hilabeterako. Zer espero duzu ikastea?

Hiru hilabetez Berlingo egoitza baten egingo dut lan. Gauza berriak ikastea espero dut, askotariko errealitateak konparatuta.

### Lanera begira, onurarik izan du Lanbide Heziketako ikasketak egin izana? Lana bilatzea erraza izan da?

Oraingo, ez dakit suertea izan dudanez edo guztientzako berdinez izango den, baina hainbat eskaintza izan ditut. Irteera ona eta erraza eskaintzen du lanean azkar hasi ahal izateko.





19.korrika **IZAN ZAITEZTE EUSKAHALDUN!**



Korrikako arropa sorten irabazleak...

Korrikako sei arropa-sorten irabazleak, martxoaren 23an, [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) atarian

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

**goiena**

2015-03-18

BUKATZEKO

# Euskal Herrian zehar Korrikaren atzetik

- Eneritz Urrutia eta Iñigo Louvelli aretxabaletarrak familia furgonetan sartu eta hara eta hona ibiltzen dira
- Aurten lehenengoz biziko dituzte Korrikaren hasierako metroak, Urepelen izango dira bihar arratsaldean

**MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA**  
*Gertu! Badator... Goazen! Pasatu da...* Korrikak berarekin dakartzan oihuak dira, Korrikaren zirrara, eta horixe bizitzera joaten dira Aretxabaletako Eneritz Urrutia eta Iñigo Louvelli hara eta hona. Orain dela hamabi urte, Maule eta Bilbo lotu zituen Korrika 13an joan ziren lehenengoz herritik kanpora Korrikaren etorrera bizitzera. Orduetik ez dute hutsik egin eta datorren guztietan hara ez bada hona joaten dira, gehienetan Nafarroa aldera.

## Umeekin Otsagabiarra

Hasierara ez dira sekula joan, eguenean hasi ohi denez lanean izaten direlako, baina aste bukaera biak aprobetxatzen dituzte gero: "Lehenengo aste bukaeran Nafarroa aldera joaten gara beti, eta bigarrean, helmugara iristen denez, bukaeratik gertu dagoen norabait", dio Urrutiak. Eta herri horietan ikusi bakarrik ez, korrikan egiten dute gainerakoek legez: "Geure herrian bezalaxe bizi dugu Korrika hor ere, eta herritarrekin bat egiten dugu".

Hamabi urtean familia hazi egin da, baina horrek ez ditu kikildu. 2008an bi mutikoak jaio ziren, eta hurrengo urtean Otsa-



Eneritz Urrutia bi mutikoekin, Otsagabian. | ENERITZ URRUTIA

gabia aldera egin zuten, lehenengoz umeekin. "Ordura arte bizitakoetatik ezberdina izan zen; ume-kotxeari bultzaka jardun genuen jende artean, galtzada-harri artean... 500 metro egin ahal izan nituen nik, eta Iñigok jarraitu zuen aurrera", dio, barrez, ez dute-eta helburu metroak eta metroak korrikan egitea.

## Kilometroa Lizarra aldean

Oso giro ezberdina topatu izan dute hango eta hemengo herrietan: "Bereziki dut gogoan Iturenen izan ginenekoa. Hamar urte baziren Korrikarik pasatzen ez zela bertatik, eta 02:30ean iritsi arren herritar guztiak irten ziren kalera: joaldunak, Hartzak... Zer zen hura! Ikaragarria izan zen ordu-

koa", dio, hunkituta. Lizarran ere jendetza topatu zuten orain dela bi urte: "Zenbat jende! Nik ez nuen halakorik espero". Beste batzuetan, ostera, bakarrik egon izan dira: "Lagunen eta familia-koen artean kilometro bat erosten dugu azken urteotan Lizarra aldean. Azkenekoan Abartzuza inguruan geunden bakar-bakarrik, ilunetan, testiguaren zain, eta hori ere berezia izan zen".

## Bihar Urepelera

Aurten gehiago estutuko dira furgonetan, bost dira-eta dagoeneko. Eta, lehenengoz, hasierara joango dira, Urepelera. "Zubia aprobetxatuta lehen metroak ezagutuko ditugu. Gero, Hondarribira joango gara, Lizarra alde-aste bukaeran, Aretxabaletan astelehenean, bukaera Bilbon... "Semeak dagoeneko ohitu dira, eta zirrarak betetako uea da eurendako ere", dio Urrutiak, eta gaineratu: "Horrela ikusiko dute Aretxabaletan bai baina Tuteran eta Enkarerrietan ere euskaraz bizi gura dutela, gure hizkuntza dela eta ofizial izatea gura dugula Euskal Herri osoan. Eta bestetik, elkartasuna zer den erakutsi gura diegu; kasu honetan, AEKri elkartasuna eta laguntza".

## AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Balantzea egiteko garaia

**D**ebagoienean lau urteko hau ez da izan itsaso barearen pare, badira zenbait gai biztanleak astindu dituztenak eta kalera protestan irtetea ohi-turarik ez zutenak ere mugiarazi dituztenak. Atez ateko hondakin bilketaz ari naiz, adibidez. Ez da giro Debagoieneko zenbait herritan, Bergaran, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Oñatin jendea haserre dabil, sistemak berak dituen arazoez gain, Debagoieneko udal gobernuen jarrera izan da jendeak gehien gaitzetsi duena. Gure bailara ukitzen duen azpiegitura handi eta beharrezkoa, berriz, Deskarga, auzitan sartuta dago. Geldirik, langileak langabezian, Antzuolako eta Bergarako lurjabe kaltetuak inpotentziaz beterik, beraien eremuak konpontzeko beste bi urte luze itxoin behar baitituzte, gutxienez. Eguzkeren joan-etorrian ibiltzen diren auto eta kamioi gidariak, arriskuz betetako errepide horretan eguzkeren tentsio batean ibili behar. Epeleko konpostaje planta ere ez dira oraindik eraikitzen hasi lau urteren ostean. Gure hondakin organikoak ezin ditugu bertan konpostatu eta kanpora bidali behar horretarako diru mordoan ordainduz eta kutsadura areagotuz. Honen guztiaren irtenbidea ez da epe motzean ikusten, eta hori kezkarria da.

**OMEGA**  
Urban Service

24h

945 290 308

[www.igogailuak.com](http://www.igogailuak.com)

[debagoiena@omegaurban.com](mailto:debagoiena@omegaurban.com)

**Birgaitzeak**  
**Modernizazioak**  
**Ordezkapenak**  
**Zero Kotarako Jaitsierak**

**Igogailuen**  
**Mantentze-lanak**